

ASTELEHENKOA

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2013-06-03
ASTELEHENA
412. ZENBAKIA
10. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM

Uruguako presidentea, Arrasaten

Mondragonekin
akordioa sinatu du | 4



Jose Mujica (eskuman). | MONDRAGON

Morauren kontzertuarekin bukatu
da Egubakoitzak Kartzelan | 31



Fernandez arabarrak irabazi
zuen Corpuseko lasterketa | 22



Arrasate Rugby Taldeak finala jokatu
zuen zazpinako txapelketan | 24

Prozesioa, aurten aterpean

Corpuseko ospakizun nagusiaren erdia kalerik kale egin zuten, baina, euria
gogoz hasi zela-eta, parrokiari bukatu behar izan zuten Oñatin, atzo | 13



San Migel, jendez betetako parrokiari, Eukaristia gurtzera doala. | JOSETXO ARANTZABAL

Zaleek Galizian ospatu zuten Realaren Europarako txartela

Arrasatearrek "oso giro ona" topatu zuten | 26



Coruñan, partidu aurretik. | INES ALDAI

Euskaltzaleen lagunarteko ospakizuna egin zuten

Euskaraz parranda
egin zuten zapatuan
Aretxabaletan | 12



Iñaki Sagasta, kontzertuan. | I.S.

Alergiak ez dira bakarrik udaberriko osasun arazoa

- ▶ Urte osoan ager daiteke gaixotasun alergiko bat
- ▶ Gaurko bizimoduak zerikusia duela uste da

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Alergiak ez dira bakarrik udaberriko kontuak. Gero eta gehiago, urte osoan alergiaren sintomak dituen jendea doa alergologoak, naturisten edo homeopaten kontsultetara edo farmazietara, sintomak arintzeko botiken bila.

Alergia hitza erabiltzea ere ez da guztiz zehatza; hobe da gaixotasun alergikoak hitz egitea, izan ere, gaixotasun bat baino gehiagoz gabilta. Gasteizen kontsulta dauka Nagore Bernedo alergologoak eta Debagoieneko jendea ere joaten da berarengana. Honela diosku Bernedok: "Alergia hitzarekin, hainbat gaixotasun biltzen ditugu: errinitisa eta asma alergikoa, janarietako alergia, medikamentuetako alergia, kontaktuko dermatitis eta dermatitis atopikoa, besteak beste. Beraz, gaixotasun alergikoak edozein sasaitan eman daitezke".

Gaixotasun alergiko horiek sortzen dituzten sintoma ezagunenak hauek dira: arnas aparatuan agertzen den alergia, errinitisarekin eta asmarekin. Errinitisaren sintoma arruntenak sudurreko azkura, doministikuak, sudurreko kongestioa eta urtsua den muki-jarioa dira. "Askotan, sudurreko sintoma horiek begie-

tako azkurarekin, gorritasunarekin eta malko-jarioarekin batera azaltzen dira, udaberri oso arrunta den errinokontjuntibitis alergikoa emanez", dio Bernedo doktoreak.

Asmaren sintomak eztula eta arnasa hartzeko zailtasuna dira, eta urte osoan eman daitezke.

Janarietako alerkiak

Udaberriko garai tipikotik kanpo ere, urte osoan zehar ere, alergia edo gaixotasun alergikoren bat duen gero eta jende gehiago joaten da alergologoaren kontsultara. Nagore Bernedok konfirmatzen digu: "Errinitis alergikoa oso patologia arrunta da eta populazioaren



Neska, begiak igurzten. | SYLVIA MCFADDEN

laurdenak izan dezake. Beste gaixotasun alergikoekin gertatzen den bezala, gero eta jende gehiagok dauka". Eta alerkiak udaberriko kontua diren ustea gezurtatzen du medikuak: "Arnas aparatuko alergia -errinitisa eta asma- ez da bakarrik udaberriaren agertzen den gaixotasuna. Urte guztian dauden

alergenoek, hautsaren akarioek edo animalien epitelioek, adibidez, sintoma berberak sorrarazi ditzakete".

Horiez gain, gero eta gehiago azaltzen den alergia mota baten gaineko kasuak ikusten dituzte alergologoak: janarietako alerkiak.

ESANAK



"Gaixotasun alergikoak edozein sasaitan eman daitezke"

"Errinitis alergikoa lautik batek izan dezake"

NAGORE BERNEDO | ALERGOLOGOA

ESANAK



"Hesteetako inflamazioa dute alergia izaten duten gehienek"

"Bizimodua zaindu behar da: estresa kendu, egoki jan..."

AMAIA IRIARTE | HOMEOPATA

FORD FIESTA
hileko **125€-gatik**
Lehen ordainketa 2.757 € Etorbizuneko balioa 5.272 €. Epea: 37 hilabete

FORD FOCUS
hileko **165€-gatik**
Lehen ordainketa 4.338 € Etorbizuneko balioa 7.860 €. Epea: 37 hilabete

Ford Fiesta eta Focus gama. Batez besteko kontsumo konbinatua: 3,6 l-tik 7,2 l-ra / 100 km. CO2 isuria: 95 g-tik 160 g-ra / km

MUGARRI AUTOAK Araba Etorbidea, z/g. ARRASATE

ford.es



ditzea eskatzen du. Edozer alergenok piztu dezake erreakzio hori: janari batek, polenak, animalien epitelioek, intsektu baten ziztadak...

Alergenotik urruti egotea

Alergenoa edozein izanda ere, diagnostikoa egiteko inoiz baino baliabide gehiago ditu gaur egun medikuntzak, Bernedok dioskun moduan: "Gaur egunean diagnostiko zehatza egiten saiatzen gara, diagnostiko molekularra deritzona, eta janari konkretu bati alergia daukagula esan ordez, konkretuki alergia ze proteinak sortzen duen bilatzen dugu. Horrela, badakigu polen eta janari begetal desberdinen artean alergenikoak diren proteina komunak daudela eta horrek azaltzen du zergatik janari begetal batekin baino gehiagorekin erreakzio alergikoa duten pertsona batzuek".

Hurrengo pausoa tratamendua da. Osatu ez, baina kontrolatu daitekeela dio alergologoak: "Tratamendu egokiena alergia sortzen diguna ekiditea izango da. Uda-berriko polenarekin eta beste alergenok batzuekin zaila izango da hori. Polen kopuru handia dagoen egunetan, kanpoaldeko jarduera gutxiago egitea komeni da, batez ere goizeko lehen orduetan eta arratsaldeko azken partean". Sintomak tratatzeko antihistaminikoak, kortikoideak, bronkodilatadoreak... daude aukeran. Horrez gain, txertoak edo immunoterapia erabiltzen dira.



Umea, doministiku egiten. | OAKLEY ORIGINALS

Larregiko higiena kaltegarria denean

Inor ez dago gaixotasun alergicoren bat izatetik kanpo, ezta umeak ere. Umeen alergia kasuak gero eta ugariagoak dira, eta horren gaineko kongresua egin zuten Espainiako Immunologia Klinikoaren Elkarteko (SEICAP) kideek Avilan. Hango ondorioetako bat hauxe izan zen: higiena muturrera eroateak eta umeak larregi babesteak kalte egin diezaioke umearen sistema immunologikoari. SEICAPeko presidentek, Marcel Ibero doktoreak esan duenez, "germenik gabe, larregiko higienarekin, larregiko esterilizazioarekin, denetarako txertoak hartuta eta infekzio arrisku barik hazten diren umeen sistema immunologikoak ez du defentsa-mekanismoa aktibatzen, eta aldiz, alergiak izatea errazten du". Datu deigarri bat eman zuten kongresu horretan: AEBetan, gaixotasun alergicok dituzten ume gehiago dago diru-sarrera handiagoak dituzten familien seme-alaben artean (ume horien % 18,3 dira alergicok), txikiagoak dituztenen seme-alaben artean baino (% 14,9).

Nagore Bernedo alergologoak esaten du ez dagoela argi zergatik dauden gero eta alergia kasu gehiago, baina higienaren hipotesia izenekoa dela proposatzen den azalpen posibleetako bat: "Gaur egungo gizartearen gero eta bizimodu aseptikoagoa daukagu; hau dela eta, gure sistema immunologikoa infekzioen aurka prestatu ordez, gure inguruan dauden sustantzien aurka bideratzen da".

Mukosaren inflamazioa

Amaia Iriarte arrasatearraren homeopatia kontsultategira ere "jende dezente" doa alergiaren harira: "Normalean, tratamendu naturala eta alergia prebenitua gura izaten dute", esaten du Iriartek.

Homeopatiaren ikuspuntutik, "ez da hainbeste inporta zein den alergia mota; desoreka baten adierazpena dira, eta kasu gehienetan, hesteetako mukosaren inflamazio kronikoa izaten dute pazienteek", esaten du Amaia Iriartek. Inflamazio hori da benetako arazoa, hortaz.

Horri ekiteko, lehenengo eta behin, "probiotikoak dituzten elikagaiak gomendatzen ditugu, eta enzima digestiboak ere bai, inflamazio hori kentzeko eta sistema immunologikoa ez egoteko alertan. Sintomekin laguntzeko, tratamendu homeopatikoa ematen diet, sintomak desagertu arte", esaten du mediku homeopatak.

Behin sintomak kenduta, "bizimodua zaindu behar dute, mukosa berriz ez desorekatzeko: ondo eta egoki jan, estresa kontrolatu...". Iriartek azaltzen duenez, "alergia mota desberdinak daude norberaren mekanismo immunologikoa desberdina delako, baina manifestazio bat dira. Gero eta okerrago jaten dugu, azkar eta gero eta janari prozesatu gehiagorekin, estresatuta bizi gara, ingurumenean sustantzia toxiko handiak daude... Bizimodua gehiago zaindu behar dugu".

"Edozein janarik sor dezake alergia. Askotariko sintomak ager daitezke: azalean agertzen den urtikariatik hasita, larriagoa den anafilaxiara arte", esaten du Nagore Bernedo alergologoak. Anafilaxia gorputzaren erantzun immunologiko orokorra da eta ia kasu guztietan medikuek aten-

DEBAGOIENENKO LANBIDE HEZIKETAREKIN

ARETXABALETAN:

Ate irekiak: Maiatzaren 22an, 18:00etan

ALE - Aretxabaleta Lanbide Eskola

☎ 943 79 79 00 / 943 79 79 43

www.iaretxabaleta.com



BERGARAN:

Ate irekiak: Maiatzaren 25ean, 11:00etan

IEFPS Miguel Altuna GLHBI Bergara

☎ 943 76 24 91 / 943 76 38 40

www.imaltuna.com



OÑATIN:

Ate irekiak: Maiatzaren 28an, 18:30ean
(Larrañako egoitzan)

RM Zuazola - Larraña Institutua

☎ 943 78 21 50

www.onati.net

"etorkizuna
zure esku"



AURREMATRIKULA: maiatzaren 27tik ekainaren 7ra. • **MATRIKULA:** uztailaren 8tik 12ra.



Neskatila batzuk, tonbolako txartela irekitzen. | LEIRE KORTABARRIA

Arrasatearren elkartasunak argitu zuen egun grisa

Eguraldi txarra egin arren, jende asko ibili zen Elkartasun Eguneko azokan

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Inork ezin die denei lagundu, baina denok lagundu diezaiokegu norbaiti. Horixe da bereziki aurtengo Elkartasun Egunean antolatzaileek azpimarratu nahi izan dutena eta jendeari helarazi nahi izan dioten mezua. Urtero moduan, elkartasun mezua zabaltzeko, Gobernuaz Kanpoko Erakunde batzuek salmenta postuak, tonbola, musika eta beste ekintza batzuk egin zituzten zapatuan, Seber Altube plazan. Antolatzaileak hauek izan dira: Harreman, Mundukide, Bidezko Merkataritza denda, AMS, Serso, Kaleratzeak Stop! eta Nubi. Arizmendi ikastolako neska batzuk ibili ziren haiei laguntzen, animatzaile eta esatari lanak egiten, besteak beste.

Oso garrantzitsua izan zen ere Ibai-Arte merkatarik elkartearen eta Eroski Bidaiak agentziaren laguntza, opariak eman zituztelako eta egun horretako tonbolarako. Asturiasko agroturismo baten egonaldia zozketatu zuten, eta 2.104 zenbakidun txartelak irabazi zuen. Txartelaren jabeak bertan agertzen den telefono zenbakira deitu behar du saria eskatzeko.

Eguraldi aldetik egun grisa izan zen arren, giro polita sortu zen Seber Altuben. Euriaren beldur, umeendako puzgarririk ez zen egon azkenean, baina beste guztia antolatu bezala egin zuten eta pozik agertu zen Cristina Etxeausia, antolatzaileetako bat: "Jendea badabil parte hartzen; eta egun honetako gure helburua

pobreziaren inguruan kontzientzia zabaltzen laguntzea da", esan zuen zapatuan. "Arrasatearrak oso eskuzabalak dira", gaineratu zuen. Batutako dirua Indiako Ankurreko umezurtegirako da.

Boluntario bila

Harreman GKEko Itziar Uriartek esan zuen "oso pozik" zeudela zenbat jende agertu zen eta, krisiak krisi, urtero herritar piloa ibiltzen dela azokan; aurten ere bai.

Eroskin dagoen Bidezko Merkataritzako Dendakoak ere bertan ziren eta eroandako produktu batzuk bukatu egin ziren; pozik zeuden, hortaz. Azken bi urteotan boluntarioei esker eroaten dute denda, eta ahalik eta boluntario gehien behar dituztela gogorarazi zuten.

Mondragon bisitatu eta hitzarmena sinatu zuen Uruguako presidentek

Arrasaten izan zen domekan Jose Mujica, eta Korporazioa eta MU ezagutu zituen

L.K. | ARRASATE

Uruguako presidentek, Jose Mujicak, Mondragon Korporazioa bisitatu zuen domekan, bisita pribatu baten. Korporazioak eta Uruguako Industria, Energia eta Meatzaritza ministroak lankidetzaren hitzarmena egin zuten, programak eta esperientziak konpartitzeko helburuarekin, Uruguako sistema kooperatiboa indartzeko.

Segurtasun neurri handiak ipini zituzten errepideetan eta Arrasateko zenbait lekutan, bisitan gorabeherarik egon ez zedin.

Korporazioko Kontseilu Orokorreko lehendakariak, Txema Gisasolak hartu zuen Jose Mujica. Bisita uruguaitar agintaria bere herrialderako negozio aukera berriak aztertzeko duela zenbait astetik hona egiten dabilen bidaia ofizial



Jose Mujica. | MONDRAGON KORPORAZIOA

baten barruan kokatu da, izan ere, joan den maiatzaren 29an iritsi zen Espainiara bisita ofizialean.

Korporazioaz gain, hezkuntzak Esperientzia Kooperatiboaren garapenean jokatu duen rola eta gaur egun Mondragon Unibertsitateak eskaintzen dituen prestakuntza programak ezagutu zituen Mujicak.

Mikel Illaramendiri azken agurra egin zioten lagunek Ibarraundin

GUREN AUZMENDI | ESKORRIATZA

Atzo, domeka, egin zioten azken agurra Mikel Illaramendiri preso ohiari, Ibarraundin museoaren alboan.

Omenaldia 18:00etan hasi zen eta txalapartariak jotzen hasi zirenerako 250 bat pertsona baziren lekuan. Illaramendiren izaera nabarmendu zuten ekitaldian parte hartu zuten guztiek: lagunkoia eta borrokalari. Haren lagunek osorik

gidatu zuten omenaldia: agurra dantzatu zioten, bertsoak eskaini eta abestiak kantatu: *Zurekin bizitzea plazer hutsa izan da, irakurri zuen batek. Ekitaldia apala izan bazen ere, jende asko hunkituta zegoen.*

Familiaren izenean eskerrak eman ziren jasotako babesagatik. Bukatzeko, Mikelen argazkiekin osatutako bideoa erakutsi zuten aretoan. Zerbait jateko aukera ere egon zen.



Mikel Illaramendiren omenaldia, Ibarraundin. | JOSETXO ARANTZABAL

Beatriz Zabalondo elgetarra aukeratu dute Berria Taldeko administrazio kontseiluko presidente izateko

L.K. | ELGETA

Beatriz Zabalondo izango da Berria Taldeko lehendakaria. Zapatu eguerdian aukeratu zuten kargurako akziodunek, Andoainen egin zuten batzarrean. Kontseilari ordezkari gisa Iban Arregi azpeitiarra aukeratu zuten, *Berria*-k emandako informazioaren arabera.

Itzultzailea eta irakaslea

Zabalondok Joxan Lizarribar ordezkaturiko du lehendakari karguan –apirilean hil zen–, eta Arregik, Joanmari Larrarte. *Berria*-k hamar urte bete-



Beatriz Zabalondo. | GOIENA

tzearrekin batera kargua uzteko asmoa aurrez jakinarazia zuten Lizarribarrek eta Larrartek.

Beatriz Zabalondo (Elgeta, 1961) Ingeniaritza Teknikoa eta Kazetaritza ikasia da, eta itzulpen gintzan eta hizkuntzari lotutako jardunetan aritu da batez ere: ETBn gidioak itzultzen, egokitzen eta zuzentzen, eta telesail batzuen hizkuntz arduradun; *Euskaldunon Egunkaria*-n eta *Berria*-n euskara taldeko kide izana da, eta bi egunkari horien estilo liburuak idazten parte hartu zuen. EIZIE Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteko lehendakari izana da, eta irakasle ere jardun du, Mondragon Unibertsitatean eta EHU Euskal Herriko Unibertsitatean. 2011z geroztik da Berria Taldeko administrazio kontseiluko kide.

Diruaren gaineko mahai-ingurua egingo dute Basotxoko erretiratuek bihar, martitzena

El dinero delako mahai-ingurua koordinatuko du Pedro Etxebarriak Aretxabaletako Basotxo erretiratuen egoitzan bihar, martitzena, 15:30ean. Helburua da parte-hartzaile bakoitzak berba egin ahal izatea, bere ideiak azalduz eta besteekin kontrastatuz, giro lasaian. Honako puntuak ukituko dituzte: Zer da dirua? Zeinek egiten du? Zelan lortzen da? Zertarako da eta zertarako izan beharko litzateke? Helburu bat izan daiteke? Zertarako aurreratzen da dirua? Zein da bankuen lana? Eta gobernuena?

Kaleratzeak Stop!-ek maileguen klausulei buruzko hitzaldia egingo du

Plataformako abokatua den Jose Mari Erauskin HMEI indizearen inguruan mintzatuko da

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Albistegi nahiz egunkari askotan egunero kaleratzeei buruzko zenbait albiste ikusi eta irakur daitezke. Kaleratze horiek gure ingurutik kanpo gertatzen zirela zirudien arren, azken hilabeteetan, Kaleratzeak Stop! plataformak hori gezurtatu du. Duela hilabete Arrasaten egindako kale agerraldian argi utzi zuten moduan, bailaran 14 kasurekin lanean dabilta.

Debagoieneko plataforma sortu zenetik, sinadura bilketa eta beste ekimen batzuk ere egin dituzte. Azken hilabete hauetan kaleratzeen kontrako plataforma indarra eta presentzia handitzen joan da eta "kaleratze baten aurretik banketxeek inposatzen dituzten gehiegizko klausulei" buruzko hitzaldia antolatu dute. Kaleratzeak Stop! plataformako abokatu Jose Mari Erauskin izango da hizlaria. Salva Gonzalez plataformako kideak adierazi duenez, "kaleratzea gertatu aurretik jendeari informazioa eman nahi diogu".

Hitzaldia irekia izango da eta eguaztenean 18:30etik aurrera Etxaluze eraikineko Axeri gelara hurbiltzen direnek hipoteka-maileguei buruzko informazioa baliozgarria jasoko dute.

Maileguen HMEI indizea

Hipoteka Maileguen Erreferentzi Indizeak bankuek hipoteka-maileguengatik kobratzen dituzten interesak ezartzeko balio du. Ekainaren 5eko hitzaldiaren helburua erabiltzaileek ordaintzen duten interesak nondik iritenden diren azaltzea izango da.



Kaleratzeak Stop! plataformak egindako kale agerraldi bat. | IMANOL GALLEGO

Kaleratzeak Stop! plataformatik behin eta berriro azpimarratu duten moduan, "ez da inoiz ulertzen ez den paperik sinatu behar" eta edozein bankurekin mailegu bat kontratatu aurretik aholkua eskatzea beharrezkotzat jotzen dute.

Hitzaldi honekin plataformak bere helburu bikoitza indartu nahi du. Kaleratzeen kontra era aktibo batean lan egiteaz gain, jendeak bere maileguei buruzko ahalik eta informazio gehien izatea nahi dute.

Bilera informatiboak Arrasaten

Hipotekarekin edozein arazo suertatu ezker Debagoieneko Kaleratzeak Stop! plataformak 688 823 154 telefono zenbakia herritarren eskura jarri du. Salva Gonzalez kideak adierazten duen moduan, "lotsak, arazoa konpondu baino gehiago, denbora luzatzea lortzen du eta denborak aurrera egiten duen heinean gauzak dezente zailtzen dira".

Arazo hori ekiditeko, aipatutako telefonoaz gain, plataformak eguaztenero arratsaldeko 18:30etik aurrera Arrasate Pasealekuko 3. zenbakian bilera egiten du. Plataformatik adierazi duten moduan bilerek izaera irekia dute eta anonimotasuna bermatua dago.

SALVADOR GONZALEZ
KALERATZEAK STOP!
PLATAFORMAKO KIDEA

"Pertsonak baino gehiago, legeak bankuak babesten ditu"

Gure inguruan egonda kaleratzeren bat?

Hasi gara inguruko kasuak jasotzen. Zorionez ez gara epaitegi fasera iritsi eta horrek prozesua errazten du. Dena den, kaleratze kasuak egon diren kasuetan alokairuagatik izan dira.

Kaleratzea geratzen saiatzeaz gain, informazio baliozgarria ere ematen duzue.

Deialdi ugari egin ditugu. Heziketarik edo, jendea lotsatu egiten da, horregatik bilera informatiboan bitartez, prozesuaren nondik norakoak ezagutzen ditu. Hipoteka bat sinatzerako orduan klausula asko dago eta jendeak ez ditu ongi ulertzen.

Legea gure kontra dago?

Legeak herritarrak babestu beharrean bankuen alde egiten du.

Zein motako jendea hurbildu zaizue?

Etorkinekin hasi ginen, baina krisiak aurrera egin duen heinean hemengo jendea ere arazoak izaten hasi da.



Epaimahaiaren saria eskuratu zuen taldea. | TXOMIN MADINA

BH-Klip lehiaketan "ideien originaltasuna" saritu zen

Aurten, 'kontsumoaren katea' gaiarekin zerikusia duten bailarako ikasleek 29 aurkeztu zituzten

I.G. | ARRASATE

Egubakoitza ezohiko eguna izan zen Arrasateko azokan. Arizmendiren BH-Klip lehiaketaren sari banaketak ukitu berezia eman zion azokari. Lehiaketaren bosgarren edizioa izan da aurtengoa; eta Kontsumoaren katea, aukeratutako gaia.

Bi talde sarituak

Epaimahaiaren Saria *Katean loturik* lanarentzat izan zen (Deiane Marcos, Maialen Gallastegi eta Sara Agiriano); eta ikusleena, *Kontsumoaren katea* lanarentzat (Alba Saez, Nagore Gomez eta Mireia Cabrera). Azken hau BH-Klip blogean jasotako botoen bitartez aukeratu zuten. Saritu bakoitzak, gainera, bideo kamera digital bat jaso zuen.

Antolatzaileen ustez, aurten, irudi zein argazki aldetik, "ideia

oparo eta originalez beteriko lanak" aurkeztu zituzten.

Gazteek ia jatorrizkoa duten lengoia baten gogoeta egin eta sormena sustatzeko tresna ezin

hobea bilakatu da BH-Klip. Proposamenak izandako harrera eta maila onarekin "sorpresa" hartu zutela dio Arizmendi Ikastolako Edurne Baltzategik.

Goienaren RENT
Ibilgailuen alokairua

**AUTO ETA FURGONETEN
ALOKAIRUA ONATIN**

WWW.GOIENARENT.COM

- ✓ Lantokira nahiz etxeko atarira eramango dizugu ibilgailua DOAN
- ✓ Ibilgailuen flota zabala preziorik onenetan **20€-tik eguneko**
- ✓ Enpresa nahiz partikularrentzako zerbitzua
- ✓ Aireportuko zerbitzua

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK
943 71 66 52 / 619 44 71 75
goienarent@goienarent.com

Aurten beste 500 lanpostu sortu nahi dituzte Erkideko kooperatibek

Iaz, 25 lanpostu eta 59 federatu gehiagorekin bukatu zuten urtea

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Erkide elkarteak kooperatibek 25 lanpostu sortu zituzten iaz, eta beste 500 sortzea da aurtengo duten helburua. Denetara, 44.239 pertsonari lana ematen zioten

Erkideko kooperatibek 2012 bukatu. Krisia bizi dugun arren, Erkidek 2011n baino kooperatiba eta lanpostu gehiagorekin bukatu zuten urtea, eta hori azpimarratu zuten arduradunek.

2013rako helburua da beste 500 lanpostu sortzea. "Badakigu ez dela erraza izango, baina gure bokazioa hori lortzea da, kooperatiba berriak sortuz (120 aurreikusten dira) eta oraingoek dituz-

ten lanpostuei eutsiz edo oso gutxi murriztuz". Horretarako, Erkideko arduradunen iritziz, "kooperatiba askok soldata aldeko sakrifizioak egin beharko dituzte, eta kooperatiben arteko elkartasun eta laguntasun printzipioak jarraitu beharko ditugu oraindik ere". Azpimarratu zuten, urteko lehenengo lauhilekoan 42 kooperatiba berri sustatu dira.

Iaz, lanpostu gehien lan elkartuko kooperatibek sortu zuten: 119. Hezkuntza kooperatibek 105 sortu zituzten. Kreditu kooperatibek, bestalde, galdu egin zituzten lanpostuak: 199, hain zuzen ere.

Erkideko bazkide diren lan elkartuko 763 kooperatibek 7.403.160.000 euro fakturatu zituzten, 2011n baino % 2,4 gutxiago. Nazioartean 4.738.022.000 euroko salmentak egin zituzten, 2011n baino % 0,7 gehiago. Salmenta horiek fakturazio osoaren % 64 dira.

2012ko ekitaldiaren balorazio ona egin zuten Erkidek prentsaurrekoan.

Iaz, 844 kooperatiba

2012. urtea 844 kooperatibarekin bukatu zuen Erkidek. Lan elkartuko 59 kooperatiba eta hezkuntzako kooperatiba bat egin ziren Erkideko bazkide iaz. Kreditu kooperatiba bazkide bat galdu zuen elkartek. Beraz, 2011n baino 59 bazkide gehiagorekin bukatu zuten urtea elkartek.

Espainiako edozein erkidegotan baino lan elkartuko kooperatiba gehiago sortu ziren iaz Euskadin, bigarren urtez jarraian. Andaluzian 140 sortu ziren, eta Katalunian, 115, Erkidek eman zituen datuen arabera.

MerkaErkide sendotu

Lortutako hainbat gauza gogoratu zituzten Agustin Mendiola zuzendariak eta Juan Mari Concha presidentek: besteak beste, kooperatibetako errelebo kontratuen inguruan zeuden arazoak konpondu izana; kostuak kalkulatzeko eta kontrolatzeko programa bat egin izana, 13 kooperatibak parte hartuta; osoko aginte taldeak sortzeko beste programa bat egin izana, 12 kooperatibarekin; edo MerkaErkide plataforma komertziala sortu izana.

Aurtengo helburuen artean, 500 lanpostu sortzeaz gain, beste 60 bazkide egin nahi ditu Erkidek, eta horretarako, kooperatibak sortzeko kanpaina bat egingo du; horrez gain, MerkaErkide plataforma kontsolidatu nahi du; eta bere kooperatibendako finantza-baldintza hobekitzeko, Oinarriekin batera lan egin.



Erkideko presidentea, Juan Mari Concha, eta zuzendaria, Agustin Mendiola, prentsaurrekoan. | ERKIDE

Eraikuntzako Renove planerako, 81,5 milioi

Etxebizitzak, eraikinak eta herri zatiak txukundu eta egokitu ahal izango dira

L.K. | ARRASATE

Hurrengo hiru urteetan, EAEko 52.000 etxebizitza birgaitu ahal izango dira, Eusko Jaurlaritzaren Renove Plan berriak banatuko dituen 81,5 milioi euroko dirulaguntzekin. Iñigo Urkullu lehendakariak eta Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburu Juan Maria Aburtok joan den eguaztenean aurkeztu zuten plan hori. Beste helburu nagusia lanpostuak sortzea da: 13.765, hain zuzen, 2013 eta 2016 artean; horietatik 3.146, aurten bertan. Hirugarren helburu bat % 20 energia gutxiago kontsumitzea da.

Eraikuntza sektoreak lanpostuen % 30 galdu ditu 2008a ezker. Horregatik, Urkulluren iritziz, "beharrezkoa" da etxebizitza arloan jardutea; kontuan izanda, gainera, EAEko bizileku-erakinen % 53k 50 urte baino gehiago dutela eta guztietatik % 15 ez direla oztopo arkitektoniko bakoak.

Eusko Jaurlaritzak 941 milioi euro inguruko baliabide ekonomikoaren bolumena mugitu

nahi du (laguntza zuzenak gehi eragindako inbertsioa).

Arrasate eta Bergarako

Renove plan horren barruan, etxebizitza indibidualak edo eraikin osoak goitik behera birgaitu ahal izango dira; espazio eta ekipamendu publikoetan irisgarritasun obrak egin; eta hiriak edo auzoak birgaitu.

Partikularrek, enpresek, jabeen elkarrekin, udalek, tokiko erakundeek... eska dezakete dirulaguntza. Partikularren kasuan, ekintza hauetarako eska dezakete: eraikinak eta etxebizitzaren edo merkataritza-lokalen bizigarritasun-baldintzak egokitzea; irisgarritasuna hobetzea; energia aurrezteko, instalazio edo baldintza termikoetan lanak egitea; edo eraikuntzaren edo etxebizitzaren akabera orokorra eraikuntza onaren irizpideak betetzeko. Hiriak zaharberritzeko dirulaguntzen atalean, 2013-2016 aldierako, Makatzenarako eta Osintzurako partidak egongo dira.

Abiazio industriarako makina berritzaile batek Fagorren CNCa du

L.K. | ARRASATE


Abiazio-industriarako lan askotariko (multitarea) makina sortu du Fagor Automatiok, Italiako GP Meccanica etxearekin batera. Garapenaren, berrikuntzaren eta ikerketaren arloko "emaitza ona" da, Automatioren esanetan.

Makina hori 3000 Premium Plus Five da. Italiako GP Meccanica (Giordano Paventa Meccanica) enpresa italiarrak egin du, eta Fagorren CNC8065ekin eta Fagor markako enkoder optikoekin eta erreguladoreekin ekipatu du. GP Meccanica makina-erremintako makinak aurretik egiten jarraitzen du eta Paventa markarekin hornitzen

ditu. Makina horrek Paventak azken urteetan jarraitu duen joera jarraitzen du abiazio eta energia industrietan zentratuta, aleazio, titanio eta altzairu herdoilgaitza mekanizatzeke.

Fagorrek Italian garatua

GPren bezero askok Italiako CNCetara ohituta daude, eta modu erraztean eta azkarrean programatzeko eta dauzkaten programak berriz erabiltzeko aukera ematen dien sistema nahi dute. Hori orain egin dezakete Fagor Automatiok garatu duen CNC 8065ekin. Mondragon Korporazioko kooperatibak Ivrean, Italian daukan I+G lantaldeak garatu du sistema hori.



GP Meccanica etxearen 3000 Premium Plus Five makina. | FAGOR AUTOMATION

Gipuzkoaren BPG, ingurukoena baino beherago

L.K. | ARRASATE

Gipuzkoak krisian jarraitzen du, Adegiren iritziz; gainera, "bizilagunak baino sakonago" dago krisian, patronalak eguaztenean esan zuenez, testuinguru ekonomikoaren gaineko inkestaren ondorioak zabalatzeko prentsaurrekoan. Urtririletik martxora arteko ekonomia gainera pertzepzioak neurtzen ditu inkesta horrek.

Gipuzkoaren Barne Produktu Gordina Euskadikoa eta Espainiakoa baino gehiago jaitsi da; bestetik, enpresa gehiago suntsitu dira eta enplegua ere okertzen doa, Adegiren inkestaren arabera.

Salmentak %4,3 txikitu dira Gipuzkoako enpresendako, esportazioak txikitu direlako: urtaririletik martxora arte, iazko epe berean baino % 12 gutxiago esportatu zuten Gipuzkoako enpresek. Batez beste, % 5 eskaera gutxiago izan dituzte ere. Enpresen % 70endako, eskaera-zorroa "ahula" da, eta % 63rendako, merkatua "atzeraldian" dago.

Humberto Persano | Mediku espezialista

"Botikak oso onak izan daitezke sintomak tratatzeko, baina ez dute bizitza konpontzen"

- ▶ Mugako Pertsonalitate-Trastornoaren gaineko ikastaroa eman zuen Arrasaten
- ▶ Bere esanetan, profesionalak gero eta entrenatuagoak daude ondo diagnostikatzeko

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Mugako Pertsonalitate-Trastornoaren gaineko bi eguneko ikastaroa eman zuen Humberto Persano medikuak Arrasateko San Juan de Dios ospitale psikiatrikoan. Buenos Airesko Jose T Borda ospitalean, Mugako Nahasmendu eta Nahasmendu Bipolarrrak Ikertzeko eta Prebenitzeko Zerbitzuko burua da, eta Buenos Airesko Unibertsitateko Buruko Osasuneko katedraduna.

Badago nahiko zabalduta Mugako Pertsonalitate-Trastornoaren gaineko informazioa?

Bai, orain dela urte batzuetatik hona dezente hedatu da gai hori gizartean.

Zelakoak dira nahaste edo trastorno hori duten gaixoak?

Izaerako, pertsonalitateko, nortasuneko nahastea da, eta modu konplexuan agertzen da, mota askotan adierazten da. Ezaugarri nabarmenena hau da: desegonkortasun afektiboa, labilitate emozionala [negarra, lekuz kanpoko barrea edo, orokorrean, neurritz gaineko adierazpen afektiboak] eta sintoma inpultsiboak: erasoak, norbere burua erasotzea edo min egitea, suizidatzeko ahalginak... Bizitza kaotiko eta desordenatua izan dezakete eta hori besteenganako harremanetan ikusten da. Bikoteko edo taldeko harremanetan liskar asko izaten dituzte. Beharbada sintoma horiek ez dira puntualak, baizik eta bizi osoan zehar.

Samur diagnostikatzeko da?

Tresna aproposak izanda, bai, nahiko samur. Hainbat espezialista kontsultatu izan dituzten pertsonak dira, hainbat sintomatikatik, izan ere, trastorno hori sintoma askokoa izaten da: depresioa dela, antsietatea dela... Normalean, bizitzan zehar askotariko sintomak izaten dituzte. Datu hori oso garrantzitsua da pertsonalitate-trastorno bat dagoela konturatzeko. Diagnostikorako tresna nagusietako bat elkarrizketa da.

Norbera konturatzen da arazo bat duela?

Ez. Normalean, sintomak euren pertsonalitatearen zati bat dira eta sintomekin bizi dira. Bestetik harreman patologikoak, sintoma horiez betetakoak izaten dituzte, eta ingurukoek aholkatzen diote tratamendua.

Zenbat kasu egoten dira?

Kulturaren arabera. Ez dakizkit hemengo datuak; baina munduko biztanleen % 2 inguru diren datua dago, eta datu handia da. Segun eta non neurtu dugun,



Humberto Persano doktorea, San Juan de Dios ospitalean. | LEIRE KORTABARRIA

proporzioa handiagoa edo txikiagoa izango da: buruko osasuneko anbulatorioetara joaten diren % 10ek izaten dute Mugako Nortasunaren Trastorno; ospitalizazio-unitateetan, % 20 edo % 30 izan daitezke... Ospitalizazio hori hainbat konturengatik izaten da: suizidatzeko ahalgina, psikosi-krisia, depresioa... Izan ere, trastorno mota horiek bestelako trastorno edo gaixotasun batzuekin batera gertatzen dira: trastorno afektiboak, antsietate-trastornoak, elikadura-jokareen nahasteak –adibidez, bulimia oso ohikoa izaten da paziente horien artean...

Bestalde, adikzioak edo mendekotasunak izaten dituzte ere: sustantziak, alkohola, jokoa, abidura eta arriskua, dirua modu konpultsiboan gastatzea...

Azkenik, bipolaritate-nahasteekin batera ere agertu ohi dira.

Hori dena kontuan hartuta, nondik oratu trastorno horri, nola tratatu?

Diziplina askotatik batera tratatzen da, normalean: premiazko egoeran, botikak, eta horiek psikoterapiarekin batera izaten da trastorno hori tratatzeko modu onena.

Bestalde, mugako pertsonalitate-nahastea duten pazienteek,

bizitzan zehar une batzuetan, ospitaleratzea behar izaten dute, eta orduan buruko osasun talde osoak parte hartu behar izaten du. Ospitalean ez dira luze egoten; normalean, gertaera larriak dituztenean izaten da. Luzeago egoten dira bere buruari min egin diotenean edo bizitza arriskuan dutenean.

Ze nortasun izaten dute, zelakoak da euren pertsonalitatea?

Jokatze modu zurrinak dituzte, eta hainbat alderditan igartzen zaie: afektuetan, desegonkorak dira; harremanetan oso sentiberak dira, bakardadea edo bakarrik utzi dituztela oso erraz sentitzen dute, bakarrik uzte hori benetako izan edo irudimenekoa izan;

eta modu kronikoan sentitzen dira hutsik edo aspertuta. Hori, sentimenduei dagokienez; inpultsuen arloan, haiek kontrolatzeko zailtasunak dituzte; besteenganako harremanetan, biolentzia fisikoa edo hitzeko biolentzia egoten da; inpultsiboak dira ere sustantziak hartzeko moduan, jateko moduan edo arrisku-egoerak bilatzeko orduan; eta azkenik, pentsatzeko modua ez dute oso zehatza, esaten dutena ere ez. Erreakzio paranoikoak izaten dituzte eta besteenganako konfiantza falta izaten dute. Eta azkenik, bikote-harreman luzeak badituzte, denbora osoan krisian daude; eta oso gutxi irauten duten harremanetarako joera dute ere.

"Populazioaren %2k dauka Mugako Pertsonalitatearen Trastornoa"

"Bizitza kaotikoa, inpultsiboa eta adikzioak izaten dituzte pazienteek"

"Nahaste bipolarrak gero eta hobeto diagnostikatzen dira orain"

"Afektuak medikalizatzeko arriskua dago gaurko egunean"

Lanean, gauza bera: ibilbide profesional bat hasten dute, utzi egiten dute, beste bat hasten dute... edo lanpostu baten hasten dira, istiluak izaten dituzte, utzi egiten dute... Liskar egoerak edo apurketa-egoerak egon ohi dira.

Profesionalak gero eta hobeto prestatuta egon beharko dira...

Hain zuzen, San Juan de Diosko ikastaro horren helburua izan da kontzeptu batzuetan, batez ere kontzeptu teorikoetan trebatzea profesionalak. Paziente horiei askotariko botikak ematen dizkiete, eta euren terapiak porrot egiten du kasu askotan. Beraz, profesionalen entrenamendua garrantzitsua da.

Bestalde, Buenos Airesen diharduzun Jose T Borda ospitalean, nahaste bipolarrean ere espezialista zara, ezta?

Bai. Afektuen nahaste edo trastorno bat da. Une jakin baten diagnostikoa egitea zaila da; nortasun-nahasteekin gertatzen den bezala, bizi osoa aztertu behar izaten da. Animu-aldaketak antzematen zaizkie, hau da, bizitasun handiko egoera eta depresioa. Nahaste bipolarrean orain dela gutxi antzeman dira, interes handiagoa ipini da horiengan, eta hobeto diagnostikatzen dira.

Badirudi azkenaldian nahiko modan dagoela nahaste bipolarra komunikabideetan. Hori fribolitatea dela uste duzu?

Egia da kontzeptua larregi erabiltzen dela. Baina, nire ustez, gai hori oso azaletik lantzea izan daiteke fribolitatea, ez gaia bera lantzea.

Entzuten da gero eta botika psikiatriko gehiago hartzen dituela jendeak, eguneroko bizitzari aurre egiteko ere. Zer diozu?

Afektuak medikalizatzeko arriskua dago. Hau da: denok gaude triste lehenago edo beranduago, eta tristura hori gaixotasun bihurtzen denean, aukerak daude. Gaurko eguneko munduaren ezaugarri bat da emateko errazak eta teknikoak diren tratamendu-moduak sortzea. Horrek kalte egiten dio mediku-asistentziaren kalitateari eta, beharbada, botika gehiago ematea dakar; tristura edo larregiko alaitasuna (bipolaritatean) kentzeko nahi baino botika gehiago emateko arriskuan jausi gaitezke.

Psikofarmakologia oso ona da sintoma klinikoak konpontzeko, baina ez du bizitza konpontzen, ezta harremanetan izan daitezkeen arazoak ere; hori psikoterapiarekin landu beharko litzateke.

ZABALIK

JULEN ARRIOLABENGOA
http://goiena.net/iritzia/



Bejondeizuela!

Gaur hamabost bat egun dela, hitzaldia eman nuen CEPA Arrasate HHIn, hau da, Arrasateko Helduentzako Eskolan. Hango euskarako klaseetan irakurriak eta aztertuak zituzten nire bi liburu, *Julia dinotsut* eta *Jaun Zuriaren askazia*, eta horren karietara gonbidatu ninduten eurekin ordu eta erdiko berbaldia izatera. Gutxitan egon naiz egun horretan bezain gustura hitzaldi bat ematen. Sekulako harrera egin zidaten ikasleek zein irakasleek eta harrituta utzi ninduten jarritako arretarekin, erakutsitako interesarekin eta egindako galdera eta iruzkinekin.

Berrogei bat izango ziren, adin guztietakoak, neska, mutil, gizon eta emakume, adinean aurrera egin ahala, gehiago emakumezkoak. Jo eta ke dihardute eskolak ematen, euskarakoak, ingelesezkoak, matematikakoak... Batzuk egongo dira gaztetan ez zutelako aukerarik izan, beste batzuk ez zutelako bere sasoian aprobeztatu, baten bat egongo da bere egoera pertsonalak behartuta, edo gogoak eman diolako. Denak euren buruak jakintzaz janzen.

Hunkitu egin ninduten. Jakin-minez gainezka ikusi nituen, iritzia eta kritika azalertzeko pronto. Isilik zeudenak, batzuk aspertuta ere bai agian, adi, errespetu handiz besteen jarduna jarraituz, eserlekuetan zirkinik egin gabe. Ez da sarri izaten horrelako entzuleriarik.

Solasaldian zehar agerian utzi zuten euren literatur zale-tasuna, baita historiaren uretan murgiltzeko gogoia, historiaren gezurrak azalertzeko, mitoei jolastuz eta euren herriaren ezagutzan sakonduz.

Ez dakit nigandik gauza handirik ikasi duten, baina nik, eurekin egonda, literaturak duen garrantzia berretsi ahal izan dut. Literatura izan liteke egunerokotasunetik ihes egiteko bidea, gozamenerako atea. Baina, horrez gain, jakintza iturri da, gure zentzu kritikoa elikatzeke bizigarria. Nahitaezkoa.

"Gure zentzu kritikoa elikatzeke bizigarria da literatura"

USTEAK USTE

JULEN IRIONDO | jiriondo@goiena.com

Perspektiba eduki behar da

Ligako azken jardunaldian zer gertatu den jakin barik idazten dut –egubakoitzean– leihotxo honetan. Itxaron nezakeen domekara, behin gertatua jakinda idazteko, baina, egia esan, ondo datorrit aurrez idaztea, adierazi nahi dudana adierazteko. Batek baino gehiagok azken jardunaldian gertatu den horrek baldintzatuta jarriko dio nota Realaren denboraldiari; ulertzekoa, hain lorpen handia horren eskura eduki denean. Perspektiba izan behar genuke, ordea, eta gertatua gertatuta, oso harro egon taldearekin; ze ondo dago gogoratzea duela hamar urte sailkatu zela Txapeladun Ligarako, baina ez ahaztu orain hiruzpalau Bigarren Mailan zegoela taldea.

KALE INKESTA

Zelan ikusten duzu, gaur egun, indarkeria matxista?



BELEN ERRASTI
ARRASATE

Bada, arazo handia da, bai. Eta ez dakit zein soluzio izango duen honek, baina inoiz ez da ondo irteten. Orain arte, behintzat.



EDURNE ARREGI
ARRASATE

Gero eta okerrago doala. Begira aste honetan bertan zein kasu izan diren. Eta batzuk aurreikusitakoak jada.



MAITANE LASA
ARRASATE

Gaur egun egia da arazoa nahiko gogorra dela. Emakumeek laguntza gehiago behar dute, egunero entzuten baitira jipoien kasuak.



ARANTZAZU URIBE
ARRASATE

Oso txarto ikusten dut. Gizartea aurrera doa, baina arazo hau hor mantentzen da. Gaur egun, oraindik ere, kasu asko izaten dira.

HANDIK ETA HEMENDIK

Arkitektura eredu berrien bila

Iñaki Etxeberria

http://berria.info/blogak/aterpetik/

Aurreko mende hasierako arkitektura arrazionala zen. Kolore zuri garbikoa, abstraktua.

Edozein espazio, osagai edota material era eszeptikoenean baloratzen zen, hainbat garai eta lekutan nola erabiltzen zen ikusi eta horren arabera erabiltzen zen.

Garaiko arkitekturaren erronketako bat gerra arteko eta ondorengo garaietan noraezean zebilen gizarteari erantzuna ematea zen.

Gainera, arkitektura ere eklektizismo eta neo-estiloetatik bueltan zetorren, hau ere noraezean zebilen.

Ordura arteko altzairuari hormigoia batu zitzaion eta material industrializatuek orain arte izan duten indarra handia izan da.

Gurean ere porlana eta altzairua sortzeko fabrikak ugari izan ditugu eta industriaren zati bat

etxegintzan kokatu da.

Orain, hasi dugun mende honetan ditugun erronkak beste batzuk dira.

Lehenengoa egoera ekonomikoa eta honetatik eratorritako gutzia.

Bigarrena ekologia edo energiaren mendekotasuna.

Aurreko mende hasiera beraz, eredu garbia da garai kritikoa bat baino gehiagotan arkitekturak asmatu egin zuelako erantzuna ematen.

Erantzun horiek aurreko tradizioa era guztiz objektiboan ikertzen etorri ziren.

Mendeetan erabilitako teknikak, espazioak, etab. aztertzeak beraz.

Gurean dugun erreferentzia argia Jorge Oteiza da.

"Atzeraka idazten dut nik".

Oteizaren lana Donostian.

Industriak behar duen eredu uniformeak derrigortzen duen arkitekturarekin hemen edo Ameriketako New Yorken zein Indiako azken hirian eredu berdina erabiltzea dakar.

Baina horrek ez du esan nahi hortara behartu behar dugunik gure inguruko teknikak ikertu gabe.

Gogotara ekarri nahi dut orain ehun urtera arteko arkitektura ere interesgarria izan daitekeela.

Mendeetan ondutako den heinean, energiaren ikuspegitik bereziki soluzioak aurkitzeko aukera bat dela: ez folklorikoki fatxadaren irudi zahartu hori kopiatzen hasteko; baizik eta luze ikertu ondorengo gogoetekin emaitzak praktikan jartzeko.

Le Corbusierren lana datorrit burura, Mies van der Roherena, are gehiago Oteizarena.

Hauekin alderatuta gainera, abantaila dugu.

Hauek hasitako bidearen ildo jarraitzea besterik ez baitugu.

Eredua parean dago.

Miesen Fansworth etxea: <http://terrario.io/wp-content/uploads/2013/05/mies1.jpg>

Le Corbusierren Villa Saboya: <http://terrario.io/wp-content/uploads/2013/05/corbu.jpg>

Le Corbusierren Ronchamp: <http://www.phinharper.com/wp-content/uploads/2011/05/fra066.jpg>

Le Corbusierren proportzioen ikerketa: http://www.arkinetia.com/breves/le-corbusier-modulor_a449

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiboa Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA

Lehendakaria Estepan Plazaola

Zuzendari nagusia Iban Arantxabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailietako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna Leire Kortabarria
Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Zierza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Maria Leturia
Administrazioa Argutxane Gaintzarain, Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
ARRASATE 20500:
Udalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Legu Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale
Difusioa: 4.383 ale

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.



Euzko Jaurlaritza
diruz lagundutako
aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Bazkideentzat abantaila eskusiboak



Eraman ezazu beti txartela aldean!



Hauek dira irabazleak!

Hauek dira MAIATZEKO SARIDUNAK izan diren GOIENA KLUBeko bazkideen izenak:
ZORIONAK, GUZTIOI!

NESCAFE DOLCE GUSTO KAFE MAKINA**

- Cesar Azkarate Beitia (Aramaio)

BASERRISAREAKO OTARRAK**

- Amaia Bikuña Martinez de Zuazo (Oñati)
- Mikel Eguren Laskurain (Bergara)
- Marije Balanzategi Garai (Arrasate)
- Kontxi Zubia Telleria (Bergara)

MIHILUZE JOKOA**

- Gurutze Arizabaleta Okina (Arrasate)
- Loreto Anduaga (Aretxabaleta)

BERTIKAL JOKOA**

- Mikel Sarasola Astigarraga (Arrasate)
- Eluska Irazu Hernandez (Eskoriatza)
- Iñaki Martinez Busteros (Arrasate)
- Jasone Barandiaran Osuna (Eskoriatza)
- Izar Ijurra Goñi (Arrasate)

ARRIKRUTZ KOBETARAKO bi sarrerak*

- Xabier Zabala Urriategi (Bergara)
- Ainhoa Urrutia Abarrategi (Arrasate)
- Francisco Zubia Azkoaga (Arrasate)

SARIAK JASOTZEKO

* **Arrikruzeko sarrerak.** Zuetako bakoitzak, GOIENA KLUBeko txartela erakutsita, BINA sarrera izango dituzue ARRIKRUTZ-eko txarteldegian. Sarrerak 3 hilabeteko epe muga izango dute.

ARRIKRUTZ KOBAK. Araotz Auzoa, OÑATI. 943 08 20 00
Orduetgia: Asteartetik Igandera 10:00 – 17:00

** **Beste sariak.** Saria jasotzeko pasa zaitzete mesedez, GOIENA Komunikazio Taldeak, Aretxabaletan duen bulegotik. Saria jasotzeko, BAZKIDEAREN TXARTELA erakutsi edota BAZKIDE ZENBAKIA jakitera eman beharko da.

GOIENA. Basabe poligonoa E-0-5 (Araba Ibilbidea) Aretxabaleta. 943 25 05 05
Orduetgia: Astelehenetik ostegunera: 09:00 – 18:00.
Ostiraletan: 08:00 – 14:00.

DESKONTUAK: www.goienakluba.com



Beste abantaila batzuk:

- Astelehenetan eta ostiraletan *Goiena* papera buzoian.
- Deskontuak iragarki sailkatuetan eta eskeletan.



goienakluba
Abantailaz betetako klubak!

Urteko kuota: 50 €.
943 25 05 05
kluba@goiena.com
[goienakluba.com](http://www.goienakluba.com)

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Jokin Bengoa | Herri Batasuneko Ingurumen eta Nekazari Auzoguneko zinegotzia Aretxabaletan (1991-1995)

- ▶ Oso harro dago ingurugimena zaintzeko gizarteak eman dituen aurrerapauso handiez
- ▶ Egindako ikasketei esker, ingurumena eta nekazaritza gertuko gaiak ditu
- ▶ Herritik kanpo lan egin arren, nabari da Aretxabaleta eta inguruak gustuko dituela

"Mankomunitateari papera birziklatzen hasiko ginela esan, eta tira-bira ugari izan genituen"

IMANOL GALLEGO | ARETXABALETA

Jokin Bengoarekin eroso sentitzen den toki baten egin dugu hitzordua. Aretxabaletako udaletxeak lorategi ikusgarria dauka eta Bengoa gustura sentitzen da landare eta zuhaitz artean, ingeniari agronomoa da-eta. Orain politika kontuetatik aldentu eta Lorelan enpresan buru-belarri dabilen arren, zinegotzi garaiko urteei buruzko oso orotzapen onak ditu.

Nola iritsi zinen politikara?

Bueno, herriaren alde lan egiteko sartu nintzen udaletxean. Ingurumenak beti arduratu nau eta garai hartan egiteko asko zegoen. Nekazari arloan ere hutsune handiak zeuden, eta, nire ikasketak zeintzuk ziren ikusi ostean, aukera aproposa iruditu zitzaidan. Lantaldea, gainera, herriko jendeak osatzen zuen, eta, ongi ezagutzen nituen, animatu egin nintzen.

Zinegotzi moduan egindako lana eta zure ogibidea, gainera, elkartuta zeuden, ezta?

Hala da, lorezaintza enpresa sortua neukan eta beste enpresa batekin nekazari arloko lanak egiten nituen. Niretzat ez zen esparru arrotza izan.

Hortaz, gaia ongi ezagutzen zenuenez, lan egitea erraza izan zen?

Gustura egin nuen lan, bai. Hala ere, oso esparru handia izateaz gain, arlo gehienetan hutsetik hasi behar izan genuen. Europatik lortu genuen dirulaguntza bati esker, baserrietako bideak atondu genituen. Aretxabaletan dauden baserri mordoak kontuan izanda, deigarria zen ustiapen profesionala zein baxua zen.

Hortaz, baserria izan bai, baina ez dugu hura ustiatzen?



Bengoa, Aretxabaletako udaletxeko lorategian. | IMANOL GALLEGO

Baserria ustiatzen dugu, baina landutako gehiena familian gertzen da. Ustiaketa kontuez ari naizenean, maila profesionalan ari naiz, hemengo baserri gehie-

nak bakarkakoak dira. Ustiapen sektorean egindako lan bakarretako moduan Gellaoko Etxezuriko ardiak pabiloia datorkit. Orain, baserriari eta bere produktuei beste balio bat ematen zaie, jendeak baserriko produktuak eta produktu ekologikoak asko baloratzen ditu.

Gertuko eta sasoiko produktuek aldaketa handia izan dute.

Zorionez, hala izan da. Orain, jendeak asko baloratzen ditu, itxurari kasurik egin gabe; jendeak ekoizpenari erreparatzen dio.

Garai hartan ingurumena ez zen lehen mailako gaia izango, baina orain...

Orain, egunero entzuten ditugu ingurumenari buruzko albisteak, baina duela 20 urte ez zen hori

gertatzen. Orduan, birziklatzeko edukiontzia jartzen hasi ginen gu. Paperarena izan zen lehena eta Mankomunitatearekin tira-bira ugari izan genituen. Euren

"Orain, egunero entzuten ditugu ingurumenari buruzko albisteak"

"Deba ibaia estolda moduan erabiltzetik hura zaintzera pasatu gara"

ustez, papera birziklatuz gero Akeiko errauskailuak bero-ahalmena galduko zuenez-edo, gure kontra jarri ziren. Gure kasa egin genuen hordagoa bota, eta horrek bailaran birziklatzeko plana abiarazi zuen. Paperarena soilik, gainontzeko edukiontzia geroago iritsi ziren.

20 urte pasatu eta gero, kontu horiek zeharo aldatu dira.

Goitik behera; hala ere, antzekotasun puntuak ikusten ditut. Duela 20 urte papera batzeko izan genituen arazo berberak daude orain organikoa biltzeko. Guk Mankomunitateko errauskailuarekin egin genuen topo eta orain, Gipuzkoan egin nahi dutenarekin egin dute.

Ingurumeneko planak oso epe luzera egiten dira. Eraginkorrak dira?

Egia esan, 1991. urtean 2003az hitz egiten genuenean, oso urrun zegoela zirudien, eta orain... Oso atzean dagoela dirudi. Ingurumena ez da egun batetik bestera berreskuratzen, eta, horregatik, helburuak epe luzera jartzen dira. Ibaian kasuan aldaketa izugarria izan da. Lehen, Deba ibaia estolda handi bat besterik ez zen eta orain, zainduago dago. Aretxabaleta, kontu horretan ere, aitzindaria izan zen. Ur zikinak batzeko kolektorea jartzen lehen herria izan ginen.

Politika ere beste modu baten egiten zen, ezta?

Akaso, bai. Gogoan daukat auzo alkateekin batzarrak mendi irteera gisa egiten genituela, ez guztiak, baina pare bat egin genituen. Aretxabaletako txoko bat aukeratu eta bertan oinez ibilaldia egiten genuen. Bukatzeko, mahai baten inguruan, gaiak beste era batean tratatzen genituen.

PEDALKA

FRANTZIAKO ALPEAK ALDERIK ALDE BIZIKLETAZ JULEN IRIONDOREKIN
GOIENA TELEBISTA | EKAINAK 6, 21:50



HERRIAK



Dorletako Santutegiaren aurreko aldean berdegune eta zuhaitzi ederrak daude. | GOIENA

LEINTZ GATZAGA

Joera aldaketa gertatzen ari da Dorletako Santutegian

- ▶ Ohitura berriek Santutegia gutxiago erabiltzea ekarri dute
- ▶ Aurten, oraingoz, ezkontza bakarra dute eskatuta, abuzturako

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Ezkontza sasoi izaten da udaberria. Eguraldi hobea (normalean), ingurua eder eta loraldian eta animoak ere epeltzen. Udazkenara artekoa izaten da sasoi hori. Orain dela gutxira arte, elizek, eta batez ere, eliza jakin batzuek lan dezentekoa izaten zuten sasoiak. Itxaron zerrendak eta guzti izaten zituzten.

Leintz Gatzagako udalerrian dagoen Dorletako Santutegia, esaterako, preziatua izan da urteetan bikote askoren artean. "Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatzatik... etortzeaz gainera, Bilbo, Donostia eta Gasteiztik ere hona ezkontzera etorri izan dira asko", kontatu du Tere Aranburuzabalak, Santutegiko giltzen (eta bestelako zereginen) arduradunak. "Ni neu ere bertan ezkontutakoa naiz 40 urte pasa dela. Eta Dorletako Ama txirrindularien zaindaria izanda, horrek ere erakarri izan ditu bikoteak; adibidez, Durangoetik etorri da bikote bat hona, bereziki, txirrindularia zelako; eta orain dela pare bat urte Igor

Gonzalez de Galdeano Euskalteleko managerra Dorletan izan zen ospakizun berezi bat egiten", gaineratu du Aranburuzabalak. Hala ere, lehengo kontuak dira.

30etik, bakarrera

Datu objektiboekin ikus daiteke hori; bestela esanda, zenbakiekin.

"Oraingoz, aurten ezkontza bakarra dugu eskatuta. Abuztuaren 3rako. Eta iaz hiru bakarrik izan genituen. Gutxi dira, bai. Kontuan hartuta urte askoan 30 ezkontza egon izan direla eta batzuetan egun bakarrean hiruzpalau ezkontza egin behar izaten genituela", jakinarazi du Tere Aranburuzabalak sakristauak.



Dorletako Ama lorez inguratuta, Arlabanen. | GOIENA

Leku gehiago aukeran

Zergatik gertatzen den hori? Bada, Tere Aranburuzabalak berak ere ez dakizki arrazoi zehatzak. Joera orokorra dela uste du, ez Dorletako Santutegiaren edo, kasu honetan, Leintz Gatzagaren joera bakarrik denik. "Bikoteek orain leku gehiago dituzte aukeran. Gatzagan, adibidez, askok gatz museoa aukeratzen dute ezkontzeko; edo Eskoriatzako Ibarraundi museoa... beste bikote asko eta asko ezkondu barik bizi dira elkarrekin...".

Izan ere, erraztasun aldetik, Dorletako Santutegiak erraztasun guztiak ematen dizkie ezkontideei: "150 euro ordaindu behar da ezkontzako. Ez da asko. Ezkontza sasoi udaberrietik urrira izan arren, urteko edozein egunetan ezkon daiteke. Eta ordua ere bikoteek gura dutenean ipin daiteke. Horrez gain, loreak, musika... norberak nahi duen moduan antola daiteke, guztia", dio Aranburuzabalak.

Hori bai, Dorletako Santutegiko ezkontzak gutxitu bai, baina desagertu ez dira desagertuko oraindik orain. Horren adibide da

Santutegiaren historia laburra

Dorletako Andre Mariaren Santutegia ur gaziko iturriaren inguruan garatutako bizimodua eta ekonomia babesteko erromatarrek eraikitako gazteluaren hondarretatik sortutakoa da. 1331n hiribildua sortu zenean, Santutegiak parrokia izatera galdu zuen, hiribilduan sortutako San Millan elizak hartu baitzuen haren lekua. Santiago bideko erromesen eta Errege bidetik Gaztela eta Frantziara zihozazenen ostatu bihurtu zen. Ospederiaren arduradunak bertako beatak izan ziren. Garai batean, dohaintza ugari jaso zituen Santutegiak eta laguntza horiei esker berriztapen asko egin ziren. Dohaintzen artean El Grecoren margolan bat zegoen, gaur egun Gotzaindegian dagoena.

Oraingo itxura XVII. mendekoa da. Hala eta guztiz, Erdi Aroko erliebeak gordetzen ditu. Urteetan egindako aldaketen ondorioz, hainbat estiloren nahasketa da. Egungo irudia hasierakoa ez bada ere, XIII. eta XIV. mendeetako taila polikromatua da eta Ama eta Semea elkarri begira ageri ditu.

datorren urterako deiak jasotzen hasita daudela dagoeneko.

Ohiko jardunean, berdin

Dena dela, Dorletako "lan gutxitzea" agerikoa da, eta ez da gertatzen ezkontzetan bakarrik. Izan ere, ohiko jardunean ere igarri dute. "Maiatzean hasi eta urriaren amaierara arte, Gatzagan, domeketako mezak hemen esaten dira. Arantzazuko Martin fraideak egiten du. Aurten, baina, oso gutxi etortzen gara, 11 lagun inguru; eta guztiak ez gara hemengoak, Eskoriatzatik etortzen dira batzuk, Gasteiztik...". Eta bataioekin ere antzera.

Edozelan ere, horrek guztiak ez du gutxienentzat Dorletak dituen jarraitzaile kopurua. Ikusi besterik ez dago Ama Birjina zela dagoen lorez inguratuta Arlabango txokoan. Eta ziklisten zaindariaren irudi eskeek iristen segitzen dutela, Amaren babes bila: "Iaz emakume batek Madrildik deitu zuen esanez semea ziklismo-zale amorratua zuela eta medailatxo bat bidaliko ote nion".

ARETXABALETA

Euskerien Eguna: euskararen aitzakian, lagunarteko parranda

Loramendi Euskara Elkartearen egun osoko jaietan, herriko labeldun askotariko ekitaldiak izan ziren

A. ARANBURUZABALA | ARETXABALETA
Elkarrekin egun pasa polita egiteko asmoarekin, herritar euskaltzale asko batu zituen, zapatuan, Loramendi Euskara Elkarteak proposatutako euskararen omenezko jaiak, horrelako egunak oraindik ere beharrezkoak direla azpimarratuz.

Goizetik gauera bitarteko jaiak
Herriko plazan egin zituzten goizean haurrentzako jolasak eta bertsolari eta txalapartarien ema-

naldiak. Handik abiatu zen eguerdian herriko trikitilari eta bertsolariak girotutako triki poteoa. Iturrigorri frontoian bazkaldu zuten gero 80 lagunek. Bazkalostean, Mihiluze lehiaketa eta ipuin kontaketa izan zituzten. Ondoren, bolo txapelketa eta, herriko sortzaileen eskutik, Musika Zaparrada maratonia. Euria ari bazuen ere, emanaldi osoan izan zituzten ikusleak adi-adi begira. Begira eta dantzan ere bai, herriko gaiteroek arin-arin eta fandangoa-

rekin beroketa lanak egin ostean, Larrain Dantza jo zuten eta lehenengo aldiz, bertaratutakoak dantzan jarritz.

Herriko txondorgileak

Elkarteko Toponimia taldekoek txondorra egin zuten udaletxe zaharrean; helburua, herriko txondorgile izandakoak ezagutaraztea. Ekainaren 9rako, argitaratu berri duten txondorgileei buruzko esku-orrian jasotako ibilbidea egitea proposatu dute.



Jende asko ibili zen Eskoriatzako kaleetan Ferixaz gozatzen. | IMANOL SORIANO



Elorretako errota hobeto ezagutu zuten zapatu goizean. | IMANOL SORIANO

ESKORIATZA

Ehun postu inguru izan dira aurtengo Ferixan

Jose Arana gunek antolatutako Ferixie arrakastatsua izan da, eguraldi txarra egin arren

L.K. | ESKORIATZA

Zeruari begirata, beldur ziren Ferixien antolatzaileak, Arizmendiko Jose Arana gunekoak, baina azkenean jende asko ibili zen Eskoriatzako erdigunean aurtengo azokan. Inoiz baino postu gehiago –100 izatera aile-

gatu ziren– eta tailer gehiago –larrua lantzekoa, xaboia egitekoa...– izan ziren. Aurten, Bagarak antolatuta, elkartruke postua ere izan zen. Herritar taldeak ere batu zen Elorretako errota martxan ikusteko, hori ere Ferixaren egitarauaren barruan.



ANTZUOLA

IMANOL SORIANO

Jai politak aurten ere Ondarren

Ondarreko Corpus jaiak ospatu dituzte aste bukaeran. Igerilekuak aurten ez dituzte ipini baina, horretaz aparte, dena ondo joan dela esan dute auzotarrek eta pozik daude aurtengoak eman duenarekin. Zapatuan 35 lagun batu ziren afaltzera auzoko plazako arkupetan; arrain-zopa, biribilkia saltsan eta kanutiloak jan zituzten, eta gero, ohi duten moduan, zetozen guztiei kafea eta kopa eskaini zieten.



Herriko trikitilari *beteranoek* ere alaitu zuten triki-poteoa. | A.A.



Txondorra egin zuten. | I.S.



Herriko txistulariek ere parte hartu zuten Musika Zaparradan. | A.A.



Iturrigorri frontoian batu ziren 80 lagun elkarrekin bazkaltzeko. | A.A.

Corpus prozesioa, kalean eta parrokian

AMAIA TXINTXURRETA | OÑATI

Zerura begira esnatu ziren atzo, domeka, oñatiarrak. Corpus eguneko prozesioa kalera irtengo ote zen edo ez, horixe zen herritarren kezka nagusia. Azkenean, 12:00ak aldera erabaki zuten prozesioa kalera irtengo zela.

12:05 inguruan, parrokiako kanpaiak jo eta jo ari zirela irten ziren Santa Anatik San Migel, apostoluak eta Jesukristo. Dantzariak San Migeli dantza egin ostean, parrokiara joan ziren guztiak. Parrokia jendez lepo zegoela, hasiera eman zioten prozesioari eta lehen irudiak kalera ateratzen ari zirela euria ari zuen. Horregatik, ibilbide ohi baino laburragoa egin zuten; Txaketuako kantoitik berriro parrokiara sartu ziren.

Bukaera parrokian

Parrokian, txistulari eta dantzariak klaustratik eman zuten buelta eta plazan egin ohi den bukaera hori parrokian egin zuten beste protagonistek ere. Corpuseko prozesioari bukaera emateko, bandaren laguntzarekin *Aita Gurea* abestu zuten parrokian batu ziren guztiek.

Goiena telebistan saio berezia

Corpus jaien saio berezia eskainiko dizuegu egubakoitzean, hilak 7, 22:30ean Goiena telebistan.



JOSETXO ARANTZABAL

JANZTEN Jendaurrean, Santa Ana antzokian jantzi dituzte San Migel, apostoluak eta Jesukristo. Fernando Diazek eman dio bizia San Migeli zazpigarren urtez eta irudian armadura nola janzten dioten ikus daiteke.



JOSETXO ARANTZABAL

DANTZAK PARROKIAN Meza berezia izaten da Corpus eguneko. Dantzariak aldarean egiten dute dantza eta argazkian dantzariak prest daude dantzan hasteko. Eliza jendez lepo dago.



JOSETXO ARANTZABAL

PROZESIOA Argazkian San Migel, Maria, Jesukristo eta apostoluak prozesioan agertzen dira. Alboetan, jendea prozesioa ikusten; asko aterkia zabaldua ageri dira, euritik babesten.



JOSETXO ARANTZABAL

AMAIERA Prozesioari amaiera parrokian eman diote, plazan beharrean. Ondorioz, plazan egin ohi duten amaiera parrokian egin dute. Irudian, aingerutxo jantzitako umeak petaloak botatzen agertzen dira.

Bai, oraindik garaiz zabilta!

AMAGARA

Erdiko kalea 54 behea
20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09

Gorputz tratamenduak

- Gorputz hidratazioa
- Estaldurak alga erreduzitzaile eta sendotzaileekin

Zelulitisaren aurkako tratamenduak

- Bakunterapia
- Ultrasoinuak
- Kabitazioa

Laser depilazioa eguzkia hartzeko arazorik ez duten azal ilunentzat.

Medikuntza estetiko kontsulta

- Dieta pertsonalizatuak
- Dieta hiperproteikoa, Ysonut metodoa
- Gorputz eta aurpegi mesoterapiak
- Aurpegiaren birmoldatzea
- Botoxa...

Zelulitisaren aurkako tratamenduak

- Bakunterapia
- Ultrasoinuak
- Kabitazioa

Solariuma... udarako presta zaitetz!

Gure eskaintzak kontsulta itzazu konpromiso barik.



Errementari dantza festen egitarauko ekintza jendetsuenetako bat da. | GOIENA

Aurtengo San Juan festei azken ukituak ematen

AEDren 30 urteak beteko diren urtean, Dragoi janak 22ra egingo du salto

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Hilabete baino gutxiago falta denean, hasi dira herriko festa nagusiei azken ukituak ematen. Klasikoak mantendu egin dira eta egitarauak zenbait aldaketa izango ditu.

Dragoi jana 24tik 22ra aldatu dute, festen guneak ere aldaketak izango dituzte, Seber Altubek musika kontzertua eskaini ahal izateko eszenatokia izango du-eta. Kepa Urteaga kultura zinegotziak azpimarratu nahi izan duen moduan, "ez dugu inor kanpoan utzi nahi izan". Detalle askorik eman ez dituen arren, Udalak festak anitzagoak egiteko esfortzu berezia egin du.

San Juanak sortzeko bilerak

Aurreko urteko arrakastaren ostean, Udalak, bigarren urtez,

festen egitaraua definitzeko parte hartze prozesua martxan jarri zuen. "Aurten denbora gehiago eskaini diogu", zioen Urteaga zinegotziak.

Guztira lau bilera egin dituzte eta aste honetan egin dutena izango da azkena. Bilera hau, baina, ezberdina izango da, bertan, parte-hartzea eskatu beharrean, aurreko bileren emaitzak aurkeztuko dira-eta. Urteagak azpimarratu zuen bezala, "parte hartu dutenei egitaraua azalduko diegu, eurak izan baitira aurtengoaren sortzaile eta parte-hartzaileak".

Zenbait berrikuntza

Aurretik, baina, hasi gara aurtengo festetako zenbait zertzelada ezagutzen. Aurreko urtean moduan San Juan bezperaren bezperako kontzertuek girotuko dute herria.

Dragoi janaren ohiko eguna 24a izan den arren, aurten 22an izango da eta Goikobaluk girotuko du San Juan eguneko gaua.

Aurten inoiz baino musika gehiago egingo da. Oihan Vega eta ohiko kontzertuez gain, Seber Altubek ere bere protagonismoa izango du, espazio honetan festetan kanpoan geratu izan diren musikak estilo ezberdinek beraien tokia izango dutelako.

Festetako kartel lehiaketa

Oraindik aurtengo kartela aurkezteko epea ez da amaitu. Hori bai, epea gaur bukatzen da eta proposamenak arratsaldeko zazpiak aurretik aurkeztu beharko dituzte, BAZen. Interesa dutenek jakingo duten moduan, lehiaketako irabazleak 750 euro jasoko ditu.

XVIII. Urologia jardunaldiak Debagoieneko ospitalean

I.G. | ARRASATE

Estatu osoko urologoak elkartuko ziren egubakoitzean Debagoieneko Ospitalean. Eraikin berrian egokitu zen aretoan informazioa zabaldu, eztabaidatu eta elkartrukatu zen. Aurten gainera, prostatektomia erradikalak sor ditzakeen konplikazioei buruz mintzatu ziren.

Lehenengo orduetan, tentetzaeren disfuntzioaren inguruko konplikazioak konpontzeko kirurgiei buruz hitz egin zuten. Kirurgia hauek, gainera, ospitalean bertan egin ziren eta *streaming* bitartez jarraitu zituzten. Jardunaldietan argi geratu zen moduan, jardunaldiatarako ez ezik mota honetako

ebakuntzetarako prest dagoen ospitalea da Arrasatekoa.

Prest dagoen ospitalea

Juan Manuel Sanzek, ospitaleko zuzendari medikuak esan moduan, "jardunaldi hauek eraikin berriarekin egindako apustua indartzen dute". Bide beretik Javier Extramiana Euskadiko Urologia Elkartearen presidentea eta Debagoieneko Ospitaleko Urologia zerbitzuruak adierazi bezala "ospitalean erkidegoko instalazio onak ditugu". Bazkaldu ostean, bigarren zatiari ekin zioten. Jardunaldiaren bigarren zati honetan adituek inkontinentzia arazoak konpontzeko irtenbideez hitz egin zuten.



Ehun pertsona baino gehiago hartu zuten parte. | IMANOL GALLEGO

Auzokonposta egiteko herrian hiru gune prestatu ditu Udalak

I.G. | ARRASATE

Ia 100 familiek eman zuten auzokonposta egiteko izena eta dagoeneko Udalak hasi da hiru gunetik bi atontzen. Lehena Laubide plazakoa izan zen eta eguenean makinekin ospitale inguruko gunea bukatu zuten. Uribe auzoko gunea non jarriko duten auzotarrek adostuko dutenez, lanak aurrerago hasiko dira.

Laubideko kasuan 22 familiak hartuko dute parte eta ospitalekoan 36k. Bi gune hauek 300 litroko tokia duten banakako konpostagailu txikiak jarriko dituzte. Uribekoan aldiz 700 litrokoak izango dira eta 4-5 familiak erabiliko dituzte.

Garbigune ibiltaria

Debagoieneko hainbat herritatik pasa ostean, eguenean Arrasateren txanda izango da. Ekainaren 6an etxean sortzen ditugun eta trataera berezi bat behar duten aerosolak, bonbillak, kartutxoak, bateriak, pintura... biltzeko garbigune ibiltaria Arrasaten egongo da.

Garbigune mugikorra Gari bai etorbidean egongo da eta nahi duen guztiak, goizeko 10:00etatik gaueko 21:00etara, bertara produktuak eroateko aukera egongo da.

Ekimen honekin Garagartza auzoaren sarreran dagoen garbigune finkoa herrira hurbilduko dute.



Laubide plazan egiten ari diren auzokonpost gunea. | IMANOL GALLEGO



JONE ALBENZ

Monte tabernako Giroko porra Musakolara

Eguaztenezan banatu ziren Monte tabernan Giroko porra sariak. Lehenengo postuan geratu zen Astotxo2 Musakolako taldeak 8.436,00 euroko saria jaso zuen. Bigarren eta hirugarren postuan geratu ziren Oscar Bravo eta Txispasek 5.272,50 eta 2.636,25 euro jaso zituzten. Aurkeztu diren 703 zerrendetatik lehenengo 10ak sarituak izan ziren.



Goikobaluko helduen taldea, maiatzeko azken asteburuan Salamancan ateratako argazkian. | GOIKOBALU ABESBATZA

Goikobaluk Salamanca ere txundituta utzi zuen

2014an 25. urteurrena ospatuko du guztira 130 bat kide dituen abesbatzak

J.B. | ARRASATE

"Herriko kultura bizirik mantentzeko lan ona egiten ari garela esango nuke. Garen guztiak eta ematen ditugun kontzertuak ikustea besterik ez dago", dio Jose Antonio Barriocanal Goikobalu abesbatzako presidentek. 130 kide ditu talde osoak, haur, gazte eta helduak kontuan hartuta. Helduen taldea 50 kide osatzen dute eta Barriocanalen arabera, 45 bat kide elkartzen dira kontzertuetarako.

Katedral zaharrean eta berrian Kontzertuei dagokienez, aipatzekoa da maiatzeko azken asteburuan Salamancan egon zirela, katedral berriaren lehen harria jarri zenetik bost mende bete direlako. Ez da edozein plaza; nola lortu duten han egotea? Bada, Goikobaluko kide bat Salamancan ikasitakoa da eta haren bidez enteratu eta eskaera egin zuten; aukeratuak izan ziren: "Ilusioz joan ginen eta gure abesteko

zaletasuna turismoarekin tartekatze aukera izan genuen; gustura".

Katedral zaharrean eta berrian abestu zuten: "Ordubeteko saioak izan ziren eta katedralaren hiru laurdenak bete genituen. Oso ondo irten ziren kontzertuak. Akatsen bat egin genuen baina entzuleek ez zuten igarri. Sonoritatea ederra izan zen; denok

gustura amaitu genuen". Katedral berrian emandako kontzertuan, gainera, Goikobaluko bi kidek Salmoa irakurri zuten eta beste batek, berriz, organoa jo zuen. Eta, emanaldiari amaiera borobila emateko, San Juan ereserkia abestu zuten: "Etxean moduan egon ginen, oso gustura. Ateak irekita ditugula esan ziguten".

2014an, Santiagora

Helduen taldean hurrengo ekin-tza aipagarria izango da Santiago bidea amaitzeko egingo dituzten saioak: "Santiago bidea 15 etapetan banatu genuen eta etapa bakoitzean basilika edo katedral baten eskaini izan ditugu kontzertuak. 2009an hasi ginetik hainbat katedral bisitatu ditugu". 2013rako etapak Villafranca del Bierzo eta Ponferradan egingo dituzte eta 2014an, Goikobaluk 25 urte beteko dituzenez, Santiagon amaitzea da euren asmoa: "Beste hainbat ekin-tza ere egingo ditugu".

ESANAK

"Etxean moduan egon ginen, oso gustura. Ateak irekita ditugula esan ziguten"

JUAN ANTONIO BARRIOCANAL
GOIKOBALU ABESBATZAKO PRESIDENTEA

Amaia Albes diseinatzaileak oso kritika onak jaso zituen Donostiako Gure Moda Gaur desfilean

J.B. | ARRASATE

Maiatzaren 29an Gure Moda Gaur desfilearen bigarren edizioa egin zuten Donostiako Zorroaga elizan. Euskal Herriko 15 diseinatzaile gaztek hartu zuten parte –35 urte-tik beherakoak guztiak–, bakoitzak bost modelo erakutsita.

Horien artean Amaia Albes diseinatzaile arrasatearra egon zen: "Oso pozik nago. Ez nuen irabazi baina esan zidaten oso gertu egon nintzela lehen postutik. Lehiaketan egotea bera saria izan zen niretako, ezin dut gehiago eskatu". *Once upon a time* izeneko bildumaren barruan bost

diseinu erakutsi zituen Albesek eta esan digunez, oso kritika onak jaso zituen epaimahaiaren zein publikoaren eskutik.

Lanez lepo, zorionez

Publikoaren saria oraindik ez dute jakinarazi, eta Albesen diseinuen arrastoa utzi zutela kontuan hartuta, ez litzateke harritzekoa sari hori irabaztea; tablet bat eta moda aldizkari ospetsu baten urtebeterako izen-ematea izango litzateke saria. Garrantzitsuena da, esan digunez, lanez lepo dabilela arropen konponketak eta bestelako lanak egiten.



Albesen modelo bat. | DONOSTIAFASHIONWEEK

2013rako dirulaguntza programa onartu du Tokiko batzarrak

Urte osorako eta sail guztietarako 609.400 euroko laguntzak ematea onartu dute

J.B. | ARRASATE

Udalaren eta haren erakunde autonomoen –Aukea kasu– norgehiagoka erregimenean eman beharreko diru-laguntzak onartu ziren azken Tokiko Gobernu batzarrean. Sailez sail onartu ziren diru-laguntzetarako baldintzak. Horietako batzuk aipatuko ditugu jarraian.

Laguntza ezberdinak, sailka

Kultura Sailean herriko kultura taldeek urtean zehar garatzen dituzten ekingen finantziazioan laguntzen du Udalak. Euskara Sailean programa ezberdinak daude: euskaltegietara doazendako, enpresetan euskara bultzatzen dutenendako eta

euskara sustatzen duten elkar-teendako, besteak beste. Hezkuntzan, esaterako, irabazi asmorik gabeko guraso elkar-teendako laguntzak daude. Gizarte Ongizatean, besteak beste, erretiratu elkarteak, garapenaren aldeko lankidetzak programak eta droga mendekotasunak eta mendekotasun psikologiko batzuk tratatzeko programak laguntzen dira. Enplegu Sailak lanpostu berriak sortzearen truke laguntza ematen die enpresei eta Hirigintzan, berriz, laguntzak ematen dira igogailuak jartzeko programaren barruan. Bestelako laguntzen berri jasotzeko, BAZera jo (943 25 20 00).

Fiachras eguenean, Kooltur-en hirugarren ikasturtea ixteko

J.B. | ARRASATE

Kooltur Ostegunak ekimenaren hirugarren ikasturtea amaitzea doa. Hiru urte dira dagoeneko eguek kalitatezko musikaz edota bestelako kultur ekingez betetzen, eta dagoeneko arrasatearren eta bailarako musikazaleen agendetan errota dagoen ekimena da. Hirugarren urtea borobiltzeko, gainera, Debagoienera hainbat

jarraitzaile dituen Fiachras taldea gonbidatu dute. Haritz Artola, Aitor Aldanondo eta konpainia Sumision City Blues taldearekin batera kaleratutako *single*-arekin datoz, bi kantu berriekin. Eguenean, gaztetxean, 22:00etan hasita.

Urrirako zenbait kontzertu lotuta daude eta, beraz, laugarren ikasturte bat egongo dela ziurra daiteke.



Fiachras zuzenean, Eskoriatzan. | GOIENA

Herriko zenbait jatetxetan doan afaltzeko aukera eskainiko die Ibai Artek elkarteko bazkideei

Ibai Arte merkataritza elkarteak, bezeroen fideltasuna saritzeko duen ohiturari eutsiz, ekimen berria abiarazi du ekainaren 1etik uztailaren 15era arte. Bi pertsonendako 35 afari zozketatu dituzte honako jatetxe hauetan: Arteaga landetxea, Hamalau, Hilarion, Mondragon hotela, Santa Ana hotela, Sara merenderoa eta Txoko taberna. Txartel irabazlea duen Ibai-Arteko bazkideak irailaren 30era arte trukatu ahalko du txartela. Derrigorrezkoa izango da jatetxean lekua alde aurretik erreserbatzea.

Izenematea zabalik dago oraindik uda kanpainan

Maiatzean egin zuten ikastaroetako zozketa baina plaza batzuk libre daude

I.U.R.E. EIZAGIRRE | BERGARA

Duela pare bat hilabete ireki zuen Udaleko Kirol Zerbitzuak uda kanpainan izena emateko epea. Maiatzaren erdialdean egin zuen zozketa eta libre geratutako plazak betetzeko izen-ematea dago orain zabalik. Datorren astean, ekainaren 11n, itxiko dute epea.

Umeendako, gazteendako eta helduendako ikastaroak izango dira. Haurrek bi asteko txandetan egingo dituzte saioak, lehen txanda ekainaren 24tik uztailaren 5era izango da eta bigarrena, berriz, uztailaren 8tik 19ra. Gazteek modu berean egin ditzakete ikastaroak baina ekainaren 24tik uztailaren 19rako txanda bakarra ere aukeratu dezakete. Helduek, azkenik, uztailaren 8tik 19ra egingo dituzte ikastaroak.

Eskaintza zabala

Guztira ia 40 ikastaro emango dituzte eta batzuetarako taldeak osatuta daude jada. Beste batzuk oraingo izen-ematearen arabera lotuko dira.

Eskaintza adin ezberdinetara egokituta dago. Umeek tenisa, igeriketa (zapaburu, dortoka eta amuarrain modalitateetan), multikirola, funkya eta irristaketa egiteko aukera izango dute.

Gazteendako aurtengo berrikuntzak eskalada, capoeira eta defentsa pertsonala dira. Horiez gain, hockey-irristaketa, piraguismoa edo areto txirrinda praktikatu ditzakete.

Irristaketa eta tenis- eta eskalada-hastapenak dira helduei aurtengo proposatutako ikastaro berriak. Aurreko urteetan moduan,

igeriketa, aerodance, pilates, gimnasia armonikoa, yoga, multikirola edo capoeira ere egin ahal izango dituzte.

Udako kirol jarduera gehienak Agorrosin kirolgunean izango dira baina Labegaraietan, Udal Pilotalekuan, Zabalotegin eta Ipintza Institutuan hainbat ikastaro eskainiko dira.

Prezio bereziak

Agorrosineko abonatuak prezio murriztakoak izango dituzte uda kanpainan. Aurten ez abonatuendako ere prezio bereziak jarri dituzte eta 18,82 eta 98,63 euro artean ordaindu beharko dituzte, ikastaroaren arabera.

Libre dauden plazetan izena ematen dutenek ekainaren 13an jakingo dute taldea osatu den.



Ikastaroa jaso ostean joan ziren konpostagunea ezagutzera. | GOIENA

Hamar konpostagailu jarri dituzte Ibergaraiko auzo-konpost gunean

Guztira 33 familiak egingo dute konposta eta Udalak eguaztenean eskaini zien ikastaroa

I.E. | BERGARA

Bergara ere ahalik eta hondakin gutxien sortzeko erronkarekin dabil eta dagoeneko martxan dago bigarren auzo-konpostagunea. Eguazten arratsaldean aurkeztu zuten Ibergarain, auzotarrak zein udal ordezkariak bertan zirela. Guztira, 33 familiak egingo dute konposta gune horretan eta hamar konpostagailu jarri dituzte.

Auzo-konposta egiteko gunea ezagutu aurretik, egitasmoan parte hartuko duten bizilagunek ikastaroa jaso zuten udaletxeko osoko bilkura aretoan.

Bi udal langilek eskaini zuten ikastaroa eta auzo-konposta egiteko garaian kontuan hartu beharreko xehetasunak azaldu zizkieten, materia hezearen eta lehorraren arteko oreka mantendu behar dela, adibidez. Auzotarrak euren kezka azaldu eta argitu ahal izan zituzten gero.

Udal ordezkarien ezagutzeari gain, herritar baten hitzak entzuteko aukera izan zuten,

izan ere, Labegaraietako auzo-konpostan parte-hartzen duen bergarar batek euren esperientzia kontatu zien Ibergaraiko bizilagunei. Azken sei hilabeteetan auzoan egindako lanarekin oso pozik daudela azaldu zuten hark.

Beharrezko informazioa jaso ostean joan ziren auzo-konpostan parte hartuko duten familietako kideak Ibergaraineko konpostagailuak jarri dituzten gunea ezagutzera.

Udal ordezkariak gustura

Leire Iruin Ingurumen zinegotzia eguazteneko konpostaguneko aurkezpenarekin egon zen eta pozik zegoela azaldu zuen. Orain arteko lanaz ere hitz egin zuen eta Labegaraietako lehenengo auzo-konpostagunea martxa onean doala esan zuen.

Gainera, herriko hurrengo auzo-konpostagunea Osintxu auzoan zabalduko dutela iragarri zuen. Izen-ematea egin dute eta erantzuna ona izan da, gunea beteta dago.



Umeendako eskaintza zabala dago uda kanpainan eta plaza asko daude oraindik hutsik. | BERGARAKO UDALEKO KIROL ZERBITZUAK

Mendekotasun gaiek eskari gehien iaz Gizarte Zerbitzuan

Aurkeztu berri duen memoriaren arabera, 1.675 eskari bideratu zituen

I.E. | BERGARA

Udaleko Gizarte Zerbitzuak 2012ko memoria aurkeztu berri du. Herritarren ongizatea lortzeko, osasunarekin, enpleguarekin eta gizarte arazoekin zerikusia duten gaiak lantzen ditu zerbitzuak.

Iaz 1.675 espediente administratibo bideratu zituen, hau da, herritarren %11,34ren kasuak aztertu zituen. Gainera, Gizarte Zerbitzuek antolatutako ekintzek 4.197 pertsonari eragin zien, bergararren %28,42ri.

2011 urtearekin konparatuta, %9,16ko jaitsiera egon zen iaz bideratutako eskari kopuruan. Zerbitzuaren gastua, berriz, zertxobait hazi zen, izan ere, 2011an 2.089.377 eurokoa izan zen eta iaz 2.118.110 eurokoa, Udaleko gastu osoaren %11,48.

Mendekotasun gaiak nagusi

Lau izan ziren Gizarte Zerbitzuetan iaz nabarmendutako lan arloak: mendekotasuna, enplegua, diru-laguntzak eta 3. adina.

Mendekotasunari lotutako 563 kasu egon ziren, gehienak ezgaitasunen balorazioekin, elbarrituentzako apartaleku txartelarekin edo eguneroko jardunean autonomoago izateko mugikortasunerako, irisgarritasunerako eta komunikaziorako laguntzekin erlazionatuta zeudenak.

Egungo egoeran, enplegua izan zen iaz bergararren beste kezka nagusietako bat. Gaiarekin lotutako 420 espediente bideratu ziren. Aurreko urtea-

rekiko igoera nabarmena izan zen, 2011n 179 kasu egon zirelako. Txostenak horren arrazoietakoa bat zehazten du: iaz, lehen aldiz, Lanbideko espedienteak Gizarte Zerbitzuko espedienteetan sartu ziren.

Bi gai horiek eskarien lehen lekuan jarraitzen dute baina eurek izan zuten jaitsiera nabarmena 2009 eta 2012 urteen artean.

Ongizatera bideratutako diru-laguntza eskariak 264 izan ziren. Udalak hainbat arrazoigatik ematen ditu laguntzak, gizarte larrialdiei aurre egin ahal izateko, diru sarrerak bermatzeko edo adin txikikoen kargu egin ahal izateko, adibidez.

3. adineko pertsonekin zuzenean lotutako 243 laguntza eskari egon ziren, gehienak etxeko laguntza zerbitzukoak. Horri esker, iaz 119 pertsonari lagundu

zitzaien eguneroko oinarriko premiei aurre egiten. Bakarrik bizi diren edo denbora luzez bakarrik egon behar duten 36 pertsonari tele-asistentzia zerbitzua eskaini zitzaien lehen aldiz 2012an, eta urte amaieran 148 bergararrek zuten larrialdi egoera bati aurre egiteko telelaguntza zerbitzua.

Gizarte Zerbitzuak bideratutako gainerako eskariak atzeritarrekin, berdintasunarekin, drogamenpekotasunarekin, familiarrekin, gizarte lankidetzarekin eta bestelako gaiekin lotutakoak izan ziren.

2012ko memoriak horietako bakoitzaren azalpena, egindako lana eta eskaintako laguntzen aipamena, eta zerbitzuaren azken urtetako bilakaera ematen ditu. Udalaren webgunean dago eskuragarri txosten osoa.



Koloretako argazki onenaren saria irabazi zuen. | JAVIER P. FERNANDEZ

Bergara Hiriako argazkiak Aroztegin

Argazkilaritza gustuko dutenendako erakusketa interesgarria dago ikusgai Barrenkaleko aretoan

A.B. | BERGARA

Arizondo Argazkizale Elkartek antolatuta, 29. Bergara Hiri argazki lehiaketa egin dute aurtan. Argi dago hogeita bederatzirete urte hauetan izen handia hartu duela Bergarako lehiaketak. Aurtan, esaterako, 225 argazki aurkeztu dira eta zortzi izan dira sarituak: lau zuri-beltzeko kategorian eta beste lau koloretakoan. Bada, orain, lehiaketan parte hartutako argazkiak ikusteko aukera dago Aroztegi aretoan.

Antolatzaileek 40 argazki aurkeztu dituzte Barrenkaleko aretoan ikusgai ipintzeko: 19 zuri-beltzean eta 21 koloretan. Erakusketa zabalik egongo da ekainaren 9ra arte.

Aroztegi aretoaren ordutegia

Erakusketa zabalik dago astelehenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:30era; zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domeka eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

Bergara Garbia hondakinen mahaia osatzeko prest dago "atez atekoarekin lotutako guztia gelditu egingo dutela idatziz bermatuz gero"

Gobernuak dio "guztien artean" jarri nahi dituztela helburuak, "beste herri batzuetan bezala, eta horiek lortzeko sistema egokiena guztien artean erabaki"

OIHANA ELORTZA | BERGARA

Iragarri moduan, maiatzaren 28an batzarra egin zuten atez atekoaren kontrako eta bosgarren edukiontzia aldeko Bergara Garbia plataformak eta Udala Gobernuak hondakinen mahaia eratzeko aukerari buruz.

Batzar horren harira, plataformak prentsa oharra bidali du eta honakoa dio: "Gobernuak onartu du hondakinen bilketaren inguruan desadostasunak daudela bai Bergaran eta baita Gipuzkoan ere, eta Elgetan eta Zumaiain hartu dituzten antzeko erabakiak hartzeko prest azaldu da. Bergara Garbia plataforma gertu dago hondakinen mahaian parte hartzeko, beti ere atez ateko bilketarekin lotutako guztia gelditu egingo dutela idatziz bermatzen badigute".

Mahai horretan parte hartzeko gonbitea Udalan ordezkariak duten alderdi guztiei luzatua die gonbitea Gobernu taldeak eta baita Bergara Garbia

eta Zero Zabor taldeari ere. Azken horrek aurreko astean dagoeneko adierazi zuen mahai horretan parte hartzeko asmoa.

Udal gobernua

Udal Gobernuak, bere aldetik, Bergara Garbiarekin egindako bileraren balorazio positiboa egin du. "Urtebete honetan euren protestak ikusi ditugu eta jakitun gara kontraktasunak daudela gai honen inguruan, eta gure asmoa zein den azaldu genien", adierazi du Leire Iruin ingurumen zinegotziak. Eta gehitu du: "Bi aldeetan egon dira mugimenduak eta guk hausnarketa mahai bat eratu nahi dugu gai horren inguruan berba egiteko. Guztion artean jarri nahi ditugu helburuak, beste herri batzuetan egin duten moduan, eta helburu horiek lortzeko sistema zein den guztion artean erabaki nahi dugu. Hori guztia idatziz jakinaraziko diogu plataformari, bilerako akta jaso zelako", gaineratu du Iruinek.

Ekaineko kultura agendarekin, aspertzeko denborarik ez

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Kalean da ekaineko kultura gida. Antzerki, kontzertu, hitzaldi eta kirol hitzordu artean aspertzeko denborarik ez da izango hil honetan.

Musikari dagokionez, Bergarako Orkestra Sinfonikoak kontzertua eskainiko du Santa Marinan ekainaren 22an eta hurrengo egunean gauza bera egingo du Udala Bandak Espoiloan. Beste musika estilo batean jardungo du Oskar Estangak ekainaren 21ean Zabalotegin. Ekainaren 29an, bestetik, *Mozarten Requiem*a emanaldia eskainiko dute San Pedro parrokiaren Oñatiko Abesbatzak eta Bergarako Orfeoak.

Txikitxoentzako eskaintza

Borobil antzerki taldeak *Alibaba eta 40 laburrak* antzezlan eskainiko du ekainaren 9an Zabalotegi aretoan. Ekainaren 7an, berriz, *Circus Day* jaialdia ospatuko da Ipintzako patioan eta ondoren, Jardun elkartearen urte amaierako festa.

Hiruko saskibaloi txapelketa

Ekainaren 22an eta 23an egingo dute hiruko txapelketa, eta, giroa berotzeko, hilaren 19an, 19:00etan, saskibaloiaren inguruko mahai ingurua egingo dute Miguel Altunan eta hilaren 20an saskibaloiarekin lotutako film bat eskainiko dute Zabalotegi aretoan.



Alibaba eta 40 lapurrak antzezlanaren une bat. | BOROBIL

Musika Eskolak Udaberriko Kontzertua egingo du barikuan

Musika Eskolako hainbat taldek kontzertua eskainiko dute ekainaren 8an, 19:00etan, Udala Pilotalekuan. Kontzertua amaitu ostean, afaria egingo dute frontoian bertan. Afarirako txartelak Musika Eskolako bulegoan daude salgai bihar arte.

Ehun Miliak probarako boluntario bila Hankaluze taldekoak

Lasterketaren Bergarako zatia antolatuko dute Hankaluzekoek eta boluntarioak behar dituzte horretarako. Lasterketa uztailaren 12an izango da. Hankaluzetrail@gmail.com helbidera idatzi behar dute interesatuek.

Odol-ateratzek egingo dituzte hilaren 12an eta 26an

Bergarako Odol Emaileen Elkartek jakinarazi du ekainaren 12an eta 26an egingo direla hil honetan odol-ateratzek. 18:00etatik 20:30era bitartean izaten dira. Elkartearekin harremanetan ipintzeko, 669 10 89 77 telefonora deitu behar da.

EAJko Udala tadeak salatu du "Gobernu taldeak atez ateko sistema ezartzeko asmoarekin jarraitzen" duela

Udala Gobernu taldeak, bere aldetik, EAJk azken egunetan egindako "zenbait adierazpen zuzenak ez direla argitu" nahi izan du

OIHANA ELORTZA | BERGARA

EAJko Udala taldeak salatu du, prentsa ohar bidez, "Gobernuak aurrera" jarraitzen duela "atez ateko sistema ezartzeko asmoarekin" eta gehitzen du Gobernuak "jolasean" diharduela duela urtebete baino gehiago hondakinen bilketari buruz sortu den eztabaidaren inguruan". Gehitzen dutenez, apirilaren 29an egindako osoko bilkuran alkateari eskatu zioten "hausnarketa egiteko atez ateko sistemaren aurka egindako protesten harira", eta galdetu zioten "Debagoien osoan atez ateko sistema geldirik duen errekurtsuaren gainean". EAJtik azaltzen dutenez, "gaiari buruzko zuzeneko aipamenik egin gabe, hondakinen mahaia osatzearan alde agertu zen Gobernu taldea; alderdi politikoak, Bergara Garbia eta Bergara Zero Zabor taldeak osatuko luketen mahaia".

Joan den martitzenean Bergara Garbia eta Gobernuo kideek egindako bilerari ere egiten dio erreferentzia EAJk

prentsa oharrean eta salatu dute "hondakinen gaiari buruz Gobernuak lortu gura duen akordioa kanpora begirakoa" dela, "maiatzaren 28ko Hirigintza batzordean atez ateko bilketa egiteko eskitokien kokalekuak aurkeztu" zituztelako.

Gehitzen dutenez, akordioa heltzeko asmoa dagoela ikusita, "dena zergatik ez duten gelditzen galdetu zuen Hirigintza batzorde horretan zinegotzi jeltzaleak, eta Gobernuo ordezkarien erantzuna izan zen atez atekoaren tramiteak aurrera doazela".

Hori horrela, Gobernuari eskatzen diote, "argi hitz egiteko, atez ateko sistema alde batera uzteko eta gaiari buruzko benetako akordioa hel dadila".

EAJren hitzak argitzen

Udala Gobernu taldeak, bere aldetik, prentsa ohar harira "EAJko Udala taldeak egindako adierazpenak zuzenak ez" direla argitu nahi izan du: "Martitzeneko Hirigintzako bileran

ekarpen gune eta larrialdi guneen kokalekuak aztertu ziren, Debagoieneko Mankomunitatearen eskariz, eta zintzilikarioen kokapenak. Izan ere, horien esleipena eginda dago eta enpresa dagoeneko lanean hasita dago. Esleipena Oñati, Leintz Gatzaga eta Bergarako egin zen. Oñatin bukatzeaz daude eta ondoren Leintz Gatzagarekin eta Bergarako hastekotan dira".

Horrekin guztiaren batera, Udala Gobernu taldeak argitu nahi izan dute, ekarpen gune horiek ez dutela atez atekoarekin lotura zuzenik: "Auzoetako hondakinen gaikako bilketara bideratutako guneak dira, edukiontzia bidez funtzionatuko dutenak", azaldu dute.

Eta gehitu dute: "Beste hainbat esleipen ere eginda daude, baina horiek guztiak hausnarketa mahaia osatzean aztertuko dira. Horiei guztiei ere hartutako erabakien arabera irtenbidea eman behar diegu".

Usakoko bainu denboraldia ekainaren 22tik irailaren 15era

Sorosle zerbitzua arratsaldeetan bakarrik egongo da: 15:00etatik 20:00etara

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Guztiok eguraldiari begira gauden honetan, Udalak erabaki du Usakoko bainu denboraldia ekainaren 22tik irailaren 15era izango dela, bi egunak barne.

E-Goitek enpresa izango da Usakoko bainu denboraldiaz arduratuko dena. Udalak eta Zubikoako igeriketa eta sorosle zerbitzuak ematen dituen enpresak 2011ko irailean sinatu zuten akordioa.

Horren arabera, eurak arduratuko dira arratsaldetan bakarrik egongo den sorosle zerbitzuaz. Hain justu ere, 15:00etatik 20:00etara arte egongo da zaintza zerbitzua.

Bainu lekuaren erabiltzaileak

jakinaren gainean egon daitezten, soroslearen ordutegia zehazten eta Europar Batasunaren 2012ko bainurako ur kalitatearen legediari egokitutako kartelak ipiniko dituzte. Era berean, inguruan dauden arrisku eta debekuak adieraziko dira.

Bainu denboraldia hasten denean, egunero garbituko dute gunea, eta soroslearen txokoa astean hirutan. Zaintzarik ere ez da falta izango: udaltzainek, maiztasun jakin batean, inguruak zainduko dituzte.

Aurretik, garbiketa lanak

Udako bainu denboraldia zabaldu aurretik, hainbat lan egingo dituzte Usakon bertan. Hango ur zerbitzua nola dagoen begiratu, belarra moztu, eta eguzkitan egoteko gunea eta oinezkoendako bideak txukundu dituzte. Bainulekuan urpeko garbiketa egingo dute, neguan pila-tutako zikinkeria kentzeko.



Hainbat herritar, iazko bainu denboraldi hasieran, Usakon. | GOIENA

DATUA

5
ORDU

Horietan emango dute sorosle zerbitzua Usakon: astelehenetik domekara arte, arratsaldean, 15:00etatik 20:00etara.

Herri mailako arrantza txapelketa ekainaren 8an

M.B. | OÑATI

Pago Uso elkarteak eta Alzu dendak antolatutako herri mailako arrantza txapelketa ekainaren 8an jokatuko dute. Dagoeneko zabalik dute izena emateko epea: interesatuek txapelketa hasi aurreko egunera arte eman dezakete izena Alzu dendan, arratsaldean, 16:00etatik 19:00etara arte. 14 urtera artekoek 5 euro ordaindu beharko dituzte eta 15etik gorakoek, 15 euro.

Parte-hartzaileek baldintza bakarria bete beharko dute: federatu txartela edukitzea.

Amuarrain gehien

Herri mailako arrantza txapelketa 09:00etan hasiko dute Torreazoko San Pedro zubian, Etxe Aundi jatetxearen ondoan. Parte-hartzaileek lau ordu izango dituzte arrantzan egiteko. 13:00etarako amuarrain gehien harrapatzen duenak irabaziko du txapelketa. Berrinketa badago, amuarrain handiena harrapatu duenak irabaziko du.

Sari banaketa ekitaldiaren ondoren, lunch gozoa izango dute guztiek.

Atez ateko bilketa hasteko eskaera Mankomunitateari

Maiatzeko osokoan egin du eskaera Bilduk; EAJK sistemaren "inposizioa" salatu du

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Hondakinak gaika biltzeko atez ateko sistema martxan jartzeko eskatu zion Udalak Mankomunitateko Gobernu Batzordeari eguaztenez egindako osokoan. "Sistema horren hirugarren eta azken fasean sartzeraz goaz Oñatin, eta hori bideratzeko gestioak

hastea eskatzen diogu Mankomunitateari", adierazi zuen Mikel Biain alkateak Bilduren izenean. EAJK kontrako botoa eman zuen. "Udal Gobernuaren gestio txarra eta gardentasun ezaz gain, inposizioa dela ere esan gura dugu. Beste herri batzuetan modulatzeko ari dira

Bilduren aukera, eta hondakin jasotzeko era ezberdinak proposatu dira, baina hemen hasieran erabakitako planteamendua ezarri gura da, sistema horren aurka batu diren sindurak kontuan hartu barik", adierazi zuen alderdi jeltzalearen bozeramaile Lourdes Idoiak.

Gai horren inguruan "herritarrek ilusioz eta aldaketarekin hasteko prest" ikusten dituela adierazi zuen alkateak eta "ilusio" hitza zehazteko eskatu zioten osokora joandako hainbat herritarrek. "Ilusioz baino gehiago, derrigorrean jaso dute

herritarrek materiala", adierazi zuen herritar batek. Ilusio hori nola neurtzen duten ere galdetu zuen beste batek, eta zenbatekoa den jakiteko zergatik ez duten herri galdeketa egiten galdetu zion hirugarren batek. Horren kontrara, beste herritar batek esan zuen hauteskunde programan zetorrela atez ateko sistema eta herritarren gehiengoak aukera horren aldeko botoa eman zuela. Galde erreguetako tarte horretan, tentsioa sortu zen Lourdes Idoia eta Josu Lizarralde zinegotzien artean, eta Idoiak osokoa utzi zuen.

TXALOAK ETA TXISTUAK

Zikinkeria Oñatiko Garibai auzoan

"Zabortegi hau duela 15 egun agertu da Oñatiko Garibai auzoan; zehazki, Mistillubarritik Margolara doan pistaren kontra; behean erreka ikus daiteke", salatu du irakurle batek. Haren esanetan, "dirudenez, zaborrak behar bezala tratatzeko kontzientzia ez da leku guztietara iritsi oraindik".



GOIENA

Bizikleta eta artea, gaztekekuko bi ikastaroetan oinarri

Gaztelekuan bi ikastaro egingo dituzte ekainean eta uztailan: bizikletari buruzkoa bata, eta arteari buruzkoa bestea. *Bizikleta eskola* delako ikastaroa ekainaren 22an egingo dute, sotoan. 12-16 urte artekoendako da eta izena gaztelekuan eman behar da.

Bestalde, uztailaren 1etik 19ra *Arte Udalekuak* egingo dituzte, LHko 6. mailako eta DBHko 1., 2. eta 3. mailako ikasleendako. Izena gaztelekuan eman behar da, hilaren 22a baino lehen.

ESKORIATZA



Joan den urteko aste zapatistaren jaialdian izandako musika emanaldia. | GOIENA

Aste zapatista berrikuntzaz eta ekintzaz beteta hasiko da gaur

Urtero moduan, eskoriatzar guztiendako ekintzak gertatzen saiatu dira

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Beste mundu bat eraikitzea posible dela zabaltzeko aste zapatista antolatu dute gaurtik domekara Eskoriatzan. Aurten herriko beste elkarten laguntza izan du Eskoitzako Talde Zapatistak, eta elkarlanean, egitarau zabala eta erakargarria gertatu dute. Taldeko partaide Ahinara Zubizarretak azaldu digu, besteak beste, gaztelekuarekin, Huheziko ikasleekin eta Luis Ezeizako arduradunekin egin dutela lan.

Horrez gain, gaineratu du, ohiko karteaz gain, aurten, asteen zehar egingo diren mahai inguru eta berbaldien gaineko informazioa duten eskuorriak ere egin dituztela, eskoriatzarrak horietara erakartzeko. Gainera, hainbat berbaldien formatua ere aldatu dute; esaterako, Mexikon aterpe batean dagoen Alejandro

Solalinde apaizak bideokonferentzia bidez hartuko du parte Huhezin egingo den hitzaldian.

Bestalde, aste amaierako jaialdia orain arte zapatuan izan bada

ere, aurten egubakoitzera hainbat ekintza aurreratzea erabaki dute, hala nola, maskara tailerra, igela txapelketa eta tonbola egingo dituzte plazan, 17:00etan.

EKINTZAK, EGUNEZ EGUN

GAUR, HILAK 3

17:00 Plaza apaintzea umeekin.

MARTITZENA, HILAK 4

19:00 Mahai ingurua: *Krisi globala, konponbideak eta aukerak*. Kultura etxean.

EGUAZTENA, HILAK 5

17:30 Haritz Bediak eskainitako

sukaldaritza tailerra. Elixosten.

19:30 Hitzaldia: *Kontsumitzen duzunak erabakitzen du zer nolako mundua nahi duzun*. Kultura etxean.

EGUENA, HILAK 6

18:30 Alejandro Solalindek, Giza Eskubide Saria 2012, bere esperientziaren berri emango du Skype bidez. Huhezin

Aste kulturala egingo dute Luis Ezeizakoek asteen

Zapatuan emango diote amaiera jaialdiarekin

M.B. | ESKORIATZA

Eskoriatzako Luis Ezeiza herriko eskolak aste kulturala egingo du asteen. Egubakoitzera bitartean, irakurketa zaletasuna bultzatzeko, inguruko eskolen arteko komunikazioa indartzeko, jende aurreko aurkezpenetan gaitasunak garatzeko, bizikidetzaz lantzeko edo guraso, ikasle eta irakasleen arteko harremanak indartzeko askotariko ekintzak egingo dituzte.

Gaur, astelehena, liburutegiaren eguna dute, eskulanak, ipuin kontaketa eta liburu zozketen bidez. Bihar, martitzena, lehen ziklokoak Ekainberriko kobazulora doazen bitartean, Haur Hezkuntzakoek tailerrak eta Lehen Hezkuntzakoek antzerki entseguak, abestiak eta filmak izango dituzte. Etzi, goizean, Arrasateko herri eskolakoenda-

ko jaialdia egingo dute Lehen Hezkuntzakoek; eta arratsaldean, gurasoendako emanaldia izango dute ziklo berekoek. Eguenean, hiru hitzordu dituzte: lau eta bost urtekoek Barriako barnetegira irteera egingo dute gaua pasatzera; Lehen Hezkuntzakoek Aretxabaleta herri eskolakoendako jaialdia dute goizean, eta arratsaldean, gurasoendako emanaldia. Egubakoitzean, Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. ziklokoek txangoa dute Donostiara.

Abesti eta logo berriak

Azkenik, zapatuan, eskolaren jaialdia egingo dute plazan; eta horren bueltan, askotariko ekintzak antolatu dituzte egun osoan. Horrez gain, labetik atera berri duten eskolako abestia zein logotipo berriaren aurkezpena egingo dute.

Etzi gaztelekua erakutsiko diete gurasoei

M.B. | ESKORIATZA

Etzi, eguaztana, Eskoriatzako gaztelekuko ateak zabalduko dituzte Lehen Hezkuntzako 6. mailako neska-mutikoen gurasoendako. Hitzordu bikoitza gertatu dute: 18:30ean, euskaraz egingo dute aurkezpena; eta 19:00etan, osteraz, gaztelekuarekin. Gurasoek lekua ezagutzen hasi daitezten eta han antolatzen diren ekintza berezien berri jaso dezaten antolatu du Udalak aurkezpen hori.

Bestalde, dagoeneko kaleratu dute gaztelekuko ekaineko egitaraua: oraingo asteburuan zirko tailerra, hankapalo ikastaroa eta mendi irteera egingo dute; eta ekainean zehar, mahai jokoak, Landara irteera, basket 3x3 txapelketa, eta ping pong eta mahai futbol txapelketa egingo dituzte, besteak beste.

ARETXABALETA

Batukada saioa egingo dute Kurtzebarri eskolako jaian

M.B. | ARETXABALETA

Kurtzebarri eskolako jaia egingo dute zapatuan, hilak 8. Urteroko ekintze gain, aurten batukada saioa gertatzen ari dira irakasle eta gurasoak, eta jaialdian dena ondo irten dadin, entseguen buru-belarri dabilta irakasle eta gurasoak.

Ekintzak 11:00etan hasiko dira etxaleroekin, eta ordu laurden beranduago, hankapalo eta batukadarekin batera, plazatik Iralabarriraino kalejiran *Zazpi jauzi* dantzatzeko joango dira guztiak; handik Gernika Plazaraino *Txu lalai*, eta Herriko plazaino *Bihotzez* ikasi dantzatzu. Ordurako gertu izango dute Gurabarri guraso elkarteak gertatutako hamaitakoa. Indarrak berreskuratu ostean, 13:00etan, *Eguzkiari agurra* ikuskizuna hasiko da; eta hori amaitzean, 14:15ean, Iturigorri pilotalekurantz abia-

tuko dira guztiak, bazkaltzeko. Amaitzean, 15:15ean, gaztelu puzgarriak eta tailerrak izango dituzte umeei eskolako patioan; eta 16:00etan, karaokea.

Haurren Astea

Jaialdiaz gain, Haurren Astea ere izango dute eguenera arte. Gaur, bi urteko ikasleek eskolan entseatutako abesti ezagunak dantzatzeko dituzte gurasoendako; eta bihar, hiru urteko haurren txanda izango da. Etzi, lau urtekoak izango dira dantza eta kantu emanaldia eskainiko dutenak. Eguenean, bos urtekoen eskutik, zirko mundiala helduko da Kurtzebarri.

Egunero bi emanaldi egingo dituzte: eskola orduan ikasleendako; eta 18:00etan, gurasoendako. Horrez gain, eskolako sarreran haurrek azken asteotan egindako eskulanak egongo dira ikusgai.



Gurasoak eta irakasleak, batukada entseguan. | KURTZEBARRI ESKOLA

Osasunaren aldeko mezuak gura dituzte Andramaixetako esaldian

Udalak esaldi lehiaketa deitu du aurten ere

M.B. | ARETXABALETA

Aretxabaletako Udala dagoeneko badabil Andramaixetarako esaldiaren bila, eta horretarako lehiaketa deitu du. Hilaren 29a baino lehen aurkeztu behar dira esaldiak udaletxean edo Arkupen; uztailearen 8an jakinaraziko da irabazlea.

Aurten berrikuntzekin dator lehiaketa. Udaleko Prebentzio-

rako teknikari Myriam Beltran de Herediak gogorazi du orain arte jaiak ondo pasatzea edo euskara bezalako gaiak jorratu badituzte ere, hemendik aurrera osasunaren aldeko mezuak bultzatu gura dituztela. Honakoa adierazi du: "alkohola eta jai artean dagoen lotura apurtzea nahi dugu; edan barik adibidez ondo pasa daitekeela".

Dantza emanaldiak, eskulanen erakusketa eta emakumeen gaineko mahai ingurua daude asteen

Askotariko ekintzak hartuko ditu egunotan Aretxabaletako Arkupek: eguenean izan ezik, gaurtik egubakoitzera, Leizarra musika eskolako dantza emanaldiak daude Zaratia aretoan, 17:00etan. Bestalde, eguenean, emakumea eta kirolari buruzko mahai ingurua egingo dute, 19:00etan, toki berean. Azkenik, erakusketen aretoan, eskulan ikastaroan egindako lanak egongo dira ikusgai hilaren 29a arte, ohiko ordutegian.

ARAMAIO

Uztailaren 10etik 23ra, 98 umek hartuko dute parte aurtengo udalekuetan

Hamar begirale arituko dira lanean goizez, eta hilaren 15ean derrigorrezko formazio saioa egingo dute

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO
2013ko udalekuak uztailaren 10etik 23ra izango dira aurten. Ana Muñoa arduradunaren arabera 98 umek eman dute izena, iaz baino 17 gutxiagok. Iazko udalekurik jendetsuenak izan zirela kontuan hartuta, ez da kopuru makala: "Ez dakit zergatik dauden aurten ume gutxiago, seguruenik guraso bati baino gehiagori ahaztu egingo zitzaion semea edo alaba apuntatzea, edo

ez dira enteratu", esan digu Muñoak. 3 eta 12 urte arteko haurrendako udalekuak dira eta bi astetan zehar denetariko ekintzak egiten dituzte 10:00etatik 13:00etara bitartean.

Egutegia zehaztu, hilaren 15ean
Oraindik ez dute egutegia zehaztu; horretarako Muñoa begiraleekin elkartuko da hilaren 15ean: "Derrigorrezko formazio saio egingo dugu begiraleekin helbu-

ruak finkatu eta egutegia zehazteko". Iazko ekintza arrakastatsuenak izan ziren Otxandioko igerilekuetara egindako irteera, Sanferminetako entzierroa, Pablo Beitiaren txanpon bildumaren erakusketa eta gailera tailerra. Igerilekuetara egiten duten irteera izaten da, zalantza barik, ekintza gustukoena umeendako: "Ea eguraldiak laguntzen digun, bai igerilekuetara joateko eta baita beste ekintzetarako ere".



Haur talde bat begiraleekin batera 'Bañera' parkean, udalekuen aurreko edizio baten. | GOIENA

San Martin jaietarako kartel lehiaketan parte hartzeko azken eguna: egubakoitza

16 urtetik gorakoen mailan, 150 euroko saria jasoko du lan irabazlearen egileak

J.B. | ARAMAIO
San Martin jaiak uztailaren 5etik 8ra izango dira aurten eta Udalak abiatu du dagoeneko jaiak iragartzeko kartel lehiaketa. Aramaio-ko edonork har dezake parte -teknika librea da- eta pertsona bakoitzak bi lan aurkeztu ahal

izango ditu. Honako testua jaso beharko du kartelak derrigorrez: *San Martin Jaiak 2013. Uztailak 5, 6, 7 eta 8.*

Lanak egubakoitza, hilak 7, baino lehen aurkeztu behar dira udaletxean. Bi kategoria bereiztu dituzte aurten ere: 15 urtera

arteakoak eta 16 urtetik gorakoak. Saririk ez da faltako; 15 urtera arteko kategorian irabazleak 60 euroko txartela jasoko du Elkar dendetan trukatzeko eta 16 urtetik gorako kategoriako lan irabazlearen egileak, berriz, 150 euroko saria jasoko du.

ANTZUOLA

Aldi baterako beharretarako kale garbitzaileen lan-poltsa osatuko da

Oposizio bidez egingo da hautaketa eta proba idatzia, praktikoa eta euskarakoa izango ditu

IURE EIZAGIRRE | ANTZUOLA
Antzuolako Udalak kale garbitzaileen lan-poltsa osatzeko prozesua jarri du martxan. Oposizio bidez egingo du langileen aukeraketa eta proposatutako hiru probak gainditzen dituztenek osatuko dute poltsa, prozesuan lortutako puntuazioaren hurrenkeran. Hautaketa gainditzen

dutenean aldi baterako beharrak beteko dituzte eta lanaldi erdiko kontratua izango dute.

Oposizioak hiru proba izango ditu. Idatzizkoan legeriaz eta udal antolakuntzaz, kale garbiketaz, jai eta ekitaldi berezietako garbiketaz, hondakinen bilketa selektiboaz eta lanen arriskuaz galde-tuko zaie, besteak beste.

Bigarren proba euskararena izango da eta hirugarrena, berriz, praktikoa. Proba guztiak izango dira derrigorrezkoak eta baztertzailak.

Baldintzak

Kaleak garbitzeko oposizioak egin nahi dituztenek 16 urte baino gehiago izan beharko dituzte proba egunean, eta derrigorrezkoa izango dute eskola ziurtagiria eta B1 gidabaimena izatea. Horrez gain, euskarako 1. hizkuntza-eskakizuna izan beharko dute.

Lan-poltsa osatzeko hautagaiek ekainaren 19a baino lehen aurkeztu behar dute euren eskaria Udaleko Erregistro Orokorrean.



Iazko epaimahaiko kideak gisatuak dastatzen. | LZ

ELGETA

Gisatu lehiaketarekin batera puzgarria eta argazki lehiaketa aurten

Egun osoko egitaraua prestatu du Udalak ekainaren 8an egingo den Koadrilen Egunerako

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Hurrengo zapatarako antolatu duen gisatu lehiaketan parte hartzera deitu ditu Udalak herriko koadrilak. Mahaiak, eta kazolak Udalak ipiniko ditu, eta prest egongo dira herriko plazan 10:30erako. Une horretatik aurrera parte hartzaileek hiru ordu eta erdiko epea izango dute hamar lagunendako gisatua prestatzeko. Koadrilek 14:00etan aurkeztu beharko dituzte kazolak, eta epaimahaiko kideek bi ezaugarri puntutuko dituzte: zaporea eta itxura. Sari banaketa 14:30ean egingo dute: 75 euro eta garaikurra irabazleendako, 40 euro bigarren sailkatuendako eta 25 euro hirugarren egiten dutenendako.

Ekintzak umeendako ere

Indartuta dator Koadrilen Eguna. Bosgarrena izango da aurtengoa, eta orain arte moduan lehiaketaren osterako herri bazkaria eta erromeria daude antolatuta. Dantzarako giroa, honako honetan, Luhartz taldeak ipiniko du, eta 17:00etatik hasiko dira erromeriarekin.

Berrikuntzei dagokien zehaztutako argazki maratonia nabarmentzen dira. 11:00etan hasiko dira bi ekintzak.

Iluntzerako, berriz, bits festa iragarri du Udalak, hau ere nobedadea Koadrilen Egunean. Plazan egingo dute, 19:00etan hasita. Ondoren jarraitu egingo du erromeriak.

LEINTZ GATZAGA

Presoak bisitatzen dituztenendako laguntzak

Deialdia argitaratuenez, eskariak aurkezteko epea zabalik dago, urte amaierara arte

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko kartzelaren batean senitartekoren bat duten udalerriko familiendako dirulaguntza deialdia egin du Leintz Gatzagako Udalak. Deialdiaren arabera, laguntza eska daiteke presoak bisitatzera joateak eragindako bidaia-gastuak ordaintzeko.

Gastu guztiak aintzat

Joan den egubakoitzean argitaratu zuen Gipuzkoako Buletin Ofizialak deialdia. Horrek esan gura du dagoeneko zabalik dagoela eskaerak aurkezteko epea, abenduaren 10era arte, hain justu. Edozelan ere, eskatutako dirulaguntza onartuz gero, iragarkia argitaratu aurreko gastuak ere kontuan hartuko ditu Udalak dirulaguntzaren

zenbatekoa erabakitzerako orduan. Behin eskaera onartuta, Udalak ordainketa bakar batean emango dio laguntza eskatzaileari.

Guztira, 300 euroko partida du mota honetako laguntzetan banatzeko.

Onuradun bakarra

Hori bai, preso bakoitzeko onuradun bakarrak jaso ahalko ditu dirulaguntzok, honako hauen artekoen batek, hain zuzen ere: presoaren ezkontideak edo izatezko bikoteak; seme-alabak; gurasoak edo anai-arrebak.

Eta kontuan hartu beharreneko beste baldintza bat da eskatzaileek Leintz Gatzagan errolatuta egon behar dutela dirulaguntza eskaera egiten dutenean.

Bazkideentzat abantaila eksklusiboak



Eraman ezazu beti txartela aldean!



Ninika Loradenda

Ramon Maria Lili, 8 - Bergara

- %10 deskontua artikulu guztietan.



Alzu, S.L

Arantzazuko Ama, 2 - Oñati

- Arropetan %10 beherapena.



Naren Fisioterapia Zentroa

Belorrieta 5 behea - Aretxabaleta

- %15 zerbitzu guztietan.



Esko Sport

Intxaurtxueta 5, Eskoriatza

- Arropa eta zapatiletan %10 deskontua.



Jaixak

Barrenkale 10 - Bergara

- %10 deskontua*, 20 eurotik gorako erosketetan.

* Liburutetan izan ezik.



Estacion Servicio Arrasate

San Andres 7 - Arrasate

- % 2 gasolindegian erregeia erositara.
- % 2 dendako produktuetan.



Begiondo Optika

Belorrieta, 11 - Aretxabaleta

- %15 produktu guztietan.
- Kontsulta doan.



Etxe-Aundi Hotela/Jatetxea

Torreazuo Auzoa 10 - Oñati

- %10 deskontua menu berezian (asteburuetakoa) eta kartan.



Gahir Fisioterapia/Osteopatia

Aranburuzabala 6 behea - Eskoriatza

- %50 deskontua lehenengo kontsultan.



Gaes

Otalora 18, Arrasate

Zurradero 10 Bergara

- %10 deskontua*.

* Ez metagarria beste eskaintza batzuekin.



Multiópticas

Juan Carlos Guerra, 1 behea - Arrasate

Ibargarai, 16 Bergara

- %15 deskontua*.

* Ez metagarria beste eskaintza batzuekin.



Arrikruz Kobak

Araotz Auzoa - Oñati

- %10 deskontua sarreran*.

* Topea bost pertsona.



Imprespal, C.B Imprimategia

Komenio 2 - Bergara

- %5 deskontua egiten den edozein lan edo erosketetan.



Kuttuna Estetika

Aranburuzabala 19, behea - Eskoriatza

- %5 deskontua* zerbitzu guztietan.

* Beste promozio batzuk izan ezik



AQUARIUM

Jacques Costeau Plaza 1 - Donostia

- Bi erosi eta bat ordaindu*.

* Sarrera garestiena ordainduko da.



Oñati Garaiea

Goribar Auzoa 9 - Oñati

- %5 beherapena egiten diren konponketetan.



Biotika

Iturriotz 21 - Arrasate


- Hauschka kosmetika etxearen makillaje produktuetan %10 beherapena.



Caravanas Oñate

Odadui Zuhaiztia, 25 - Oñati

- 50€-ko erosketaren egiteagatik, %10 deskontua stockean dauzkaten oinetako eta ehun-gaietan. (ez du balio beste promoziotarako).
- %20-ko deskontua lineako patinetan.



Guztiz Eder

Kalebarria 29

Oñati

- %10eko deskontua Termason tratamenduan 10 saio hartuz gero.
- Drelimpur tratamendua: 10 bono: 100€. Sesioko: 12€.
- %5eko deskontua* argizari epelarekin eta beroarekin egindako depilazioetan.

* Bekainak eta ezpain gainekoa izan ezik.



Lilura Edertze Institutua

Bidekurutzeta 7 - Bergara

- %15 laser depilazioan: hanka osoa + izterondoa (besapekoak opari).
- %20 elikagai intolerantzia proban.
- %10 mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo bekainak.
- %10 fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.



Argia

www.argia.com

- %25eko deskontua ARGIAko harpidetzan Goiena klubeko kide izanda.



Txuri Urdin izotz pista

Anoeta Ibilbidea 24 - Donostia

- Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan*.
- % 20 zapatu eta domekatan**.
- % 10 zubi eta oporraldietan.

* Ez bada jai egun, jai egun bezpera edo oporraldia.

** Ez bada zubia edo oporraldia.



Lastai

Arkatza 1, 49 Pab - Gasteiz

- %5eko deskontu gehigarria helduentzako atsedean arloan.
- %5eko deskontua haur kotxe eta automobileko segurtasun-aulkietan.
- %5eko deskontua sehaska, haur-kotxe eta automobileko segurtasun-aulkietarako denboraldiko ehun-gaietan.
- %10eko deskontua* denboraldiko haur-arropan.

* Beherapenetan eta eskaintza berezietan izan ezik.



Beste abantaila batzuk:

- Astelehenetan eta ostiraletan *Goiena* papera buzoian.
- Deskontuak iragarki sailkatuetan eta eskeletan.



goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

Urteko kuota: 50 €.
943 25 05 05
kluba@goiena.com
goienakluba.com

KIROLA



Ivan Fernandez, irabazlea, helmugan. | IMANOL SORIANO



Martin Berrizbeitia eta Gaizka Romero, taldearen atzealdean. | IMANOL SORIANO



Yeray Varela oñatiarra, eskuman, Kike Sebastian arabarrarekin lehia. | IMANOL SORIANO

XI. HERRI LASTERKETA

Behin ez, zortzi aldiz izan zen lehena helmugan Fernandez

Hasi orduko aurea hartu eta bakarrik egin zituen arabarrak itzuli guztiak

JULEN IRIONDO | OÑATI

Lehenengo postua albo batera utzi, eta ea nor geratzen zen bigarren; bigarren posturako lehia interesgune nagusi izan zuen lasterketa izan zen zapatukoa Oñatin. Izan ere, Ivan Fernandez gasteiztarrek ez zien garaipenerako inongo aukerarik eman kontrarioei. Podiumeko borrokan, bata bestearengandik nahiko gertu ibili ziren, zenbait unez,

David Gartzia eta Yeray Varela, baina, azkenean, durangarra ondo nagusitu zitzaion oñatiarrari.

Lasterketa postetxe parean hasi, eta plazara iritsi orduko luze-luze eginda zioan korrikalari taldea: buruan, Fernandez; gertu, Gartzia; eta apur bat atzerago, Varela, gainerakoei bidea erakusten. Atzeko Kalen gora eta Kale Barrian behera, helmugatik lehen aldiz pasatzerako alde poli-

ta zuen gero irabazle izango zenak bigarrenarekiko, 10-15 metro bai. Bigarren itzulirako 20 segundokoa zen alde hori. Gora eta gora egin zuen diferentziak, azkenean ia bi minutukoa izan arte.

Lehia handiagoa izan zuten, esan bezala, David Gartzia eta Yeray Varela. Bizkaitarrak hasieran ateratako tartea jaten joan zen poliki-poliki etxeko atleta, eta hirugarren aldiz helmu-

gatik pasatzean bertan zuen, bi segundora baino ez.

Ezin izan zuen harrapatu, ordea, eta bien arteko aldeak gora egin zuen. Bigarren postua ezinezko, hirugarrenari eusteko ez zuen arazorik izan.

Hurrengo ediziora begira, Antxintxiketan klubeko Jesus Arregik hauxe zioen: "Nik uste formatu hau ondo dagoela eta apustua, agian, hau izango da".

OÑATIKO XI. HERRI LASTERKETA

1. Ivan Fernandez	29:31
2. David Gartzia	31:14
3. Yeray Varela	31:34
4. Imanol Cruz	31:54
5. Kike Sebastian	32:10
6. J. Antonio Blanco	32:18
7. A. Beranoagirre	32:35
8. Ruben Lanz	32:44
9. Sergio Gartzia	32:45
10. Alberto Alba	32:46
14. Ander Agirre	33:01
15. M. Berrizbeitia	33:06

DAVID GARTZIA
BIGARRENA



"Oso pozik nago. Pentsatzen nuen podiumeko lehia gogorra izango zela. Lehenengo postua ezinezkoa zen, Ivan oso fuerte dagoelako. Giroa, ederra".

YERAY VARELA
HIRUGARRENA



"Gustura. 2. posturako saiatzea nahi nuen, baina David espero baino hobeto egon da; gertu izan dut, baina berriro joan da, eta 3.a ziurtatu nahi izan dut".

SERGIO GARTZIA
OÑATI



"Oso pozik geratu naiz. Amaieran apur bat behera egin dut. Denboraldi honetan pixka bat kostatzen ari zait, baina ea aurrera eginen dudana apurka".

MARTIN BERRIZBEITIA
ARETXABALETA



"Oso gustura nago. Niretako nahikoa zen hona etortzea, deitu zidatenean ilusio handia egin zidan eta, gainera, denbora ona ateratzen zait. Pozik nago".

JESUS ARREGI
ANTOLATZAILA



"Bagenekien Ivan ona zela eta, normalean, irabazi egingo zuela, baina ez genuen uste lehenengo itzulitik aterako zenik hain bizkor. Oso marka ona egin du".



Sergio Gartzia oñatiarra (767), taldetxoan. | IMANOL SORIANO



Yeray Varela, podiumean. | IMANOL SORIANO

IVAN FERNANDEZ | IRABAZLEA

"Oso zaila da 30 minututik jaitea, ze zirkuitu honek bihurtune asko baititu"

Gasteizko 24 urteko mutilak ez zuen hutsik egin zapatuan. Euskal atleta onena da, gaur egun, 10.000koan; 29:29 da bere marka onena, 2009an egina: 2 segundora geratu zen Oñatin eta, pronostikoak betetz, beretzat izan zen XI. Herri Lasterketa.

Zorionak Ivan; pozik, garaipenarekin.

Eskerrik asko. Bai, lehenengo aldia zen Oñatin korrika egiten nuena, eta oso pozik noa, bai garaipenagatik eta baita zegoen giroagatik eta zaleen animoengatik.

Gaur ez zen afrikarrik hemen; akaso ondo etorriko zitzazun bakarren bat egotea, lehia handiago izateko.

Polita da korrikalari guztiak euskaldunak izatea. Baina nahiago nukeen besteren batekin joan izan banintz aurrean lehenengo bospasei kilometroetan. Ezin izan dituzte atleta gehiago ekarri, baina oso pozik nago deitu didatela eta hemen egon izanagatik.

Zure sentsazioak, onak.

Bai, oso onak. Maratoi erdiak egitetik nator eta 10.000ko honek balio izan dit konfiantza hartzeko pistari begira, hilaren 12an Huelvan korrituko dudalako, eta oso ondo topatu dut nire burua.

Marka oso ona da. 30 minutu-

JULEN IRIONDO

tik jaitea ez da erraza.

Bai, bai, oso marka ona da. 30 minututik jaitea oso zaila da, zirkuitua bizkorra delako baina, aldi berean, bihurtune asko dituelako, eta nahikoa gorabehera ere bai; beraz, 30 minututik jaitea beti da marka ona 10.000koan.

Ibilbidea eta publikoa gustatu zaizkizu?

Bai, bai. Egia esan, 10 bat jarriko nieke antolakuntzari eta jendeari. Asko gustatu zait. Ibilbide osoan eman dizkigute animoak.

Itzuliko zara?

Bai, ziur.



AUKERAZKO IBILGAILUAK SALGAI



19.500 €

> Renault Laguna G.T.

2012 | Diesela | 34.200 Km | Gris platinoa

**RENAULT AUTOBERRI**

San andres auzoa 8 • ARRASATE • 943 71 24 72

IBILGAILU INDUSTRIALAREN HILABETEA

• Renault Espace	18.500 €
2011 Diesela 51.860 Km Beige	
• Renault Clio	9.500 €
2010 Diesela 22.500 Km Urdina	
• Ford Mondeo	6.500 €
2006 Diesela 125.460 Km Gris Platinoa	
• Renault Kangoo	10.800 €
2011 Diesela 19.340 Km Txuria	
• Renault Kangoo Furgioa	7.500 €
2011 Diesela 107.000 Km Txuria	
• Renault Megane	13.200 €
2011 Diesela 23.900 Km Gris Platinoa	
• Renault Latitude	18.500 €
2011 Diesela 15.780 Km Txuria	

Ibilgailu industrialetan aukera gehiago!

> CITROEN C3 eHdi EXCLUSIVE 90

- 2013
- Diesela
- 0 Km
- Rubi gorria

CHAPIME

CITROËN
Debagoieneko
kontzesionario ofiziala



15.750 €

San Andres auzoa 5 • ARRASATE • 943 79 45 22

• Citröen C3 1.4i SX	4.300 €
2005 Berunik gabeko gasolina 92.500 Km Urdin argia	
• Citröen C4 Aircross 1.8HDI Exclusive 2WD 150	30.000 €
2012 Diesela 500 Km Marroi iluna	
• Citröen C-Elysée 1.6Hdi Exclusive 90	14.000€
2012 Diesela 2.500 Km Urdin argia	
• Citröen Grand C4 Picasso Hdi EXCLUSIVE 112	21.500 €
2013 Diesela 750 Km Shark Grisa	
• Citröen DS3 eHdi STYLE 90	17.500 €
2013 Diesela 0 Km Shark grisa / Beltza	
• Citröen DS5 Hybrid4 Airdream Sport CMP	35.000 €
2012 Diesel eta elektrikoa 12.200 Km Zuri nakaratua	
• Citröen DS5 Hdi STYLE 160	29.000 €
2013 Diesel eta elektrikoa 200 Km Zuri nakaratua	



Igor Isasi entrenatzailea, jokalariei azalpenak ematen. | IMANOL SORIANO



GUREN AUZMENDI

IGOR ISASI
ENTRENATZAILEA

"Negua izan zen oso gogorra, baina denboraldiko bigarren itzulia ondo egin dugu"

Arrasateko taldea finalera iritsi zen zapatuan Elorrioko jokalarien laguntzarekin. Gustura azaldu zen entrenatzailea taldeak Mojategin erakutsitakoarekin. Urtea motel hasi zuten, baina gero ondo moldatu dira.

Zer moduz aritu zarete zazpinako txapelketan?

Lehenengo hiru partiduetan ondo moldatu gara. Getxoren kontra hasi gara; iazko finalistak izan ziren eta irabazi egin diegu; jokalariek motibazioz jokatu dute. Gero, Uribealdea eta Eibarkoen aurka ere garaipena lortu dugu. Oso ondo, beraz.

Gaurko txapelketarekin amaituko duzue denboraldia. Nola joan da?

Hamabostera, hasieran, nahiko kaskar hasi ginen. Bigarren mailako taldeen kontrako partiduetan lehenengokoak ekarri zizkiguten. Noski, gu baino maila handiagoko kirolariak izan genituen aurrez aurre: Uribealdea, Irun eta Getxokoak. Galtzen hasi ginen eta horrek nahikoa baldintzatu zizkigun norgehiagokak. Gero hasi ginen irabazten, baina negua izan zen oso gogorra. Bigarren itzulia ondo egin dugu, hirugarren; sailkapen orokorrean, azkenean, hamargarren gelditu gara.

Hurrengo denboraldira begira, jokalariek jarraitu egingo dute?

Taldean hitz egin dugu eta, printzipioz, jokari gehienek jarraitu egingo dute. Sarbidek eta Gorriek, adinagatik, utzi egingo dute, gazteei lekua uzteko. Hala ere, taldearen blokeak jarraitu egingo du eta horrek mesede egingo digu. Azkenean, jokari gehienek jarraitzen badute, taldearentzat ona da, denbora luzeagoa dagoelako lan-tzeko eta taldea indartzeko.

ERRUGBIA

Arrasatekoak finalera iritsi ziren zazpinako txapelketan

- ▶ Bera Berak irabazi zuen finala Mojategin, bost entsegu eginda
- ▶ Denetara zortzi talde izan ziren zapatuko errugbi txapelketan

GUREN AUZMENDI | ARRASATE

Zapatu arratsaldean egin zen aurtengo zazpinako errugbi txapelketa. Zortzi talde aritu ziren lehian hamabosgarren edizioan. Arrasatearrak finalera iritsi ziren, baina Bera Beraren aurka galdu egin zuten (5-0).

Zortzi taldek jokatu zuten zapatuko txapelketa: Bera Bera donostiarrek, Bizkaiko selekzioak, Zarautzek, Gaztedi gasteiztarrek, Getxok, Eibarrek, Uribealdeak eta Arrasatek. Etxeko taldeak Elorrioko jokalarien laguntza

izan zuen. Antolatzaileak saiatu arren, aurtengo edizioan Lapurdiko talderik eta neskarik ez da izan Mojategin. Ordizia eta Hernaniko taldeek beste konpromiso batzuk zituzten. Guztira 200 bat lagun bertaratu ziren.

Hasteko, bi multzotan banatu ziren taldeak. Arrasatearrek oso itxura ona eman zuten; nabari zen eroso jokatzeko zebilzala. Iaz finalean izan ziren Getxokoak garaitu egin zituzten eta finalean sartu ziren. Han, Bera Bera talde indartsuaren aurka ez zuten ira-

bazterik izan; bost entsegu egin zituzten donostiarrek (5-0).

Garagardo feriara joan ziren jokalariek txapelketaren ostean, txapelketari bukaera ederra ematera. Sari banaketa han egin zen ilunabarrean. Irabazleez gain, Mondrakoei ere omenaldia egin zieten, 100 urte egitearren.

Denboraldiaren balorazio ona

Txapelketarekin amaitu dute denboraldia Arrasate Rugby Taldekoek. Pozik azaldu dira aurten egindako lanarekin, urte hasiera

oso gogorra izan zela onartu arren. "Gure tamainako taldeei tokatzen zaien postuetan ibili gara", zioen taldeko arduradun batek.

Beste alde batetik, jendartean errugbia zabaltzen jarraituko dutela adierazi dute taldeko kideek. Momentu honetan, 20 ume dituzte hainbat mailatan jokatzeko eta euren asmoa da gaztetxo horiek errugbia egiten jarraitzea. Ibili dira aurten ere han eta hemen umeei kirol hori erakusten eta datorren urtean eutsi egingo diote horri.



Arrasatearrak, jokaldi batean. | I.S.



Bera Bera eta Gaztediren arteko neurketa. | I.S.



Bera Berako jokalaria, eusten. | I.S.



Driblingeko jokariak saria jasotzen zapatuan. | GUREN AUZMENDI

ARETO FUTBOLA

Dribling taldeak irabazi du aurtengo Zaldibarko futbito txapelketa

Ostantzen aurka jokatu zuen finala; 3-2 nagusitu ziren Driblingekoak

GUREN AUZMENDI | ARRASATE
Zapatu arratsaldean, ekainaren 1ean, jokatu ziren aurtengo Zaldibarko futbito txapelketako azken partidua. Ostantzekoen aurka, finala irabazi zuten Driblingekoek;

3-2 nagusitu ziren. Irabazten duten bosgarren aldia da.

Kontrakoa izango zela zirudien arren, ateri egin zuen zapatu arratsaldean Arrasaten. Horrez gain, Zaldibarko areto futboleko txapel-

ketaren bukaera zen eta jendeak ez zuen hori galdu nahi. Jendetza batu zen: jokariak, ezagunak, u-meak... Ezagun zen herrian txapelketak arreta ematen duela.

Hirugarren eta laugarren postuak jokatu ziren lehenengo: aurrez aurre Iriztu eta Lasagabaster. Bertan izan zirenek neurketa parekatua ikusi zuten, erakargarria; bi taldeek izan zituzten irabazteko aukerak. Azkenean, ordea, Lasagabasterrekoak nagusitu ziren; Canasek hiru gol egin zituen.

Ondoren hasi zen finala, 17:30ean; jendea horren zain zegoen. Eta merezi izan zuen partidua. Lehen zatian honddarrea sartu zuen Alberto Matalobosek Driblingeko lehena; horren ondoren, hazi egin zen taldea. Bigarren zatian, Driblin-

gek beste gol bat egin zuen. Baina tentsioak gora egin zuen epaileak Ostantzekoen aldeko penaltia adierazi zuenean. Dezenteko eztabaida piztu zen jokalarien eta bertaratutakoaren artean. Gola sartu egin zuten, gainera (2-1). Gelditzen zen denboran emaitzari buelta ematen saiatu arren, azkenean Driblingekoek garai-pena lortu zuten. Alberto Matalobosek egin zuen azken gola: azkenean, 3 eta 2.

Ondoren, sari-banaketa

Neurketa bukatu eta gero, sariak banatu zituzten antolatzaileek bertan jarritako oholtza batean. Ostantzeko Ruben Caballerori aurtengo golegile onenaren saria eman zioten: 41 gol, denera. Bera izan da, gainera, jokalaririk azpimarragarriena antolakuntzakoan

EMAITZA
DRIBLING
3-2
OSTANTZ

ustez. Driblingeko Aitor Pildaini atezain onenaren saria eman zioten. Eta finaleko jokalaririk onena talde bereko Asier Manso izan zen.

Aurten, 13 taldek parte hartu dute denera: bi taldetan banatuta jokatu zen lehen fasea, liga erregularra. Sonografosok irabazi zuen. Bigarren zatira talde bakoitzeko lehen lauak pasatu ziren. Zapatuko partiduekin bukatu zen aurtengo edizioa.

Antolatzaileek txapelketaren balorazio oso positiboa egin dute. Aurten ere giro ederra sortu da partidaz partida Zaldibarren. Hori esan zuten prestatzen jardun dutenek. Jende gazteari taldeak sortu eta datorren txapelketan parte hartzeko eskatu zioten: "Zenbat eta talde gehiago izan, orduan eta interesgarriagoa egingen da lehiaketa". Bukatzeko, eskerrak eman zizkieten txapelketako parte-hartzaile, laguntzaile eta babesle guztiei.



Ostantz eta Driblingeko jokariak, baloia lortu nahian. | IMANOL SORIANO

MIKEL VIGUERA | ANTOLATZAILEA

"Jende asko hurbildu da Zaldibarrera finalak ikustera eta eguraldi ona egin du"

Zaldibarko futbito txapelketa prestatzen ibili da aurturten ere Mikel Viguera. Urte dezente darama horretan, gainera: antolatzen eta jokari bezala parte hartzen. Herri lehiaketek borondatezko lana ezinbestekoa dutela ondo daki.

Zer moduz joan da aurtengo txapelketa?

Balorazioa oso positiboa da. Aurten talde gutxiago izan dira; horregatik, txapelketa bi zatitan egin dugu. Saritu egin nahi izan ditugu, txapelketa luzeago batekin, parte hartu duten taldeak. Azkenean, oso ondo joan da. Gainera, gaur jende asko hur-



GUREN AUZMENDI

bildu da Zaldibarrera finalak ikustera eta eguraldi ona egin du: gaur behintzat ezin gara kexatu.

Zergatik dauka txapelketa honek horrenbesteko erantzuna?

Nire ustez, herrikoa da, herrian bertan egiten dena. Oso erraza egiten zaio jendeari hona hurbiltzea. Gainera, hainbeste jendekin,

giro polita egoten da. Aprobetxatu nahi dut esateko jende gazteari anima dadila Zaldibarreko txapelketan apuntatzera. Badakigu konpromisoa dela, baina sortzen den giroa oso polita da.

ALBERTO MATALOBOS 'TITO' | JOKALARIA

"Bigarren fase honetan indarra izan dugu eta ona izan da guretzat; orokorrean ondo ibili gara"

Dribling taldeko jokalaria nabarmendu egin dute antolatzaileek; bosgarren aldiz irabazi du taldeak txapelketa eta Matalobosek zapatuan bere taldearekin bi gol egin zituen.

Zer moduzkoa izan da txapelketa Driblingentzat?

Hasieran nahiko txarto ibili ginen; ez genuen ondo asmatzen. Baina bigarren fase honetan indarra izan dugu eta ona izan da guretzat. Orokorrean, hasierako gorabehera horiek izan ezik, ondo ibili gara.

Finalean nola moldatu zarete?



GUREN AUZMENDI

Partida nahiko parekatua izan da; bi taldeak ibili gara hortxe. Zortea eduki dugu gola sartzerakoan eta eusten jakin dugu.

Zaldibarko txapelketa berezia da arrasatear askorentzat.

Bai, bai. Hau herriaren torneo da. Oso polita da: jende mordoia egoten da. Ea urte askoan jarraitzen den

txapelketa honekin.

Bosgarrenez irabazi duzue lehiaketa. Datorren urtean jarraitzeko asmorik bai?

Bai, inolako zalantzarik gabe.



Realzale arrasatearrak, partidua ikusten. | GOIENA

FUTBOLA

Realarekin batera ospatu zuten debagoiendarrek Europarako sailkatu izana

Riazorren oso giro ona topatu zuten, eta Deportivoko zaleen harrera bikaina eta adeitsua azpimarratu dute

X.U./L.K. | ARRASATE

Realak zapatuko partiduan Txapeldunen Ligarako sailkatzeko aukerak zituela jakinda, Coruña-ra joan ziren realzale asko, tartean zenbait debagoiendar ere, Depor-

tivoren eta Realaren arteko partidua ikustera. Horrela bada, taldearekin batera ospatu ahal izan zuten garaipena (0-1) eta Realak Europako onenen kontra jokatu duela.

Riazorreko futbol zelaian "oso giro ona" topatu zuten Ines Aldai arrasatearrak eta berarekin joan ziren beste bost lagunek: "Beldur ginen, Deportivok galtzen bazuen, zaleek gaizki hartuko ote gintuzten; baina ez, azkenean txalotu egin zuten Real", esan digu Aldaik. Gainera, eurak zeuden hotel berean Deportivoko jokalariek zeuden eta haiek agurtzeko aprobetxatu zuten.

Hamar urte eta gero

Hamarkada baten ostean —eta tartean Bigarren Mailara jaitsita— Real Txapeldunen Liga bueltatuko da, BBVA Ligan laugarren sailkatu eta gero. Hor izango da ere Mikel Gonzalez arrasatearra.



Reala, partidu bukaeran, aldageletan, sailkapena ospatzen. | INES ALDAI

SASKIBALOIA

Natra Oñati taldeari eskerrak eman dizkio herriko Udalak

Egubakoitz arratsaldean udaletxean harrera egin zieten egindako denboraldi bikainarengatik

AMAIA TXINTXURRETA | OÑATI

Harrera egin zion herriko Udalak Natra Oñati taldeari egubakoitz arratsaldean. Taldeak egin duen denboraldi bikainarengatik eskerrak emateko harrera izan zen eta ekitaldian izan ziren Natra Oñati taldeko jokalariek eta taldeko arduradunak. Natra enpresako ordezkariek ere bertan izan ziren.

Ikus-entzunezko baten bitartez, Natra Oñatiren historia erre-

pasatu zuten, eta umore giroan egin zuten ekitaldia.

Bukaeran, trofeo bana eman zieten jokalariei eta taldeko argazkia ere atera zuten guztiak pozik.

Jokalariek eta entrenatzaileak esker hitzak izan zituzten Udalarendako eta denboraldi honetan euren alboan izan diren guztiendako, eurengatik ez balitz ez zuketelako lortu izango ailegatu diren lekuraino ailegatzea.



Gorka Judez eta Eneko Blanco alkatearen eskutik trofeoa jasotzen. | IMANOL SORIANO

LASTERKETA

Dagoeneko eman daiteke izena Eskoriatzako Gabez Takarran lasterketan parte hartzeko

M.B./G.A. | ESKORIATZA

Eguaztenean aurkeztu zuten Eskoriatzan gauz egiten den lasterketa eta ekainaren 15ean izango da aurten, 23:00etan hasita.

Berrikuntzak

Berrikuntzak izango dira, gainera, aurtengo lasterketan: ibilbide berria eta gazteendako proba.

Ibilbide berria hauxe izango da: Eskoriatza-Asentzio-Fernando Eskoriatza plaza-Atxorrotz-Leixargarate-Mando Bidea-Fernando Eskoriatza plaza. 23,20 kilometro ditu, eta igoera

zein jaitsiera metatuak 1.200 metrokoak. Era berean, lehen aldiz gazteendako lasterketa egingo dute. Egun berean izango da, ekainaren 15ean, baina helduena hasi baino 10 minutu lehenago. Gazteen probak 9 kilometro izango ditu.

Eman izena

Proban parte hartu nahi dutenek www.herrikrosa.com atarian eman beharko dute izena; gazteen edo helduen lasterketan parte hartuko duten zehaztuta. Gehienez ere, 300 korrikalari onartuko dituzte helduen proban.



Iñurrategi, Azkorbebeitia, Aliende eta Uribetxebarria. | GUREN AUZMENDI

BORROKA ARTEAK

Borroka Arteen Eguna ospatuko dute hilaren 15ean Arrasaten

Uarkape pilotalekuan ospatuko dute Borroka Arteen Eguna, Arrasaten. Hilaren 15ean izango da, 09:00etatik 13:00etara bitartean. Haur eta helduei zuzendutako doako ikastaroa eskainiko du Jose Manuel Matas irakasleak eta janzkera erosoa eramatea gomendatzen dute ekitaldiaren antolatzaileek.

MENDIZALEAK

Besaidek antolatutako hurrengo irteerarako izenematea

Besaide elkarteak antolatu du hurrengo irteera. Pirinioetara —Val d'Echo— egingo dute irteera eta bertara joateko izena emateko epea gaur, astelehena, amaituko da. Beraz, irteera hori egin nahi duten mendizaleek ahalik eta azkarren eman beharko dute izena Besaideko egoitzan 19:30etik 20:30era.

MENDI LASTERKETA

Lukene Igartua | Mendi lasterketetako korrikalaria

"Harritu egin ninduen ikusteak zenbat jende zegoen han goian guri animoak ematen"

- ▶ Korrikalari oñatiarra izan zen Zegama-Aizkorri bukatu zuen ibarreko emakume bakarra
- ▶ Mendiko lasterketekin dabil aspaldian, baina Behobia eta Arrasate-Oñati ere egiten ditu

GUREN AUZMENDI | OÑATI

Lukene Igartua oñatiarra izan zen aurtengo Zegama-Aizkorri mendi-maratoia bukatu zuen debagoieneko emakume bakarra. Irakaslea da Igartua ogibidez, ama eta korrikan mendiko lasterketetan dabil aspaldian. Betidanik izan da kirolaria.

Zer moduz moldatu zinen aurreko domekako lasterketan?

Nire beldur bakarra zen Zegama garaiz iritsiko ote nintzen, denbora-muga bat badagoelako helmugan. Eta kontrol-puntuekin ere kezka hori neukan; gainera, tarteko kontrolak askoz ere estuago daude, hasierakoak batez ere. Herritik gora abiatutakoan, zalan-tza horiek nituen buruan, baina nire erritmoa hartu eta aurrera egin nuen. Hasierako zati horretatik aurrera, gainera, nire buruarekin ondo sentitu nintzen. Banekien horrela jarraituta helmugan sartzea lortu nezakeela eta horrela iritsi nintzen. Bukatutakoan, momentuan bertan, whatsapp bidez animo mordoa eta lasterketako argazkiak ere jaso nituen eta oso polita izan zen. Gerora, ondo errekupeatu dut; eta aurreko astean korrika apur bat egitera irten nintzen arazorik gabe.

Zegama-Aizkorri aurtengo lehenengo aldiz egin duzu. Nolako iruditu zaizu?

Aurretik eginda neukan mendi-maratoi bat, Anetokoa, eta gogoan nuen Aizkorrikoan parte hartzeko. Senarra ere mendi-lasterketetan ibiltzen da eta hark esan zidan Aizkorrikoa ezberdina zela, zailagoa. Hangoak ere 42 kilometro ditu, baina ez da tontorrera igotzen. Zegamako gogorragoa da: desnibela, ibilbidea bera... Egitea erabaki nuenean kontuan izan nuen hori. Aizkorriko proban, paisaiatz gain, gertuko jendearen babesa izan da garrantzitsua. Ni, lasterketaren bukaera aldean



Lukene Igartua, Aizkorriko aldapan gora. | LUKENE IGARTUA

joan nintzen eta uste nuen ikusle gehienak joanda egongo zirela. Gorantz nindoala, ordea, harrituta ikusten nuen artean zenbat jende zegoen guri animoak ematen; ez Otzaurten bakarrik, Aizkorriko aldapan ere bai. Eguraldia ere ona zegoen eta disfrutatzeke gogoan zeukaten ikusleek.

Aloñako igoeran ere ikusi zaitugu behin baino gehiagotan. Aizkorrikoa ezberdina izango da.

Bai, distantziarena hortxe dago: Aloñakoa baino ia hiru bider luzeagoa da. Gainera, Zegamako nazioarte-mailako lasterketa da; domekan maila ikaragarriko kirolarien ondoan korrika egite-

ko aukera izan nuen. Onenekin. Teknikoagoa ere bada: harria gehiago dago eta harkaitzetan tarte luzeagoak ditu. Baina niretzat antzekotasunak ere badituzte. Batez ere jendeak ematen duen erantzuna. Aloñako igoeran egoten den giro hori, jendea eten gabe animatzen... Hemen mendi-lasterketetarako zaletasun han-

dia dago eta horrelako egunetan ikusi egiten da. Ez bakarrik ikusleek ondo pasatzen dutelako; korrikalariontzat ere garrantzitsua da.

Mendi-lasterketetarako zaletasuna, nondik datorkizu?

Beti izan gara gu kirolariak: bateko mendian, besteko eskalaten... Korrika ere betidanik egin dugu errepidean nahikoa. Mendiko lasterketekin nire senarra hasi zen lehenengo. Nik orkatilak ahulak ditut eta uste nuen ez nuela balio horretarako. Baina bera korrika mendian ikusi eta saiatzera erabaki nuen. Behin probatuta, konfiantza hartu eta hortxe jarraitzen dut. Orain, urtean bi lasterketa bakarrik egiten ditut errepidean: Behobia-Donostia eta Arrasate-Oñati.

Nola prestatzen dituzu mendiko probak?

Mendiko probek intentsitate handiagoa eskatzen dute eta nekatu behin baino gehiagotan egiten gara. Beherakoan errekupeatu egin behar da, gero berriro igotzeko. Errepidean martxa hartzen duzu eta bazoaz. Horregatik, lasterka egiten entrenatzen naiz, baina lauak ez diren ibilbideak hartuta. Horretarako ez dugu Oñatin batere arazorik; etxetik irten besterik ez dut egin behar: Aurreko Mendia, Murgia... Uda-berriko arratsaldetan Urriagaindik Aloña aldera igotzea ikaragarria da niretzat.

Umeak zaindu, klaseak eman eta kirola egin. Nola moldatzen zara?

Gustatu egin behar zaizu, bestela ezinezkoa da. Nire kasuan, senarrarekin konpontzen naiz kirola egiteko: ni entrenatzera banoa, bera etxean. Eta familiak ere laguntzen digu batzutan, biok batera parte hartzen badugu. Eta, beti eduki behar duzu argi non zauden; nik ezin diot kirolari nahi beste denbora eskaini.

Bi urte inguru daramazue Abixaran taldearekin. Nolako balorazioa egiten duzu?

Uste dut emakume korrikalarioi asko eman digula Oñatin. Eta hori izan da Abixaranek ez digulako ezer eskatu. Partaide bakoitzak pentsatu du, momentu bakoitzean, zer eta nola eman. Gure artean teknologia berrien bidez komunikatzen gara; lasterketa bat bada, elkarri animoak eman; entrenatzeko asmoa badu batek, berarekin batera norbait animatzen ote den galdetu... Aurreko domekan, esaterako, lasterketaren aurretik eta ostean animatzeko mezu mordoa bidali zidaten. Eskertu egiten duzu hori.

"Tarteko kontrolak askoz ere estuago daude, hasierakoak batez ere"

"Paisaiatz gain, gertuko jendearen babesa izan da garrantzitsua"



Korrikalari oñatiarra, etxeko egongelan. | GUREN ZUMALDE

"Eguraldia ere ona zegoen eta disfrutatzeke gogoan zeukaten ikusleek"

"Hemen mendi lasterketetarako zaletasun handia dago"

Flexi Schooling: Britainia Handitik datorren hezkuntza proposamen berria

Badira seme-alabak etxean hezteko erabakia hartzen duten gurasoak

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Madalen Goiria EHUko doktorea eta *La opción de educar en casa* blogaren egilea da. Etxean hezteak zer egoera juridiko duen aztertu du doktore-tesi batean, eta horrekin lotuta seme-alabak etxean hezteko hautua egiten duten familien motibazioak zeintzuk diren analizatu du. Legeek arautzen ez duten errealitate baten aurrean gaudela azaldu du Goiriak, eta lege-aitorpen falta hori gainditzeko irtenbideak ere proposatu ditu: Flexi Schooling formulari arreta berezia eskaini dio.



Umea etxean ikasten. | ALAIN BACHELIER

Flexi schooling

Britainia Handian sortutako proposamena da Flexi Schooling edo denbora partzialeko heziketa, eta seme-alabak ikastetxera bidaltzen dituztenei nahiz etxean hezten dituztenei zuzendua dago. "Britainia Handian, hezkuntza-sistemaren barnean denbora partzialean eskolaratzeko aukera ematen dute ikastetxe batzuk, beste batzuk haurtzaindegi-zerbitzua edo esko-

laz kanpoko zenbait jardura eskaintzen dituzten bezala", azaldu du Goiriak. Hala, ikasleek gainerako ikaskideekin batera ikastetxean jasotzen dute heziketaren parte bat, eta etxean osatu egiten dute. Goiriak onartzen du denbora partzialeko eskolaratzea ezartzeko sistema aldatu beharko litzatekeela, "baina aldaketa hori ez litzateke izango erabatekoa".

Seme-alabak etxean hezteko aukera egiten duten familien profila ere aldatzen doala azaldu du Goiriak. Erabaki hori hartzeko motibazioen artean daude: hezkuntza-sistemak haien beharrei erantzuten ez dielako, seme-alabek eskola-porrota edo *bullying*-a jasan dutelako, edo kultura desberdintasuna medio egokitu ez direlako.

Nork ez luke haur izan nahiko horrelako museo batean esperimendatzeko?

Itsaso Pagoagak Quebecoko Children's Museum-en bideo bat gomendatu digu

L.Z. | ARRASATE

"Oraingo honetan ez nator hausnarketa edo baliabideen inguruan zerbaiteko intentzioz", adierazi du Itsaso Pagoaga kolaboratzaileak *Guraso.com* atarian egindako azken sarreran. "Oparitxo batekin nator", azaldu du, eta Quebecen dagoen Children's Museum haur parkearen bideo baten lotura eskaintzen digu. "Egin hegan jolaserako, sormenerako, fantasiarako eta dibertimendurako museo honetara", gonbidatzen du.



Jolasean. | CHILDREN'S MUSEUM

Children's Museum

Akaso, urrutiegi geratzen zaigu Quebec, baina, bideoaren bitartez, Pagoagarendako eredugarria den haurrendako parkea ezagut dezakegu. 14 urtera arteko haurrak eta haien gurasoak hartzen dituen hiru mila metro koadro-

ko parkea da, eta irabazi asmorik gabeko erakundea. Haur guztien potentzian sinesten dute, irudimenaren indarrean, eta defendatzen dute esperimendazioa dela ikasteko bide naturala. Merezki du bideoa ikustea!

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**



guraso.com

ARIZMENDIREN TXOKOA

Petrolioaren hiritik eguzkiarenera

Gartzen Undagoitia

Eraikuntzako ingeniaria eta irakaslea

Azkenik, gorabehera ugariren ondoren, hasi dira Kingdom dorrea eraikitzen Yida hirian, Saudi Arabian. Dorre honekin kilometrora heldu dira. Hasiera baten 1.600 metrora ino proiektatu zuten, baina kalkuluak egin ondoren konturatu dira lurzorua ez duela eusteko gaitasunik.

2018. urterako bukatzea espero dute. 200 solairu izango ditu, eta 157. solairuan munduko behatoki handiena jarriko diote. Barruan segundoko hamar metroko abiadura hartzeko gai diren 59 igogailu ipiniko dituzte, baita 12 eskailera mekaniko ere. Bulegoak, luxuzko apartamentuak, duplexak eta Four Seasons hotelaren suite garestiak hartuko ditu eraikinak. Proiektuak mila milioi euroko kostua izango du, eta inguruan finantza-hiria hutsetik sortzeko beste hogeita mila milioi euro beharko dira.


Dorrearen ur hornidura 25 urterako kontratatu dute ur hornitzaile nazionalarekin: 156.000 metro kubo ur eguneko. Bai, Saudi Arabiar buruz ari gara, eta marketineko departamentuak dio dorre *ekologikoa* dela fatxadak oso ongi isolatzen duelako tenperatura. Baina hitzik ere ez materialei, birziklapenari, hondakinei, karbono dioxido emisioei edo energia kontsumoari buruz.

Bada, ordea, guztiz desberdina den beste proiektu bat: Arabiar Emirerri Batuetan, Abu Dhabitik 17 kilometrora dagoen Masdar hiria. Bertan, eraginkortasun energetikoaren eta jasagarritasunaren aldeko apustua egin dute, izan ere, karbono dioxidoan zero emisioeko hiria izango da.

Energiaren ekoizpenak betikoen esku jarraituko du?

Ia bere osotasunean eguzkiaren energiarekin hornituko den hiri bat sortu gura dute. Bertan, ez da autorik sartuko: hiriaren azpian ibilgailu elektrikoaren sare bat egongo da. Kaleetan inguruko tenperatura baino 20º freskoagoa biziko dira. Horretarako, haizezko dorre bat izango dute, eta urarekin hoztuko dute airea. Gainera, kontsumituko duten uraren %80 birziklatu egingo dute. Hiria 50.000 lagunendako diseinatu dute, eta arabiar estiloko itxura izango du; gehienez 40 metroko eraikinekin.

Badirudi badela itzaropenerako tarte: petrolioaren jabeak negozioa birziklatzen hasi direla dirudi. Baina proiektuak susmo arraroak ere eragiten ditu. Hala, proiektu munduko kutsatzailer handien eskuetan egoteak... Petrolio agortzeaz dagoela argi dago, eta *petrodollar* usaina duen Masdar hiriak zerk bultzatzen du? Energiaren ekoizpenak betikoen eskuetan jarraitzeko itxura ez ote du honek guztiak?



Masdar hiriaren maketa bat. | ARIZMENDI IKASTOLA

Edengo paradisuatik Babelgo dorrera

Saudi Arabian, Itsaso Gorriaren ertzean —Meka eta Medinarako atean— hasi dira Babelgo dorrea eraikitzen: Kingdom dorrea. Kilometro bateko altuera izango du, eta mila milioi euroko aurrekontua. Baina ez da hori guztia, 20.000 milioi euro kostako den finantza-hiria izango du habia txori itzel honek. Bertatik asko urrundu gabe beste hiri bat altxatzen ari dira Arabiar Emirerri Batuetan, Abu Dhabitik gertu: Masdar hiri ekologikoa, hain zuzen ere, puntako teknologiarekin eta antzeko aurrekontuarekin. Ez du ingurugiroan inolako inpakturik eragingo, esaten dutenez.

Testuak osorik irakurtzeko eta erantzuteko: **arizmendi.eu**

AGORROSIN

OSTALARITZA



Boni Laskurain 21
BERGARA
943 77 70 30



- Eguneko menua astelehenetik ostiralera 9 €.
- Asteburuko menua 15 €.
- Bazkariak eta afariak, ostiraletan, larunbatetan eta igandeetan. (Jaiegunetan ere bai).
- Plater konbinatuak: ostiral gauetan > 2 Eskatu, 1 Ordaindu.
- Gosariak, ogitartekoak, pintxoak.
- Bazkari eta afariak terrazan emateko aukera.



Iturrieta sagardotegia

Arraga auzoa / ARAMAIO
945 44 53 85 / 685 72 15 93
iturrietasagardotegia.blogspot.com

Eskaintza

- Egubakoitzetik domekara irekita. Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 90 lagunendako lekua, eserita edo zutik.
- Bertako sagardoa ekologikoa Eusko Labelarekin.
- Sagardotegiko menua (txuletoi edo saiheskiarekin)
- Giro aparta zuzeneko musikarekin.



Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 35. / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55 / www.restaurantelasa.es

Eskaintza

- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Astearte, asteazken eta ostegun gauetan 16:00ak baino lehen eskatuz gero zabalik (6 pertsona min).
- Menu bereziak asteartetik ostiralera (eguardietan).
- Kongresuetarako aretoa eta parking-a.

Gipuzkoako bankete-jatetxerik onenaren saria Mas Gastronomía 2009.



Santa Ana Hotela

Uribarri auzoa 37 (Udalara bidean) / ARRASATE
943 79 49 39
www.santaanamondragon.com

Eskaintza

- Familiako bazkariak eta kinto bazkariak dantzaldiarekin.
- 100 personarentzako jangela, menu berezia eta karta.
- Terraza eta jangela: ogitartekoak, etxeko hanburesak eta plater konbinatuak.
- Kafe eta pasten catering-a, era askotariko tortillak eta pintxoak.



Wok Sheng Xing Yuan

Mugarrieta industrialdea 10, C-B pab. / San Andres auzoa
ARRASATE
943 79 90 29 / 629 41 59 58

Eskaintza

- Itsaski-janak.
- Frijituak.
- Plantxa.
- Sushia.
- Parrilladak.
- Menua, postrea barne.

10 menu hartuta, 1 DOAN.

KULTURA



Arrasateko Garaia Berrikuntza Guneko taberna-jatetxean egin zuten egubakoitzean azkenekoa. | IMANOL SORIANO



Txertubi bikoteak parte hartu zuen Elgetako Espaloian apirilean. | LARRAITZ ZEBERIO



Bergaran, Zabalotegin egiten dituzte Herrixa Dantza saioak. | JON BEREZIBAR



Anelkar elkartearen elkartasun festan ere egin zuten dantza saioa. | ANELKAR

Herrixa Dantzan oporretara doa

Hileroko dantza saioak datorren ikasturtera arte amaitu diren arren, udan ere egingo dituzte gehiago

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE
Dantza tradizional ludikoak ezaugaraztea eta horiek praktikatzen gozatzea helburu duen Herrixa Dantzan ekimenaren ikasturtea bukatu da. Asteburuan egin dituzte azkeneko saioak, Arrasaten eta Bergaran.

Patxi Monterok gidatutako saioek datorren ikasturtean jarraituko dute. Orain arte moduan, Arrasaten, Elgetan, Bergaran eta Eskoriatzan izango dira saio finakoak; baina azken hiru horietako funtzionamendua aldatu egingo dute, eta aurrerantzean, txandakako saioak egingo dituzte.

Lau adar finko

Lau adar finko ditu Debagoiengan, nahiz eta beste herrietan ere egin izan dituzten saio solteak. Monteroren esanetan, baina, guztien ama Elgeta da: "Nire etxea da eta baita Herrixa Dantza saioen abiapuntua ere. Espaloian izan zen haurdunaldia eta baita jaio-tza ere; esperimintatzeko tokia ere bada niretako Espaloia".

Arrasaten laugarren ikasturtea amaitu dute. Garaia Berrikuntza Guneko Garaia taberna-jatetxea dute dantza-toki. Erdigunetik aldentuta badago ere, toki aproposa dela dio Monterok, leku zabala eta taberna izatearen abantailarekin.

Bergaran, berriz, Zabalotegi aretoan elkartzen dira. Perfektua izateko taberna falta zaiola dioen arren, aretoaren tamaina eta akustika nabarmendu ditu.

Eskoriatzan, oster, HUHEZIKO kaperan egin izan dituzte, nahiz eta etorkizunean Zaldibar antzokian egin gura dituzten.

Antzekoak, baina berdinak, ez Antzerakoak dira, orokorrean, herrikako taldeen ezaugarriak: batez beste, 20 eta 40 lagun arteko taldeak dira; gehienak helduak eta emakumeak, Elgetan eta Bergaran bereziki, haurrak ere izaten diren arren.

Hala ere, herri bakoitzak bere berezitasunak dituela dio Monterok eta horregatik, menu oro-

korra bera den arren, plater zehatz ezberdinak eskaintzen dituela herriz herri: "Arrasaten parte hartzen duten asko ikasle ditut, baina ez guztiak; deigarria da, era berean, gehienak 60 urtetik gorakoak direla; jolasteko dantza dituzte bereziki Arrasaten gustuko, kontradantzak eta bikoteka direnak". Bergarako taldeak, oster, gauza konplexuagoak egiteko abilezia duela dio eta estilo guztietakoak dituztela gustuko. Eskoriatzan zaletasuna sortzen dabilela esan du eta sarritan hurbiltzen direla kide berriak, "jauzietan eta dantza soltean nekez jarduten dute eta korruan, sokan zein kontradantzetan ibiltzen dira gusturen", dio Monterok.

Orokorrean, guztietan ikusle zein dantzarien artean giro gozoa izaten da, baina Elgetakoa berezia dela dio, lekuaren ezaugarri eta kideen aniztasunagatik. Denetik dantzatzan dute eta kontradantzak gustatzen zaizkie bereziki. Zuzeneko musikarekin egin izan dituzte saioak Espaloian.

PATXI MONTERO | HERRIXA DANTZAN-EKO GIDARIA

"Irekiak eta doakoak izaten jarraituko dute, baina berrikuntzak izango dira"

Patxi Montero da Herrixa Dantza ekimeneko arima. Saio irekiak gidatzeaz gainera, dantza eskolak ere ematen ditu Debagoiengan.

Amaitu duzue ikasturtea. Gustura?

Pozik nago, bai. Soka dagoen bitartean jarraituko dugu, zaleztasuna badago-eta. Datorren urterako asmoak finkatzen ditugunean *herrixadantza.com* helbidean izango dituzue.

Herriarrek dantza gozatzea izan duzu hasieratik helburu.

Bai, eta izpiritu bera du oraindik ere, ni neu aldatzen noan eran, detaileak ezberdinak badira ere.



GOIENA

Datorren urtean berrituta etorriko da Herrixa Dantza.

Irekiak eta doakoak izaten jarraituko dute, baina herri batzuetako maiztasuna aldatu egingo dugu. Arrasaten hileroko egingo ditugu eta Elgeta, Bergara eta Eskoriatzak txandakatuaz joango gara. Aurrerantzean, gainera, Elgetako saioak beti zuzeneko musikarekin izango dira.

Zu zeu aurpegia bazara ere, atzean baduzu babesa.

Espaloikoekin beti izan dut gertuko harremana; udalak ere hor daude eta baita Garaikoak ere.



Morau bakarlarria gitarrarekin kantu intimistak abesten, Bergarako gaztetxean. | IMANOL SORIANO

KRONIKA

Giro intimo eta gozoko emanaldiak

AMAIA TXINTXURRETA | BERGARA

Egubakoitza, gaueko 22:45. Bergarako gaztetxea kandelen suen argi-ilunean. Jendea mahaien inguruko aulkietan esertzen, tragoa eskuetan.

Morau, Bergarako gaztetxe barruko agertoki gainean. Gitarra hartu, ur trago bat edan eta mikrofono aurrean jarri zen. Gitarraren lehen akordeen ostean, *Inork ezingo du egia ukatu* hitze-kin hasi zuen lehenengo abestia. Desamodio kantuak etorri ziren ondoren, nostalgiazkoak gero. Kantu intimistekin publikoa bereganatzea lortu zuen Morau bakarlariak. Emanaldia aurrera

Egubakoitzak Kartzelan-eko azkenak

Egubakoitz gaueko emanaldiekin eman zioten bukaera aurtengo Egubakoitzak Kartzelan egitasmoari. *Bi bala* emanaldiarekin eman zioten hasiera laugarren urtez antolatzen den egitasmoari eta antolatzaileek balorazio positiboa egin dute. Ekaitz Aranberri antolatzaile taldekoaren esanetan, hilabete zehar geroz eta jende gehiago joan da kontzertuetara; bai adinez zaharragoak eta baita gazteagoak ere. Agertokian, bakarlariez gain, literatura musikatu eta musikari rockeroagoak ere izan dira, Euskal Herrian izena dutenak eta baita estatu mailakoak ere. Eta lehenengo eta azkenengo kontzertua izan ezik, beste guztiak gaztetxe kanpoko aldeko agertokian eman dituzte, eguraldiak lagundu duelako. Bergaran egitasmoak "bere izena irabazi" duela ere gaineratu zigun Aranberri eta dagoeneko egubakoitzetako "plana" bihurtu dela ere esan zigun.

joan ahala, geroz eta txalo gehiago jaso zituen Morau artistak, eta amaitzeko, errezitaldi moduko bat egin zuen. Agertokitik irteten eta publikoak beste bi abesti eskatu ostean, Morau taulara igo zen berriro eta azken kantuak jendearen laguntzaz abestu zituen.

Aguxtin Alkhat musikagile-kantaria igo zen ondoren agertokira. Emanaldi ezohikoa egin zuen: gitarra elektrikoaz, akustikoaz eta armonikarekin. Bere alaba amaren tripan zegoeneko kantu bat eskaini zuen, itsu gelditezotan den bere ikasle bati buruzko beste abesti bat ere jo zuen, iheslarien inguruko besteren bat ere izan zen eta Oihane Errazkin bere buruaz beste egin zuen presoari eskainitako kanta bat ere abestu zuen musikagile heletarrak bere ahots hauskor baina beti trinkoarekin. Aguxtin

FITXA

MUSIKA

MORAU ETA AGUXTIN ALKHAT**Estiloa:** Popa, indie folka eta folk rocka.**Non:** Bergarako gaztetxe barruko agertokian.**Eguna:** Egubakoitza, maiatzak 31.**Iraupena:** 1 ordu eta 45 minutu.

Alkhatek ere lortu zuen gaztetxe publiko bereganatzea. Guztira, 100 lagun inguru txaloka. Bere emanaldia amaitutzat joenez, jendeak gehiago jotzeko eskatu eta beste hiru kantu abestu ostean amaitu zen kontzertua. Eta horrekin bukatu zen baita ere aurtengo Egubakoitzak Kartzelan egitasmoa, egubakoitzeko gaueko 00:30ak inguruan.

Erraldoien umeen taldea handituz doa pixkanaka Bergaran

Domekan herriko txikitxoek erraldoien mundura gehiago gerturatzeko aukera izan zuten Zabalotegiko pilotalekuan. Izan ere, erraldoien familia handituz doa eta horrekin batera, Bergarako Erraldoi Taldeak umeen taldea ere osatu nahi du. Umeak gustura ibili ziren San Martzialerako dantzak ikasten.



Domekako txikiteoa kantuan egin zuten askok atzo Elgetan

- ▶ Elgeta Kantuan ekimenaren hirugarren edizioa izan zen atzokoa
- ▶ Abeslariekin batera, soinujolea eta pandeojolea ere tabernaz taberna

AITZIBER ARANBURUZABALA | ELGETA
Domeka eguerdiko txikiteoa kantuan egin zuten atzo Elgetan. Udalak herriko abesbatzaren laguntzarekin eta herritarren ezinbesteko partaidetzarekin abiatutako Elgeta Kantuan ekimenaren hirugarren edizioak 40 lagun batu zituen, herrikoak gehienak, nahiz eta herrian izan ziren Jaunartzeak zirela-eta, kanpotik etorritakoak ere baziren.

Eguerdiko 13:00etan abiatu ziren plazatik, Jose Gardoki Aramaioko soinujolea eta Beñat Leanizbarrutia panderojolearekin. Herriko bost tabernatan geldituen eginda kantatu zituzten hiruna abesti bakoitzean; eta batetik besterako bidea kalejiran eginez, 14:30 inguruan heldu ziren helmugara, Espaloira. Eguraldiak erakutsitako aurpegi tristea alaitzea lortu zuten, bada, atzo Elgetan, euskal kantu ezagunekin osatutako errepertorioaz.

Ohitura berreskuratzeko nahia
Jose Antonio Retolazari, herriko abesbatzako zuzendariari egoki-



Elgeta Kantuan ekimenaren tabenaz taberna abesten jardun zuten herritarrek. | JOSETXO ARANTZABAL


tu zitzaion atzo ere batutako ahotsak gidatzea, eta gustura asko egin zuen lan hori, kanturako zaletasuna berpiztea du-eta helburu *Elgeta Kantuan* ekimenak: "Euskal Herrian sasoi baten ohikoa zen edozein toki eta unetan kantuan jardutea, are gehiago

txikiteoan; aspaldian ohitura galduta dagoela-eta, Udalak ekimena martxan jartzeko proposamena egin zigunean, segituan eman genuen baiezkoa. Ea bada afizioa aurrera ekartzen dugun, hori da gure asmoa eta baita gazte askorendako ezezagunak

diren euskal kantu kutunak berreskuratzeko, etorkizunean ez daitezela galdu", dio Retolazak.

Patxi Basauri, Udaleko Turismo zinegotzia ere han zen atzo kantuan eta baita zerbitzari lanean ere, taberna bakoitzean sartu orduko, abeslari guztien ezta-

JOSE ANTONIO RETOLAZA
KORUKO ZUZENDARIA



"Ondo joan da gaurkoa ere, baina kantu batzuetan igarri da asko ez direla entseguetara etortzen. Gaurko zerrenda ere euskal kantu ezagunekin osatu dugu".

JOSE GARDOKI
SOINUJOLEA



"Patxi Basaurik proposatu zidan kantu ekimenean parte hartzeko. Irailean izan nintzen eta hemen naiz berriz ere. Ondo abestu dutela esatea tokatzen zait [barre]".

MIRARI LARRAÑAGA
HERRITARRA



"Koadrilan ohitura dugu kantuan egiteko. Gaur ere gustura ibili gara. Herriko ekintza bat da eta, horregatik, aurrekoetan moduan, hurrengoan ere etorriko gara".

Bizitzaren gaineko ikuspegiaz, komedia gazi-goza barregarria

A. ARANBURUZABALA | OÑATI
Tanttaka antzerki taldeko Niko Lizeaga eta Ramon Agirrek *Bejondaigula* antzerkia ekarri zuten egubakoitzean, Oñatiko Santa Ana antzokira. Aretoa bete ez zen arren, bertaratutako ikusleek gustura jarraitu zuten, bi aktoreen azalean sartuta, Lizeagak eta Agirre, bizitzaren ikuspegiaren gainean egindako komedia gazi-goza barregarria.

Aktoreen belarrietara ere heldu ziren entzuleen barre algarak: "Gustura barrezka entzun ditugu; bazegoen bat bereziki izugarritzko barre-atakeak zituena", zioen Ramon Agirrek. Gustura zen Agirre, Debagoienean lehenengo aldiz egindako *Bejondaigula*-ren emaldiarekin eta baita jesarleketan batutako zale kopuruarekin ere. Gustura ziren, era berean, jesarleketan zeuden ikusleak

ere: "Denbora baterako nahikoa barre egin dugu", edo "oso atsegina eta erritmo handikoa izan da, sekulako gorputz espresio aberatsa dute, eta nahiz eta gai potoloen gainean jardun, samur barre egitera bultzatzen zaitu". Horiek izan ziren, besteak beste, ikusleengandik jasotako iritziak. Saioa amaituta, ikusleek oparitutako txalo zaparradek bermatu zuten egindako lan ona.

Umorezko hausnarketa serioa

Antzezlanak barrerako aitzakia asko ematen baditu ere, istorioaren mamia bestelakoa da, Agirreraren hitzetan: "Aspaldiko lagun eta lankide diren bi aktore azkeneko emanaldia egitera doaz, baten gaixotasunak eta besteak duen ofizioa uzteko nahiak bultzatuta".

Hortik abiatuta, bi zati dituen antzezlan hasten da: lehenengoak taularen gainera igo aurretiko momentuak batzen ditu. Komedia bat izaki, umore klabearen jarduten badute ere, ordu erdiko elkarrizketa kondentsatuan, hausnarketa egiten dute hainbat gairen inguruan, besteak beste,

aktore ogibideaz, heriotzaz... Batek jarrera ezkorra du; besteak, berriz, kontrakoa, guztiz baiko-rra da-eta.

Bigarren zatiak azkeneko elkarrekin egiten duten obraren antzezpena jasotzen du. Denboran bi urteko saltoa eginda, taularen gainean agertuko da berriz ere Agirre, oraingoan lagunik gabe. Bizitzaren ikuspegia aldatu duela erakutsiko du Agirrek, gidoiko azkeneko bi minutuak jasotzen dituen bakarriketan. Ikusleen interpretazioetarako zabalik uzten du, baina, non dagoen eta zer gertatu den urteetan alboan izan duen lagunarekin. Dena ez da kontatu behar!



Niko Lizeaga eta Ramon Agirre, *Bejondaigula* lana antzezten. | IMANOL SORIANO



Ramon Agirre aktorea Oñatiko Santa Ana aretoko agertokian. | IMANOL SORIANO

GURE MUSIKA TALDEAK

HERSTURA



Herstura oñatiarrak, ezkerretik eskumara: Jagoba Martin, Mikel Marco, Xabi Pico, Unai Pata. | KEPA ARANBURU

"Orain disko bat grabatuko bagenu, ez genuke estudio handi batera joko"

- ▶ Tool, Lisabö edo Unsane taldeekin alderatu dute 'posthardcore' taldea
- ▶ Kantu berriak egiten dabilta eta erritmo gogorrakoak dira nagusi

JAGOBA DOMINGO | OÑATI

San Lorentzo auzoko garaje batean hasi zen lagun arteko taldeak heldutasunerako bidea hartu zuen duela urte batzuk. Bertsioak jotzetik kantu propioak egitera salto egin eta Herstura izena hartu zuen taldeak. Duela urtebete kaleratu zuten lehenengo diskoa, eta orduetik hona Hersturaren unibertsoak eboluzioa izan du. Taldearen identitatea garbiago dute, eta, lehenengo diskoaren esperientziari buruz hitz egiteko, Unai Pata baxu-jolearekin egon gara Errekaldeko lokaletan.

Duela urtebete grabatu zenuten diskoa; zelako erantzuna izan du?

Ona izan da; disko askorik ez dugu saldu, baina dagoeneko diskoen salmentak behera egin duela argi dago. Diskoa 2011ko Gabonetan grabatu genuen AME estudioetan eta emaitzarekin nahiko ados geratu ginen. Hala ere, Axular teknikaria beste musika mota batzuk grabatzera ohituta dagoela antzeman genuen emaitzan. Estudioan Iban *Loco* oñatiarra ere bazegoen, eta hark hobeto ulertu zuen taldearen nondik norakoa.

Beraz, emaitzarekin pozik, baina...

Lehenengoa izateko ez dago gaizki, baina, gure ustez, indarra falta zaio. Gure kantuek gorabehera asko dituzte; esaterako, kantu batzuetan zazpi erritmotik gora daude, eta hori ez da ondo sentitzen diskoa entzutean. Esate baterako, guk kantu baten pasarte bat ondo gera dadin, 15 toma edo hartualdi grabatu behar baditugu, ez zaigu axola; Axularrek, baina, gauza asko sinplifikatu egin zituen.

Herstura kantuan, adibidez, perkusioa sartzea erabaki zuen, eta guk kantua beste era batera genuen buruan. Beraz, produktore lanen bat egin zuela esan genezake.

Nolako banaketa egin zenuten?

Oñatiko tabernetan, kontzertuetan eta orain dela gutxi Bergarako gaztetxean jarri ditugu salgai. 500 kopia egin genituen eta 100 inguru saldu ditugu. Orain dela urte batzuk jende gehiagok erosten zuen musika; horregatik, hurrengo grabazioa beste era batera planteatuko genuke. Askotan, ez du zentzu handirik dirutza bat ordaintzea; gure ustez, Interneten kantuak jarriz gero, jende gehiagok entzuten ditu.

Eta orduetik hona zertan ibili zarete?

2012a urte nahiko lasaia izan zen, lan kontuak tarteko ez genuen kontzertu askorik egin. Gehienbat, entseatzan egon ginen eta hiruzpalau kantu berri egin genituen. Taldekideak koadrilakoak gara betidanik; beraz, ez daukagu inongo presiorik, nahi dugun edo ahal dugun erritmorra egiten ditugu gauzak. Kontzertuetara ere jende gutxiago doa azkenaldian; gaur egun egubakoitzean taberna baten

jotzera joanez gero, askotan, tabernaria eta bi lagun besterik ez dago. Hala ere, aurtun kontzertu gehiago egin ditugu. Gernikako Tooth taldearekin harreman ona egin genuen San Migel Txikitán jo genuen kontzertuan eta orduetik hona zortzi bat kontzertu eman ditugu elkarrekin.

Pozgarria da taldeen arteko hartu-eman hori, ezta?

Bai, inguruan ez dago guk egiten dugun musika mota egiten duen talde askorik, eta Toothekin hasieratik konexio hori lortu genuen.

Zuen musika definitzea ez da lan erraza; ze talderen eragina daukate?

Gure musika post-hardcore bezala definitu dute, baina, egia esan, nik neuk ez dakit post-hardcorea zer den. Horrez gain Tool, Lisabö edo Unsane taldeen influentzia dugula ere esan digute. Nire ustez, baina, gure musikarekin antzekotasunen bat duen talderen bat aipatu beharko banu, Dut izango litzateke. Hala ere, alde handia dago Duten eta gure artean. Influentziei dagokienez, lauronak nahiko antzekoak dira, txikitatik lagunak gara eta denok Sepultura, Metallica eta RATM bezalako taldeekin hazi ginen. Orain, baina, nork bere bidetxo egin du. **Eboluziorik igarri duzue diskoaren eta kantu berrien artean?**

Bai, orain ideiak argiago ditugula esango nuke. Kantuak gogorrakoak dira, lelo errazak alde batera utzi ditugu. Nahiago dugu zarata atera eta publikoa aspertzea!

"Kantu batzuetan zazpi erritmotik gora daude"



Patxi Baztarrika, softwarearen aurkezpenaren, Bilbon. | MICROSOFT

Windows eta Office berriak euskaratzeko paketeak

Dagoeneko doan eskura daitezke softwarearen bertsio berrienentzako

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Windows sistema eragilearen eta Office ofimatika aplikazio sortaren euskarazko bertsioa aurkeztu dute Eusko Jaurlaritzak eta Microsoftek. Softwarea behin instalatuta izanda, euskarazko bertsioa dakarren paketea deskargatu behar da. Doakoa da eta honako helbidean aurki daiteke: www.euskadi.net/euskara_soft. Arrasateko Garaian gunean dagoen Microsoften Berrikuntza

Guneak ere parte hartu du proiektuan.

Itzulpena behin instalatuta, sistema eragilearen azken bertsioa euskaraz egongo da. Microsoft Office aplikazio sortarako itzulpen paketea ere leku beretik jaitz daiteke, eta ofimatika sorta osoa dago itzulita, azken bertsioan.

Pakete osoa

Office sortari dagokionez ere aldaketa nabarmenak ekarri ditu

bertsio berriak. Language Interface Pack delakoan Word, Excel, PowerPoint eta One Note ezagunak eta baita Access, Publisher eta Outlook kudeaketa tresnen itzulpena deskargatu daiteke. Windowsen zortzigarren bertsioa azken urteetako ezberdinena da tablet eta pantaila ukigarriarako diseinu bereziarekin baitator, ez da aurreko bertsioen garapen bat. Hortaz, itzulpen lanak handiagoak izan dira.

'Roaming' zerbitzuak kenduko ditu Batasunak

Herrialdeen arteko tarifa errekarquak merkatu bakarraren aurkakoak direla diote

J.B. | ARRASATE

Europako Batzordeko Telekomunikazio arduradunak herrialdeei eskatu die urtebeteko epean herrialdeen arteko mugikorretarako errekarquak amai ditzatela: *roaming* zerbitzua. Hori bermatzeko neurri sorta bat onartu nahi du batzordeko buruak eta aurreratu du asmoak betetzen badira, 2014ko udaberriarako onartuta izango dutela.

Sorta zabala

Neurri sorta horretan, Interneten neutraltasuna eta delinkuentziaren aurka egiteko bideak ezarriko dira, batzordeburuaren

esanetan, pakete oso bat aurkeztuta. Oraingoz, Europako Batasunak mugak jarri dizkie Batasun barruko mugikorren tarifei. Mugikorretarako gehieneko tarifak mugatzeaz gain, datuen deskargarako tarifa maximoetan eskua sartu du Telekomunikazioen batzordeak.

Roaming-ari dagokionez, merkatu bakarra defendatu du batzordeburuak eta haren desagerpena eskatuko du. Haren ustetan, hain zuzen, telefonia mugikorren merkatua da irregularrena Europako Batasunean, hain zuzen, merkatu batasun baterako.



Neelie Kroes, batzordeburua. | PHILOTELIA



Wazek Kalifornian duen bulegoetako bat. | SIJOKURUVILLA.COM

Facebookek, azkenean, ez du Waze nabigazio aplikazioa erosiko

J.B. | ARRASATE

Erosketarako negoziatioek egin-dako zalaparta guztiaren ostean, iritiz aldatu da Facebook. Enpresa erosteko Wazekoek eskatutako diru kopurua da arrazoietako bat eta bestea, antza, baldintza moduan egoitza nagusia Israelen mantentzea eskatu dutela. Filtratutako informazioaren arabera, jatorrizko herrialdean geratzaren eska-

kizun horrek eten ditu, azkenean, negoziatioak. Facebookek enpresa Kaliforniara eraman gura zuen.

Googleren txanda

Bide hori, antza denez, itxita, begi guztiak orain Googlen daude, interesa izan dezakeen konpainia nagusi bezala. Waze autorako nabigatzaile sozial irekia da.

Twitterrek telebista saioei buruzko txioen artean publizitatea txertatuko du

J.B. | ARRASATE

Emisioa identifikatu eta saioei buruzko komentarioen artean publizitatea txertatzeko teknologia erosi du Twitterrek. Saioa antzemateko gauza izango da Twitter eta saioari buruzko iruzkinen artean espazioak erosi ahal izango dituzte iragarleek. Telebista pantailaren luzapen *sozial*

bihurtu da Twitter audientziarik handiena duten saioetan. Eta frogatu da telebista saio askotan audientzian eragin handia daukala Twitterrek.


Teknologia berria

Bluefin Labs enpresaren teknologiaz jabetu da Twitter eta horri esker aplikazioa gai izango da

erabiltzailea telebistan zer ikusten dabilen antzeman eta Twitter zabalik dagoen bitartean denboraleroan iragarleak txertatzeko. Enpresa iragarleak erabiltzaileen saio zehatz horri buruzko mezuen artean bere iragarleak txertatzea kontratatu ahal izango du. Sistema, aurreratu dutenez, erabiltzailea zein saiori buruz hitz egiten dabilen asmatzeko gauza da. Txioak eta iragarleak elkarren artean koordinatzeko modua ere eskain dezake sistemak.

Pizzan usaindun DVDak

Usaindun tinta erabiliz pizza itxurako DVDetan publizitate deigarria egiten hasi da Domino's. Alokaturako DVDetan diskoa berotu ahala usaina zabaltzen da. Filma amaitu orduko pizza "prest" dago eta iragarkia txertatzen da.



MARKETING4FOOD

TELE-BEGI

IMANOL GALLEGO



Maitemindu egin naiz!

Unibertso frikiak izugarri erakartzen nau eta duela bi aste maitemindu egin nintzen. Bera berezia da, dibertigarria, alaia, entretenigarria... Etxerako modukoa edo modukoak. Corina eta bere printze/apoez ari naiz. Hasieratik hasiko naiz.

Domeka gaua, eta gainontzeko kateetan ohiko programa aspergarriak. Bihotza erdibitua daukat. TVEn Meryl Streep handia, eta Cuatron Corina printzesa. *Mamma Mia*-ren dvd-a etxean daukat eta bi edo hiru (mila) aldiz ikusi dudanez, Corinak lehia irabazi zuen.

Bera Mediaseteko neska txolin eta gatzbako, *rubia* aspergarri horietako bat da, baina programa izugarria da. Gutxienekoa bera eta bere printze/apoak dira, hemen kontua barre egitea da.

Musika, kroma eta soinu arraroen bitartez guztia txantxa handi bat dela dirudi. Casting primerakoa da, pornozalea den euskal-txinatar bat, neskame afizioak dituen banpiroa, neurona guztiak saldu dituzten muskulito talde txoa...

After hours batean baino errefus gehiago dago programan, baina formatuaz maitemindu naiz. *C'est la vie!*

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 3



'Harmailatik'

Asteburuan kirol kontuek eman dutenaren berri jaso ahal izango duzue asteleheneko kirol saioan. | 22:00

12:00 Magazinea
13:00 Ekogune
13:30 Zorion Agurrak
13:36 Pedalka
14:06 AsteON
14:45 Berriak
15:15 Eguraldia
15:18 Zorion Agurrak
15:23 AZK2012
16:23 Pedalka
16:53 Zorion Agurrak
16:58 Berriak
17:28 Eguraldia
17:31 Onein
18:03 Berbetan
18:41 Erreportajea
19:24 Beranduegi.tv
19:49 Berriak
20:13 Eguraldia
20:15 Magazinea
21:00 Gurean gaur
21:00 Gurean gaur
21:30 Berriak
21:55 Eguraldia
22:00 Harmailatik
22:45 Magazinea
23:45 Berriak
00:20 Eguraldia

MARTITZENA, 4



'Berriak'

Debagoienean gertatzen diren albisteak jasoko ditugu Monika Belastegik aurkeztutako saioan. | 14:45

12:00 Magazinea
12:45 Gurean gaur
13:15 Zorion Agurrak
13:22 Harmailatik
14:07 Ekogune
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Harmailatik
15:53 Onein
16:18 AsteON
16:48 Zorion Agurrak
16:53 Berriak
17:18 Eguraldia
17:21 AZK2012
17:51 Altxoraren bila
18:23 Ikusmira
18:38 Beranduegi.tv
19:00 Harmailatik
19:45 Zorion Agurrak
19:50 Berriak
20:15 Eguraldia
20:17 Magazinea
21:00 Gurean gaur
21:30 Huhezinema
22:00 Berriak
22:25 Eguraldia
22:30 Magazinea
23:15 Klaketa
23:55 Berriak
00:29 Berriak
00:54 Eguraldia
00:57 Magazinea

EGUAZTENA, 5



'Magazinea'

Bergaran sortu den hizkuntza taldea eta fibrosi kistikoa izango ditugu berba guzti eguaztenean. | 20:17

12:00 Magazinea
12:45 Gurean gaur
13:18 Harmailatik
14:03 Pedalka
14:38 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Klaketa
15:53 Onein
16:21 Harmailatik
17:06 Huhezinema
17:36 Zorion Agurrak
17:41 Berriak
18:06 Eguraldia
18:08 Erreportajea
18:53 Berbetan
19:31 Ikusmira
19:45 Zorion Agurrak
19:49 Berriak
20:14 Eguraldia
20:17 Magazinea
21:02 Gurean gaur
21:32 AsteON
22:02 Ekogune
22:32 Berriak
22:57 Eguraldia
23:44 Harmailatik
00:33 Berriak
00:58 Eguraldia

EGUENA, 6



'Planik bai?'

Astebururako planik bai? Arantzazu Ezkibeleg emango dizkizu astebururako kultura proposamenak. | 17:21

12:00 Magazinea
12:45 Gurean gaur
13:10 Huhezinema
13:40 Jaiak: Loiaz jaiak
14:10 Onein
14:42 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Erreportajea
15:58 AZK2012
16:28 Berriak
16:53 Eguraldia
16:56 Onein
17:21 Planik bai?
17:41 Atik Zra
18:47 Huhezinema
19:17 Zorion Agurrak
19:22 Planik bai?
19:42 Zorion Agurrak
19:47 Berriak
20:12 Eguraldia
20:15 Magazinea
21:00 Gurean gaur
21:50 Pedalka
22:20 Planik bai?
22:40 Berriak
23:05 Eguraldia
23:08 Magazinea
23:53 Klaketa
00:18 Berriak
00:43 Eguraldia

EGUBAKOITZA, 7



'AsteOn'

Astean bailaran gertatu diren albiste garrantzitsuenen errepaso egingo dugu, besteak beste. | 22:00

12:00 Planik bai?
12:20 Magazinea
13:05 Gurean gaur
13:30 Onein
13:55 Pedalka
14:25 Ikusmira
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Planik bai?
15:33 AZK2012
16:03 Erreportajea
16:48 Beranduegi.tv
17:18 Zorion Agurrak
17:24 Planik bai?
17:44 Berriak
18:09 Eguraldia
18:12 Planik bai?
18:32 Altxoraren bila
19:04 Zorion Agurrak
19:10 28.Klip
19:42 Beranduegi.tv
20:07 Zorion Agurrak
20:12 Berriak
20:42 Eguraldia
20:45 Planik bai?
21:05 Gurean gaur
21:30 Pedalka
22:00 AsteON
22:30 Jaiak: Corpusak
23:00 Berriak
23:25 Eguraldia
23:28 AsteON
23:58 Planik bai?

ARRASATE IRRATIA

'Flamenko Etxea' ikuskizunerako sarrerak zozketan

Zapatuan eskainiko da *Flamenko Etxea* izeneko ikuskizuna Amaia antzokian 20:00etan eta protagonistekin hitz egingo dugu 107.7ko uhinetan egubakoitzean. Ikuskizunerako sarrerak ere badauzkagu. Zozketarako deitu 943 25 05 05ra edo idatzi irratia@goiena.com-era.

'Fiachras' taldearen kontzerturako sarrerak zozketatuko ditugu

Eguenean, hilaren 6an, egingo dugu zozketa *Fiachras* taldeak egun horretan bertan Arrasateko gaztetxean emango duten kontzerturako sarrerak lortzeko. Zozketarako deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi irratia@goiena.com helbidera. Eguenean protagonistak irratian izango dira.

Gazte informazioa jaso ahal izango duzue bihar, martitzena

Gazte bulegoaren bisita izango dugu bihar, martitzena, Arrasate Irratiko *Igo autobusera!* irratsaioan. Gazte bulegoko teknikari Dorleta Kortazarrek emango digu informazio hori guztia eta azken berrien gaineko albisteak ere emango dizkigu 11:00etan elkarrizketen geltokian. Ez galdu.

TELE-ALBISTEAK

Corpus eguneko prozesioa ikusgai gaur, astelehena, 20:15ean

Corpus jaietako buruzko saio berezia ere eskainiko dizuegu; egubakoitzean 22:30ean izango da hori



San Migel, atzean apostoluak eta dantzariak dituela. | GOIENA

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Asteburuan Corpus jaiak ospatu dituzte Oñatin eta atzo, domeka, egin zuten Corpus egunean egin ohi den prozesioa. Bertan, urtero moduan, protagonista izan ziren San Migel, apostoluak eta Oñatz dantza taldeko dantzariak.

Santa Anako aretoan San Migel eta apostoluak nola janzten zituzten ikusten izan ginen lehenengo, San Migel parrokiara joaten ere grabatu genuen eta prozesioa irudiak ere jaso ditugu Goiena telebistan.

Elkarrizketak ere egin dizkiegu bai eguneko protagonistei eta baita prozesioa ikusten izan ziren herritarrei ere.

Bada, hori guztia eta gehiago ikusi ahal izango duzue asteleheneko *Magazinea* saioan 20:15etatik aurrera.

Saio berezia egubakoitzean

Corpus jaietan batutako irudi eta adierazpen guztiekin saio jaien berezi bat ere eskainiko dizuegu. 22:30ean hasiko da Corpus jaien inguruko saio berezi hori, Goiena telebistan.

Alpeetako bidaiaren erdialdera iritsiko da Julen Iriondo, eguneneko saioan

Bizikletaz zeharkatuko ditu Galibiarreko jaitziera, Briançon eta Izoardeko mendatea

A.T. | ARRASATE

Pedalka saioaren beste atal bat eskainiko dizuegu egun honetan 21:50ean, Goiena telebistan.

Seigarren atala


Galibiarreko jaitzierarekin hasiko da saioa. Bertan Henri Desgrance-ren omenezko monumentua ikusi ahal izango duzue. Izan ere, Desgrance ziklista ohia eta *L'Auto* gazetako arduraduna izan zen Frantziako tourreko sortzaileetarikoa bat 1903. urtean eta Galibiarren bere omenezko monumentua dago.

Briançon harresiz inguratuta dagoen hiria ere ezagutu ahal izango duzue Julen Iriondo kazetariarekin batera. Europako bigarren hiri garaiena da Briançon eta bertan ere izan zen Iriondo bizikletaz egindako bidaiaren.

Saioa amaitzeko, Izoardeko mendate mitikoa igoko du Iriondok. Une horretan Izoardek duen ilargi itxurako paisaiarekin gozatu ahal izango duzue telebistaz.

Eguenean eskainiko dizuegu saioarekin, Iriondo Alpeetako bidaiaren erdialdera iritsiko da.

ZORION AGURRAK



OÑATI
Irene Aranburu Onaindia
Ekainaren 9an, 4 urte.
Zorionak eta mosu handi bat gure etxeko printzesari etxeko danon partetik.



ARRASATE
Alaitz Bergaretxe
Ekainaren 6an, 7 urte.
Zorionak familia guztiaren eta, bereziki, Urko, Arrate eta Saioaren partetik.



ESKORIATZA
Maialen Apraiz Ansola
Ekainaren 6an, 6 urte.
Zorionak, Maialen, 6 urte! Ondo pasatu zure urtebetetzean. Muxu handi bat amatxo, amama eta aitaitaren partetik.



BERGARA
Ekaitz Ena Laskurain
Ekainaren 4an, 7 urte.
Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta patxo handi bat danon partetik. Gaztelugainen fenomeno pasatuko dugu.



BERGARA
Peru Montalvo Ruiz de Egin
Ekainaren 4an, 3 urte.
Zorionak, Peru! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta patxo potolo bat Uxue, aitaxo eta amatxoren partetik.



ARRASATE
Iraitz Etxagibel Ruidiaz
Ekainaren 3an, 9 urte.
Zorionak eta muxu handi bat denon partetik!



OÑATI
Lide Aramendi Diaz
Ekainaren 2an, 3 urte.
Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu daizula zure urtebetetze eguna laguntxo eta familia danarekin; Mila muxu aittaxo, amatxo eta Xabat txikinarekin partetik!



ESKORIATZA
Enara eta Olatz Urrutia Lasagabaster
Ekainaren 2an, Enarak 6 urte eta ekainaren 4an, Olatzek 2 urte. Zorionak eta muxu handi bana.




BERGARA
Andoni Gomez Familiar
Ekainaren 2an, 5 urte.
Zorionak, txapeldun. Oso ondo pasatu zure egunian eta ez gehiegi jan. Guraso, aiton-amon eta tiaren partetik.



BERGARA
Harri Alberdi Manuel
Ekainaren 2an, urtebete.
Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure lehen urtebetetzean. Muxu bat familia guztiaren partetik.



ZUMARRAGA
Julen Garcia-Gango Zabalo
Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta muxu potolo bat aitita eta amama, tio lñaki, tia Arantza eta Anerren partetik.



BERGARA
Lander Alzola Altzerrea
Ekainaren 1ean, 8 urte.
Zorionak, Lander! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian eta muxu handi bat familia guztiaren partetik!



OÑATI
Irati Ugarte Imaz
Ekainaren 1ean, 32 urte.
Zorionak, Irati. Ondo pasatu eguna eta 32 tirakada belarri txiki horretxetatik!



ARETXABALETA
Naiara Gutierrez Olave
Maiatzaren 31n, 3 urte.
Zorionak eta ondo pasatu zure urte eguna. Patxo handi bat etxeko danon partetik.



ARRASATE
Suhar Macias Luarizaristi
Maiatzaren 31n, 9 urte.
Zorionak, rubio! Oso ondo pasatu zure eguna eta asko ospatu asteburuan, etxekoekin eta maite zaitzuzten danekin.




OÑATI
Malen Arabolaza Sanchez
Maiatzaren 30ean, 4 urte.
Zorionak eta muxu handi bat, potxola, familia guztiaren partetik.



OÑATI
Jon Altube Orueta
Maiatzaren 29an, 33 urte.
Zorionak, aitaxo! Ondo-ondo pasatu eguna etxeko guztien eta, batez ere, Lexuri eta amatxoren partetik. Askok maite zaitugu. Muak!



OÑATI
Paula Zelaia Vizcaino
Maiatzaren 29an, 5 urte.
Zorionak, polittori! Bost urte dagoeneko. Ondo-ondo pasatu zure eguna eta muxu erraldoi bat Jonen partetik.



BERGARA
Aner Aragones Sanchez
Maiatzaren 29an, 3 urte.
Zorionak, pirata! Ondo pasatu zure egunian! Muxu handi bat aitaxo, amatxo eta Irairen partetik.



OÑATI
Andrea Zamakola
Maiatzaren 29an, 6 urte.
Zorionak! Muxu potolo bat aitaxo eta amatxoren partetik.



OÑATI
Miren Zubizarreta
Maiatzaren 29an, 26 urte.
Zorionak, Miren! Ondo ondo pasatu eguna eta asko disfrutatu bai Jabirekin, txakurtxuarekin, guraso eta lagunekin. Muxu eta besarkada bat S&A-ren partetik.



ARETXABALETA
Lander Duarte Arenaza
Maiatzaren 28an, 2 urte.
Zorionak, rubio! Ondo pasatu eta patxo handi bat etxeko danen partetik.



BERGARA
Maddi Martin Olaskoaga
Maiatzaren 28an, 8 urte.
Zorionak, printzesa!



ARETXABALETA
Irune Barbero Olivares
Maiatzaren 28an, urtebetetzea. Zorionak, guapa, zure iloben partetik!



OÑATI
Ander Nogueiras Guzman
Maiatzaren 27an, 4 urte.
Zorionak, Ander! Oso ondo pasatu zure egunian eta urte askotarako. Muxu handi bat familixaren eta bereziki Asierreren partetik.



BERGARA
Markel eta Garazi Gonzalez Martinez
Maiatzaren 24an, Utebetetzea. Zorionak, bihurri pare! Etxeko guztien partetik egun alai pasa ezazue eta marrubizko musu handi bana, bikote.



BERGARA
Maddi Gallastegi
Ekainaren 2an, 4 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxekoekin eta laguntxoekin partetik. Ondo pasatu!

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak.
Hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Sar zaituzte *Goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurra@goiena.com helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaituzte Goienaren ordezkariaren batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurra bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

JAIOTAKOAK



Xabier Orobengoa Nevado

Eskoriatza. 3,600 Kilo. Maiatzaren 25a. Gurasoak: Ana eta Patxi. Argazkian, Xabier gurasoekin eta anaia Anerrekin.



Irati Garcia Bengoa

Aretxabaleta. 3,110 Kilo. Maiatzaren 27a. Gurasoak: Deiane eta Xabi. Argazkian, Irati aita eta amarekin.



Ibai Bravo Zabalo

Bergara. 3,850 Kilo. Maiatzaren 27a. Gurasoak: Itxaso eta Victor. Argazkian, Ibai jaioberrria sehaskan adi-adi.



Oier Lete Esnal

Eskoriatza. 3,600 Kilo. Maiatzaren 27a. Gurasoak: Saioa eta Iñaki. Argazkian, Oier sehaskan lasai-lasai.



Ekain Urteaga Larrea

Aretxabaleta. 3,230 Kilo. Maiatzaren 28a. Gurasoak: Done eta Jokin. Argazkian, Ekain aitaren besoetan.



Unai Estrella Luengo

Arrasate. 3,100 Kilo. Maiatzaren 29a. Gurasoak: Maider eta Casiano. Argazkian, Unai amama Marijeren besoetan.



Maren Goñi Jauregi

Arrasate. 3,550 Kilo. Maiatzaren 29a. Gurasoak: Eneritz eta Ruben. Argazkian, Maren gurasoekin.



Adei Dominguez Etxebarri

Bergara. 3,460 Kilo. Maiatzaren 31. Gurasoak: Monica eta Iñigo. Argazkian, Adei gurasoekin.



Jaio da!

Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten. Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAREN ordezkaria batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK




	Zurgina	Nafarroako urtegia	Su-etena
	Goibel	Irakurtzen du	Pl. idazteko isurkaria
Lotsa	Une honetan		
	Ez ohiko		
Ehorztea	Ate, hitz elkartzetan	Naizen hau	
	Animalia adardun	Noren atzikia	
* Kirol olimpiarra			Zangoaren atal
Bihia, garaua		Röntgen	Erep. fruitu mota
		Bokal biribila	Artsenikoa
Jarduera fisikoa			1
Interjekzioa			Bokala
		Hitzaz adierazi	

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.



SOLUZIOAK



Ezetz igarri: Buru gainean baso bat ur jarrita.

SUDOKUA

	9			4	5		7
		2	9	5		8	
	5		6		9		
8	4				1	7	
	1		3				
5		7	9				
	4		1	9			8
9			3	7			2
3						9	6

HIZKI SALDA

Topa itzazu Hego Amerikako bost hiriburu

A	Q	S	E	A	Q	A	A	U
I	A	O	U	D	U	T	B	R
A	H	R	Y	A	I	P	R	E
D	B	O	G	O	T	A	A	A
E	A	W	E	C	O	A	S	U
P	T	A	T	Q	F	S	I	Q
I	L	I	M	A	A	E	L	I
G	E	S	R	E	D	O	I	A
S	U	C	R	E	R	U	A	P

EZETZ IGARRI!

Mago batek ziurtatu zuen gai zela sei minutu urpean egoteko. Ume batek, ostera, esan zion bera hamar egoteko gai zela. Apustu egin eta umeak irabazi zuen.

Nola lortu zuen?

AI, ENE!

Japoniatik zuzenean etxeko egongelara

Ez gara gustu kontuetan sartuko; bakoitzak nahi duen moduan apain dezake etxea. Dena den, mahai hau, bitxia behintzat, bada. www.nopuedocreer.com



AHOBERO

"Emakumeei debekatu egin beharko liekete luxuzko jatetxetan sartzea"

SALVADOR SOSTRES | IDAZLEA

Zergatik? Sostresentzat, emakumeeek plater guztiak elkarbanatu gura izaten dituztelako eta ez dietelako gizoni nahi beste jaten eta edaten uzten. Ondorioz, jatetxeek gutxiago irabazten omen dute. Zenbat tertulia gehiago ziurtatu dizkio sortu duen polemikak? **Intereconomía**

EGURALDIA



Max. 16°

Min. 7°

Eguzkia agertu daiteke berriro ipar isurialdean. Dena dela, ordu batzuk beharko ditu. euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2013-06-03

HAMARREKOA

Eñaut Elorrieta Ken 7ko ahotsak bakarkako ibilbideari ekin dio 'Deserriko kantak' diskoarekin; besteak beste Sarrionandia, Cano, Aresti edo Beneditteren hitzei musika jarri die bertan. | TXOMIN MADINA

"Jakín behar da agertokira igotzen eta agertokitik jaisten"

1. Azkena, bakarrik. Zergatik? Gorputzak eskatu didala sentitzen dut: ez da hausnarketa baten ondorio izan; gogoa piztu zitzaidan, ilusioa. Denbora ere banuen, bete-betean musikan aritzeko irakasle lanak utzi nituen-eta.

2. Lehen lanaren ardatza, deserria. Ez zegoen gai alaiagorik? Seguru baietz, baina azken urteetan bizi eta ezagutu ditudanekin, iruditzen zitzaidan gaiak bazuela nondik tiratu; inkomunikazioaz, bakardadeaz edo bizitzaz hitz egiteko aukera ematen zidala.

3. Letrak ez dira edonorenak... Saiatu naiz benetan gustuko ditudan poetak sartzen, hemengoak eta kanpokoak, baita beste garaietakoak ere. Deserria ikuspuntu ezberdinetatik nola ikusten den jaso gura nuen.

4. Zu zeu inoiz sentitu zara deserriatuta? Euskal Herrian, badira deserri behartuak. Hautazkoak ere badaude: nire kasuan, lan hau Ken 7tik aparte egitea. Gainera, gorputzari eta emozioei kasurik egiten ez dien gizarte baten bizi gara, eta deskonexio hori ere deserria da.

5. Zer ikasi duzu diskoa egiteko prozesuan? Erantzukizun dena neure gain izanda, zalantza uneak asko izan dira; baina horiei erantzuteko gai naizela ikusita, satisfazioa ere handia izan da. Profesionalki eta pertsonalki aberasgarria izan da.



LANDER GARRO

MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Gure herriarentzat askatasuna"

"Ez dut makila magikoetan sinesten, ikusten duten-eta, baita Euskal Herrian dugun egoeran ere, ekin beharrean makilaren zain gaudela. Baina gustatuko litzaidake gure herriarentzat askatasuna lortzea; Eliza eta botere ekonomiko eta politikoen lotura eta diktadura guztietatik aske ikustea".

6. Agertokia, berdin ikusten al da bakarrik edo taldean aritu? Diskoa pertsonalagoa da, gehiago biluztu izanaren sentsazioa dut. Kontrakoa izan behar dela dirudien arren, agertokian ni-agoa sentitzen naiz: hauskortasun horretan, babestuago, indartsuago.

7. "Zer gertatuko da Ken 7rekin?" galdetuko dute askok beldurtuta. Bere ibilbidea jarraituko du. Ulertzen dut jendearen kezka, baina abenduan, esaterako, disko bat aterako dugu Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin. Niretzat bizirik dagoen proiektu bat da.

8. Arrakastatsua izatea garesti ordaintzen al da? Norberaren esku dago, jarreraren arabera ere bada: jakín behar da agertokira igotzen eta agertokitik jaisten; egoa gailendu ez dadin oinak lurtean izaten.

9. Zer suposatzen dute zaleek zuentzat? Motorra dira. Ken 7 sorkuntza tailerra da: irabazien zati handiena hurrengo proiektuetan inbertitzen dugu. Horren oinarria jendearen harrera da: euren babesik gabe ezingo genuke egin duguna egin.

10. Zutaz gain, zein parekotasun dute fisikak eta musikak? Fisika irakasle izan naiz ikastola baten, eta iruditzen zait ikastoletan euskara eta euskal kulturaren aldeko lan handia egiten dela. Baina gustura ibili arren, sentitzen nuen ez zela nire bidea.

AZKEN BERBA

MARKOS BALENTZIAGA



Kakalardo zopa

Goseteari goseteak darraionean, eta gosez hiltzen ari den jende-jarioa etengabea denean, FAOk (Nazio Batuen Elikadura eta Nekazaritzarako Erakundea) mamorroak jateko gomendioa zabaldu du, intsektu-elikadurak abantailak baino ez dituela seinalatuz.

Ez dakit gure artean, egoeraren larria gorabehera, matxinsalto barbakoa edota liztor-paella modukorik inoiz ikusi ere egingo dugun. Gaurbiharretan ez dut uste. Etziko kontuak, dena dela, etziko lagako ditugu.

Baina FAOren gomendioak multinazionalen belarrietan euli-saldo baten zurrumbilo gogaikarriak baino interes zukutsuagoa sortu duela kontu seguru samarra da. Eta, jakina, lehen planak ere egiten hasiak izango dira, hau da, txindurri, armiarma, mandaeuli edo dena delakoak nola hazi, gizendu eta saldu kalkulaten abiatuak izango dira, dagoeneko.

Amesgaizto bat ote da hori guztia? Bai zera! Multinazionalentzat, denbora-kalkulua egin ondoren, negozioa eratu eta publizitatea antolatzea baino ez dago zomorro horiek gure platereraino ekartzeko. Gero, FAOk ez dakit baina multinazionalak on egin esango digute.



Zure aurrezkirako

GASOLINAREN*

PREZIOAK JAITSI DITUGU

Lanean gabiltza, egunero, zuri ahalik eta preziorik onena emateko.

* Eskaintza baliagarriak Eroski Arrasate Hipermerkatuan. Musakola z/g. 20500. ARRASATE.

EROSKI
zurekin



05/30etik 06/12ra arte. Frutategian, harategian eta arrandegian, 05/30etik 06/05era arte.